


ARGIA



VICTOR MANUEL ARBELOA

«PSNren eta UPNren arteko hitzarmenik ez da existitzen»

ALAIN KRIVINE

«Frantziako ezkerre eta mugimendu sozial berria ez dira elkarrekin uztartu»

INFORMATIKA


Euskarazko softwaregintzaren premia eta lehentasunak

PIERRE DUNY-PETRE

Euskal Herriaz ikertzea ihesbide izan zuten idazle-jandarma



KEPA JUNKERA



«MUSIKA-TRESNAJOLE SOILA BAINO GEHIAGO BANAIZ»



KAPSULA



Euskarazko Dokumentu-Baseen jestiorako softwarea

Kaleratzear dagoen Kapsula softwareak informazioko kopuru erraldoiak gordetzeko eta berreskuratzeko ahalmena ematen dizu, aukera anitzeko modu arin eta azkar batez. Honoko ezaugarriak ditu Kapsula teknologiak:

- Informazio kopuru ikaragarriak kudeatzeko ahalmena, Dokumentu-Base ugari aldi berean edukitzeko aukerarekin.
- Azkartasuna eta sinpletasuna dokumentuen kontsulta eta berreskurapenean, interface arin eta intuiziozko baten bitartez.
- Euskarari egokitutako azterketa morfologikoa eta lematizazioa.
- Informazioa modu eta irizpide desberdinen bitartez berreskuratu ahal izatea: fitxa deskriptiboaren arabera, karpeta tematikoen bidez edo testu libreko bilaketa eginez.
- Indiziaziorako, karpetaratzeko eta fitxen araberako katalogaziorako prozesu aurretatuak eta dinamikoki definigarriak.
- Formatu ez-dijitaletan dauden dokumentuak berreskuratzeko prozesuen integratzea.
- Softwarea sareetan erabili ahal izateko egokipena, hala sare globaletan (Internet) nola lokaletan (Intranet).

Dokumentu kopuru handiak erabiltzen dituzten zentru eta erakundeentzat egokia duzu Kapsula softwarea: erakunde eta elkarteak, irakas-kuntzako zentruak, komunikabideak, udal liburutegi eta zerbitzuak, unibertsitateak, eta abar.

ametzagaiña taldea

Zirkuitu Ibilbidea, 1-2 Pabilioiak 20160 Lasarte Oria (Gipuzkoa)

 **ARGIA**
prentsa
eta
argitalpenak

Zirkuitu Ibilbidea, 15 20160 Lasarte-Oria, Tel: 37 15 45, Fax: 36 10 48

ANTZA
grafikagintza
eta
komunikazioa

Zirkuitu Ibilbidea 2, pabilioia 20160 Lasarte-Oria
Tel: 37 15 45 Fax: 37 34 03

ASP
Software Injiniaritza

Zirkuitu Ibilbidea
1. pabilioia
20160
Lasarte-Oria
Tel: 37 18 49
Fax: 37 27 72

- 6. Politika kronika. MIKEL JAUREGI.
- 8. Victor Manuel Arbeloa: «Nafarroa ondoen defenditzen duena UPN dela esateak ez du inor asaldatu behar». XABIER CARRILLO.
- 12. Neguriren aurkako eraso. ANDER USABIAGA.
- 15. Alain Krivine: «Mugimendu sozial berria sortu dute Frantzia izako abenduko grebek». JULEN ARRIOLA.
- 18. Haizeak gero eta diru gehiago mugiarazten du. XABIER ARANBURU.
- 20. Lan mahaien proposamenak eta lan-ildoak dagozkien erakundeetarako jakinaraziko zaizkie. Gipuzkoan planak lotzeko. IDOIA TORREGARAI.
- 22. Euskarazko softwarea hutsuneetatik abiatuta. IDOIA TORREGARAI eta ARANTXA ERASUN.
- 25. Partidu berrien hotsik ezean palak isilik darrai. MARTIN AGIRRE.
- 28. Kepa Junkera: «Beldurra beti dago hor, baina nire barruko egonezinak gaintzen nau». JON ABRIL.
- 34. Kultura kronika. MIKEL ELORZA.
- 37. Egunerokoa haritik zintzilik jartzen dutenen inbasioa. JOXEMI SAIZAR
- 40. Haurren kantu eta jokoez 60 urtetan bildutakoa kaleratu du Pierre Duny-Petre garaztarrak. Euskal Herriaz ikertzea ihesbide izan zuen jandarma. RITXI LIZARTZA.
- 42. Minutu gutxiko amets luzeak. MYRIAM GARTZIA.
- 45. Argitalpenak. JON ABRIL.
- 48. Irrati-Telebista. ARRITXU ZELAIA
- 52. Aukeran. JOSU ARANBERRI.
- 56. Denborapasa.
- 58. 20-Nren umeak eta frankismoaren heredentzia. JAVIER SANCHEZ ERAUSKIN.




KEPA JUNKERA: «Leonen orroa» disko berria argitaratu du Ibon Koteron eta bere albokaz lagunduta, Leon Bilbaori «geure xumean» eskainia. Azken lanaz gain, bere lanaren bilakaera azaldu du bilbotarrak. «Barruko egonezinak gaintzen nau» eta etengabe, esperimentazio hutsean gelditzeko beldurra gaintuta, haize berriak ematen dizkio trikitixari. /28

POLITIKA: Ez dira garai gozoak nafar sozialistentzat. Hala ere, hurrengo biltzarrerako prestaketa lanak egiten ari da PSNren gestora. Beronen lehendakaria den Victor Manuel Arbeloa egun PSNk bizi duen egoeraz jardun du luze eta zabal, eta zera baieztatu du ozen: «PSNren eta UPNren arteko hitzarmenik ez dago». /8



TOLOSAKO TXOTXONGILO JAIALDIA: Txotxongiloenak izaten dira Tolosan udazken parte honetako egunak. Inoiz baino proposamen gehiago jaso dituzte aurten: 342, horietatik 22 gelditzeko. Tartean Euskal Herriko sei, euren lan berriekin. Jaialdian ez izanagatik, urte osoan egunerokoa haritik zintzilik jartzen diguten euskal talde guztien bila jo dugu. /37



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Diputazioa
Kultura eta Euskera Departamendua

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:


En la edición de esta publicación colabora:

kutxa


fundazioa
fundación

BOST FILOSOFO HANDI

PL. ARTES, KANT, MARX,
ITGENSTEIN




HILTZEAR DAUDEN KULTURAK



GIZATERIAREN ERAKETA

Richard E. Leakey



TUTANKAMON-EN HILOBIAREN AURKIKUNTZA

Howard Carter



KULTURAREN ENIGMAK

(Behiak, zerriak, gerrak eta sorginak)

Marvin Harris

PEÑASAMENDU GARABIDEA

GAIA

(LURRAREN BIZIAZ IKUSKERA
BERRIA)

James Lovelock



PEÑASAMENDU GARABIDEA

ELEMENTU PIKTORIKOEI EKARPENEA

(IZPIRITUALTASUNAZ ARTEAN)
(PUNTUA ETA LERROA PLANOAN)

Vasili Kandinsky



GAIAK TESTUAK

EUSKARAREN ERABILERA MURGILTZEN

(EUSKARAZ TREBATZEN ***)

Joseba Ezeiza / Ainhoa Ezeiza



GAIAK TESTUAK

TESTUAREN HARIAN

EUSKAL ESALDIAREN
ESTILISTIKA (*)

Joseba Ezeiza



KULTURA ETA EUSKARA EGUBERRITAN ERE

GAIK ARGITALDARIA

IRAKUR- LEAK MINTZO

Non dira irakasleak?

AZAROAREN erdialdean gauden honetan, oraindik ere irakasle gabe aurkitzen gara Magisteritzako ikasleak.

Lehenengo lauhilabeteaz zazpi talde daude egoera honetan eta bigarrenean, berriz, sei talde, euskal zein erdal eredu-takoak. *Egoera honen aurrean ezin dugu isilik egon!*

Pairatzen dugun egoera jasanezin honetan gure ikasketak arriskuan daude eta ezin izan dugu, batekin nahiz bestearekin hitz egin arren, ezer lortu. Gainera bere garaian, isil isilik, txintik atera gabe, ordaindu genituen matrikulak. Beraz, hau da ikasleok egiten dugun galdera: *zer egin dute gure diruarekin? Non dira ikasleon eskubideak?*

Egoera honen aurrean, bi aste dira da-goeneko ikasleok mobilizazioei ekin genienetik: prentsaurrekoak, geldialdiak, eskutitzak, errektoradutzara bisitak, en-karteladak...

Guzti hau ez da nahikoa izan, ordea; badirudi ez gaituztela entzun ere egin. Baina ikasleok ez dugu amore eman eta manifa erraldoi baten ondoren itxialdian sartu behar izan dugu.

Itxialdi honek astebete iraungo du printzipioz, eta beste zenbait ekimen ere burutuko dira.

Pello Salaburu «zapaburu jaun txit agurgarri horrek», bere poltsikoak ongi ako beteta dituen bitartean, bere sudur puntari begira egon nahi baldin badu, bejondeiola! Baina jakin beza ikasleok ez dugula amore emango eta behar den

guztia egingo dugula gure egoera erabat normalizatu artean.

Ikasturtea aurrera doa. *Noiz arte itxaron behar dugu?*

DONOSTIAKO IRAKASLE ESKOLAKO

IKASLEAK

DONOSTIA

Eudel eta euskara (edo euskara eza)

KALITATEAREN Sustapenerako Euskal Fundazioaren bitartez, iragan astean jardunaldi batzuk antolatu ziren Bilbon. Gizarteko adar ezberdinetan kalitate-prozesuak eta bere hobekuntza irakas-kuntzan, osasunean, industrian... jorratu ziren. Gu administrazio publikoari zuzen-dua zegoen bilerara joan ginen azaroaren 11n, bertan laguntzaile-antolatzaile Eudel (Euskal Udalerrien Elkarte) izanik.

Oiartzungo Udaletik bi zinegotzi joan ginen ordezkari moduan, interesgarria zelakoan han kontatuko zigutena. Edukiaz ez dugu hitz egingo, ordea. Formari egin nahi genioke aipamen berezia, *bertan erabilitako hizkuntzari* alegia.

Lotsagarria iruditzen baitzaigu horrelako erakunde publiko batek eta Euskal Herrian, Bilbon, euskaraz hitz xume bat bera ere ez egitea, goizeko 10:00etan hasi eta 14:00ak arte behintzat (orduan aldegin baikenuen, bilera bukatzeaz zegoen arren) luzatu zen jardunaldi batean.

Ezin da onartu gure ustez, *lau* interbentziotik *bat bera ere* ez izatea hizkuntza ofizialeko batean. Hau dena, hizkuntza ofizialak egun, bi izanik. Zer gertatuko ote litzateke lauzpabost balira! Ez dago horretarako eskubiderik. Hurrengo batean, formak gorde itzazue behintzat, euskaltzale izateko eskatzea gehiegi litzateke-eta zuentzat.

KONTXI ARRUBARRENA ETA ALAZNE GARMENDIA (OIARTZUNGO ZINEGOTZIAK)

H I R U K O

T X I K I A N

Soskrazia

Sosa akumulatzea eta arrakasta soziala ia sinonimoak diren garaiotan, merkatu legeen logika sartzen ari zaigu erraietaraino, praktikan, ideologia osoa eratzeraino. Eta adibideak ez zaizkigu falta, hedabideek etengabe zabaldu pertsonaia ospetsuen espektakulo informatikoari kasu eginez gero. Edozer da salerosgai. Jaioberriaren negarra, lagunaren minbizia, maitalearen txorta, bortxatutako haurra... Guztia da trafikagarri. Eta besteen gosea. Milaka jende ura eta ogi puska baten eskuratzeko elkar joka ikustea, ikuska zitekeen goi mailako errealitate espektakularra bilakatzen digute, irudi hartzaile eta banatzailearen arrakasta mediatikoa ziurtatuz. Preziosa da soilki arrakasta eta porrotaren arteko muga bakarra. Eta ziria sartzeari, abilezia deitzen zaio. Eta kapitalaren diktadurari, demokrazia. Okerrena da, mimetismo dorpez, soskrazia honek gehienak harrapaturik gauzkala, arazoak, etxera heldu bitartean, espektakuloarenak eta ez munduarenak bailiran.

JOXE MARI OSTOLAZA

ARGIA

JABEA: ZERUKO ARGIA, S.A.L.

LEHENDAKARIA: Joxe Mari Irazusta.

ZUZENDARIA: Pello Zubiria.

Kontseilu Editorialeko

Arduraduna: Baleren Bakaikoa.

Erredakzioa: Xabier Aranburu, Arantxa

Erasun, Mikel Jauregi, Juan Joxe

Petrikorena, Arritxu Zelaia.

Maketazioa: Berdaitz Goia.

Dokumentazioa: Ernesto Ibarluzea,

Ainhoa Gerra.

Administrazioa: Jasone Larrarte.

Harpidetzak: Olatz Korta, Elena Guinea, Maider Amenabar.

Hedapena: Ixabel Bereziartua.

Publizitatea: Iñigo Txintxurreta, Nekane Zubeldia, Itziar Diaz de Durana, Miren Larrarte.

HELBIDEAK

GIPUZKOA: Zirkuitu ibilbidea, 15.

pabiloia. 20160 Lasarte-Oria.

Tlf: 37 15 45. Faxa: 37 34 03/36 10 48.

BIZKAIA: Zabalburu 2, 1. ezkerre. 48003

Bilbo. Tlf: 410 34 34. Faxa: 410 37 15.

IPARRALDEA: Xalbardin baita. 64122

Urruña. Tlf: 59 47 60 00. Faxa: 59 47 60 01.

NAFARROA: Iratxeko Monastegia 70, 3.

ezkerre. 31011 Iruñea.

Tlf: 17 80 78. Faxa: 17 80 77.

LEGE GORDAILUA: NA 80-1963.

ISSN: 0213-909X.

BATZORDE PAREKIDEA: 72562 E.

INPRIMATEGIA: Antza, S.A.L.

INFORMATIKA: A.S.P., S.A.L.

Bahiketa eta truke-txanpona

HAMAR hilabete pasatxo, 300dik gora egun batek; egun batzuk baino ez besteak. Jose Antonio Ortega Lara bata; Cosme Delclaux Zubiria bestea. Batena zurrada, ETAREN esku dago; bestearena ez oraindik, erakunde armatuak hala baieztatzen duen artean ez bederen. Hala ere, alderdi politiko eta komunikabide gehienek ETARI egotzi diote segituan Delclauxen desagerketa. Itxura guztien arabera, bahiketa bat da —ez du honek Martin Prietok igarotako estuasunaren trazarik—, eta apustua kasik irabazia izango du ETARI egozten dioenak. Baina ez naiz joko, apustu horietan sartuko; nahiago dut ETAK dioenaren zain egon.


AZTERTZEKOTAN, alderdi eta agintari politiko zenbaiten erreakzioak aztertu behar nahitaez. Sendiak desagarketaren parte eman bezain pronto, hasi zitzaizkigun horietako batzuk —komunikabideak ere, nola ez, tartean; Espainiako astekariren batek jada iragarri du ETAREN sektore gogorrenak (?) agindu duela bahiketa— ETA gora eta ETA behera. Batzuek ezin itxaron; Prietorekin egindako hankasartzeak irakaspen handiegirik ez die ekarri zenbaiti.

Baina demagun ETAK bahitu duela Delclaux. Hala izanik ere, zein zerikusi du bahiketak euskal presoan gerturatzearekin eta hauen giza eskubideak errespetatzearekin? Presoen eskubideak erres-

petatu egin behar dira, ezinbestean, ETAK beste bi, bost edo hamar pertsona bahitzen baditu ere; Espainiako Gobernuak bere legeria bete egin behar du, eta beraz, presoak euren etxetik ahalik eta gertuen ekarri behar dituzte. Eta bestela, aitor dezatela behingoz legeak alferrikakoak direla, legearen

aurrean guztiok ez garela berdinak eta ahoa 'demokrazia' hitzak harro betetzen dutenean gezurretan ari direla. Ez dago beste bueltarik. Zentzu horretan, bahiketaren berri jakin ostean zenbait politikarik esandakoak lekuz kanpo daude; legezkoak diren eskaerak eta legez ziurtatu beharreko eskubideak truke-txanpon bilakatu dituzte. «Bahiketak euskal presoan gerturatzea oztopatzen du» bezalako esaldiak nola ulertu bestela?

Kontuak kontu, iragan igandean 15.000 lagun inguru bildu ziren Getxon Ortega Lararen eta Delclauxen askatasuna eskatzeko. Redondo Terreros Bizkaiko sozialisten idazkariak adierazi legez, «bertan



zen Ajuria Eneko Mahai osoa». Ikusiko dugu azkenotatik zenbat azaltzen diren hilaren 30erako Senideak-ek Bilbon deitu manifestaziora. Han ere beste 500dik gora pertsonaren giza eskubideen errespetua eskatuko dela ez dezatela ahantzi.

MARGARITA Robles Espainiako Barne Saileko Estatu idazkari ohiaren hitzak: «Gerra zikina existitu zela adierazten du horrek». Lasa eta Zabal: 'kasuko lekuko babestu bat orain aste pare bat bahitu eta torturatu ostean esan du hori. Akabo! Ikerketa saio 'gogor' horren ostean, «X» sonatuaren bila hastea falta zaio.

MIKEL JAUREGI

HAIZEARI OSTIKADAK EMANEZ

FUTBOLA eta telebista masaren opioa zirela uste genuen gaztetxotan batzuek, horietara apaltasunez hurbildu ginen gero, eta orain gure gaitzen diagnostikoa egiteko test bezala balio dutela ere ohartu gara. Euskal federazioa? Ezin da. Nola erabaki nor den euskalduna. Nazionalitate bikoitzik onartuko al da. Nafartarrak sartzen al dira. Zer egin Iparraldekoekin. Nola egin euskal liga bat. Diotenez, Europa eta mundu mailan konpetitzeko adina indar ba omen genuke, baina hori ere gure kalterako, españolei inbiri

biztuko baitzaie. Eta Espainiaren oniritzia behar derrigor. Jira eta buelta: independentzia ez omen du nahi gehien-goak, baina alde gaudenok ezin erakutsi independentziarekin zer irabaziko genukeen. Telebista aipatuz gero, antzeko gauzak esan edo pentsa ditzakete nafarrek. ETB hemen legez ikusi ahal izateko hola bagabiltza.. egoskor batzuek legez kanpoko antolatu behar. Militantzia garaia heriotza aldarrikatzen dutenak ikusi nahi nituen larunbatean Iruñean Nagore-Arretxe partiduari begira.

PELLO ZUBIRIA



Salaketa bai, baina guztiarena

ARAZO jakin baten aurrean bi arlo edo maila hartu behar dira kontuan. Alde batetik, arazo horrekiko jarrera politikoa edo bere tratamendua, eta bestetik, jarritako helburuak lortzeko beharrezko ekintzak.

Tratamenduari dagokionez, EAk beti esan izan du eta esaten jarraitzen du espetxe-politikak egungo legeria errespetatu behar duela, eta zentzu horretan euskal presoen egoerarekiko gure jarrera argi dago: gertuen dauzkagun kartzeletara gerturatu behar dituzte lehen bait lehen, beti ere kartzelok es-

kaintzen dituzten baldintza teknikoak aztertu ostean.

Maila taktikoei dagokienez, hots, helburu hori lortzeko erabili beharreko baliabideei dagokienez, uste dugu erakundeetako ekinbideak izan behar duela ardatz nagusia. Eusko Legebiltzarren posizioa finkatuko duen plangintza zehatz baten aurkezpena prestatzen dihardugu, eta posizio horri babes politikoa emango dion erakunde mailako ekintza ororekin aurrera jarraituko dugu, bere lorpena ahalbidetu asmoz.

Herritarren mobilizazioan oinarritutako bestelako ekintzak ere planteatu daitezke, giza-eskubideak hausten diren egoerak salatzeko garaian hain zuzen. Hori bai, hauek beharrezko eragin eta sinesgarritasuna izan dezaten, ezinbestekoa litzateke mobilizazio ho-

rietan egun ENAMen munduak gauzatzeko duen dinamikarekin harremana eta zerikusia duten —gauza eta gertaera ezberdinak izan arren— giza-eskubideen hausturak salatzea. Izan ere, preso gehienak ETako kideak dira, zeinak egun bi pertsona dituen bahiturik.

Beraz, egoera honetan ezin da planteatu manifestazio bat zeinetan pertsona batzuen eskubideen urraketa salatu eta horiek konpontzeko eskatuko den, gerturatu nahi diren preso horietatik gehienak kide diren erakundeak urrutako beste eskubide batzuk salatzeko eskaera bera egiten ez bada. Are gutxiago, euskal gizartea bera haserretzen duen eta beronen eskubide indibidualak eta kolektiboak urratzen dituen indarkeriazko ekimenaren amaiera ekar lezakeen aldetaren arrastorik inondik somatzen ez denean.


Margarita Roblesek bere iritzia eman du Enrique Rodriguez Galindo Guardia Zibileko jeneralari buruz: «Nik ez diot ez meriturik jartzen ez kentzen, baina ezin da abaztu Guardia Zibilean 70.000 pertsona daudela eta horietako askok borroka antiterrorista biziarekin ordaindu dutela. Ez dut arrazorik ikusten Galindo mito bihurtzeko, ezta ere beste guardia zibil batzuk izan zirena baino gehiago izateko».

Bestalde, **Francisco Ortega Larak**, ETak bahitutako espetxe-funtzionarioaren anaiak, zera adierazi du Jaime Mayor Oreja Espainiako Barne sailburuaren bisita jaso ostean: «Eskertzekoak dira borrelako bisitak, baina bizi dugun egoera larriaren aurrean hori baino zerbait gehiago egiten saiatu behar litzateke. Ez dakit zer, baina zerbait gehiago». Aldiz, **Jose Manuel Martiarena** Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburordearen aburuz, «Cosme Delclauxen babaketak diru-bilketa irakurketa du soilik. Erakunderako dirua soilik bilatzen dute, asko behar baitu. Dirua lortzeko

beste baliabidearekin, estortsio-eskultitzekin, jendeari beldurra sartzea baino ez dute helburu, azken hiru urteetan kobratzen ere ez baitira saiatu». Gaia berari heldu dio **Jaime Mayor Oreja** Espainiako Barne ministroak ere: «Enpresari batek ETaren txantaiaren aurrean amore ematen

duenean, lepo inguruan duen soka gero eta gehiago estutzen da».


Beste gai bati helduz, **Francois Bayrou** Kontseilu Nagusiko lehendakariak Ipar Euskal Herriaz eta Biarritz jardun du: «Bi herri, departamendu bat, txapela baten azpian, hori da nire ikusmoldea».



Victor Manuel Arbeloa, PSNren gestoraren lehendakaria

«Nafarroa ondoen defenditzen duena UPN dela esateak ez du inor asaldatu behar»

Sozialistekin lanean 1977an hasia, urteotan kargu guztiak ezagutu ditu. Foru Parlamentuan lehendakari, Europako Parlamentuko kide, senadore... Mañerun sortutako gizon hau da gaur PSNko nagusia.



Berriki Jose Luis Uriz alderdikideak bere burua PSNko presidente izateko hautagai aurkeztu zuen. Hala izanik ere, ez zitzaion utzi egoitza nagusia. Zergatik? Ez al da esanguratsua?

Bere hautagaitza pribatua delako. Ez duelako deus ikustekorik gestorearen komisiok duen plangintzarekin. Kongresuaren epeak ez daude finkaturik, eta beraz, ez da normala egin duena egin izana. Bere kandidatura

egoitza nagusian aurkeztu izan balu, jende askok zuzendaritzaren eskua ikusiko zukeen atzean.

Ez da kasualitatea, beraz, egoitza ez uzteko erabaki horretan, Jose Luis Urizek egungo zuzendaritzarekin bat ez egitea?

Jose Luis Uriz bere buruaren ordezkari denez, eta alderdi-

ko sektorerik ere ordezkatzaren ez duenez, gestorearen egoitza ez uztearen erabakia hartu genuen.

Oso denbora gutxian, PSN hiruko gobernu aitzindariaren partaide izatetik, UPNren oraingo esperantza izatera pasa dela dirudi.

Aitzindariaren adjetibo hori guztiok paratzen diogu gure

buruari. Bestalde, oposizio-ko talderik handiena gara, eta Nafarroako alternatiba sozialdemokrata izaten jarraitu nahi dugu. Horretarako, adostasunak ere bilatu egin behar dira.

Horrekin zer esan nahi duzu, aipatzen den UPNren eta PSNren arteko akordio ezkutu hori egon badagoela?


«PSNren eta UPNren arteko hitzarmenik ez dago; arrazoirik ez da izan, ezta astirik ere». (A.: J. L.)

Anitz alditan esan izan dut gure herri hau hitzarmenen herria dela. Politikagintza-ren historian beti erdietsi dira adostasun-itunak. Europako leku gehienetan bi alternatiba nagusiak, sozialdemokrata eta demokrata-kristaua, ari dira txandakatzeko gobernuetan, itunen bitartez. Ez al dugu, bada, beti Europaz hitz egiten? Zergatik harritzen gara orduan bi alderdi ados jartzen baldin badira? Nafarroan, gainera, 1984tik aitzina hitzarmenak izan dira beti: aurrekontuetarako, legegintzaldirako... Orain legegintzaldi-hitzarmen bat dago jokoan, ez soilik aurrekontuena. Bitxia da, baina batzuek gauzatzen dituztenean itunak aitzindariak dira, berritzaileak; baina beste batzuek egiten baditugu, gaiztoak dira.

Hitzarmenik bada orduan, ala ez?

Ez da existitzen. Hitzarmena gauzatzeko arrazoirik ez da izan, ezta astirik ere. Baina emanen balitz ere, badela esan, nondik norakoak azaldu eta, beste tokietan bezalaxe, ez litzateke deus gertatu behar. Itun horretan zer sartuko litzateke? Ikusi egin zer esaten den lan-politikaz, zer politika ekonomiko eta sozialaz, zer Nafarroaren bilakaeraz...

Itxuraz, lehenengo gestorako lehendakari izandako Perez Calvorenaren eztabaidarako barne agiria filtratu zen prentsarara. Zera zioen: UPN dela Nafarroa ondoen ordezkatzeko duena, eta PSNk, EA Erekiko barre-



«Politika egiteko moduarengatik da Nafarroa beste leku batzuk baino ustelagoa». (A.: Joxe Lacalle).

**manetan esaterako, bere betiko planteamendueta-
ra itzuli behar zuela. UPNren esatea pertsona bat alderditik botatzeko modukoa al da?**

Barne agiri bat zen, lanerako paperak, esku askotatik igarotakoak. UPNk, egun, Nafarroa hobeto defenditzen duela zioen. Horrek ez du inor asalatu behar, hori EAJk Estatutua inork baino hobeto defenditzen duela esatea bezala baita.

Gestoraren atzerabiderik gabeko dimisioaren ondotik, eta Madrildik

egindako ahaleginek birsortuta, bebin-bebineko egoera bizi duzue. Zergatik ez azkartu zuen kongresua, kuadroak berritu eta alderdia indarberritzeko?

Urralbururen aferak boto galera izugarria ekarri zigun. Krisiari aurre egin behar genionean, hirukoaren ama-birjina begien aitzinean azal-

«Terrorismoa egiten jarraitu nahi duten presoak hurbiltzea ez dut uste zilegi denik, nahiz eta printzipioan ados nagoen»


du zitzaigun. Horrek arazoak atzundu zituen, momentuz bederen. Otanorena ezagutu zenean, berriro azaleratu zen krisia. Madrilgo zuzendaritzak gestora eratzearabaki zuen orduan. Gestorak hirukoa uztea deliberratu zuen, nahiz jada akitura egon, Javier Otanok akabatu baitzuen.

Etxea barnetik konpontzea zegokigun. Horretan ari gara, eta tentuz aritu behar. Gu izendatu egin gintuzten, eta eraberritze horretan ahalegindu ginen. Dimisioaren ondotik, gestorak bere horretan jarraitzea zela egokiena erabaki zen, eta konfiantza-epea luzatu egin ziguten; ez soilik abendu hasierara arte, baizik eta 97ko ekainera arte. Kongresu batek heltze-prozesu bat eskatzen du, ezin da nolahi egin, eta kontsentsu orokorra beharrezkoa da. Kongresua prestatzeko lan-batzordea martxan da, baina uneotan ez da gehien kezkatzen gaituen gaia.

Zuek instituzionalizazioaz, kontsentsuaz ere anitz hitz egiten duzue. Kontsentsu hori eman den lurraldean ustelkeria kasu pila ezagutu dira. Zergatik hainbeste, eta zergatik Nafarroan konzentratuta?

Ez dakit, bada. Beste leku batzuetan ere aferak badira, makina txanpon-jaleena kasu. Hemen zorte txarra izan dugu. Beste toki batzuk baino ustelagoa izan da Nafarroa. Zergatik? Politika egiteko modu batek lagundu duelako: boterearen ondarezko zentzuarekin jokatu dute, gaztetasun handiegia zegoen, botereen pilaketa, lidergoa idolatratu da...

Hori gertatu al zen Urralbururekin? Zergatik ez



«Lankidetzarako Batzordearen gaian, alderdi nagusiak gaitzestutako akordioa onartzea izan da hutsegitea». (A.: J. L.).

zitzeaion bere garaian aurre egin?

Galdera garrantzitsua da hori. Bere aurka egiterakoan, jeloskorberia zela zioa ulertzen ohi zen. Esperientzia ezak kalte egin zigun.

Fernandez Maruganek zera zioen: «Dirua, maitasuna bezala, somatu egiten da». Kontuaz gain, ikertu bada ere, ez diote besterik aurkitu Otanori. Horrek diru hori alderdi sozialistarendako izan dela esan nabi al du?

Ez dakigu. Poztuko nintzateke Otanok edo alderdiko

beste edozein kidek dirua bere sakelera bideratu izan ez balu. Salaketa guztioi zuzendu digute, baina egia esan, ez dakigu. Nik ez bederen. Hauteskundeetan, Otanoren gertuko kolaboratzaile batzuek zera esan zioten bati baino gehiagori: «Lasai! Zortzi bilabete barru etxean da». Bazekiten zerbait? Tuterara Otanorekin mintzatzera joan ginenean, ez zigen deus argitu. Kontuan bere izena jartzeko esan ziotenean, alderdirako zela esan zuen, baina ez zuen azaldu alderdia zer

« Itoizko urtegia egitearekin ados nago. Eta espainola ere banaizenez, horko urak Nafarroatik ateratzea ongi iruditzen zait »

den: Nafarroakoa, Iruñekoa, Segurtasun Soziala... Politikoki denok zigortu gaituzte. **Gertatutako guztiak gertatu ondoren, zein jarraitza du orain PSNk Nafarroaren eta EAEn arteko Lankidetzarako Esparru Iraunkorrarekiko? Kanpotik ikusita, bederen, anbigua da.**

Ez hain anbigua. Konstituzioan aurrikusia dago, gure programan ere bai... Baina kontsentsua beharrezkoa da. Hutsegiterik handiena horixe izan da, hain zuzen: alderdi nagusiak gaitzesten duen akordio bat onartzea. Ulergarria da, dena den, Parlamentuan aurkezten delarik, zentzuzkoa bada, horrelako proiektu bat onartzea, finen ados baikara.

Eta zer diozu Nafarroa Beherearekiko harremanez? Izan ere, idatzia duzu liburu bat «La Navarra de Ultrapuertos» izenekoa, eta biziki maite duzu, ezta?

Harremanetan sinesten dut. Legebiltzarreko lehendakaria nintzelarik, Donibane Garazira, lehendabizikoz, bisita ofizialean joan ginen. Gainera, Euskadi-Akitania-Nafarroa protokoloak zer-bait eman dezakeela deritzot. Lehenik eta behin, elkar ezagutu behar dugu, eta nafarrak direla ikusi.

Europa-zale amorratuzara. Ez duzu uste Europa jendeari urrunegi gelditzen zaiola?

Estatuen Europa akats bat da. Egitatezko Europa herri-tarrok osatzen duguna da, udalek, herriek, nazioek, erregioek eta estatuek osatzen duguna. Erabateko Europa aurkitzen jakin behar dugu. Hizkuntzen eta kulturen elkar-komunika-

zioa lortu behar da; herri eta hizkuntza ezberdinen partaide izatea erdietsi beharko genuke. Eta egia da jendearendako Europa oso urrun dagoela. Ez dago europar kontzientziarik.

Euskara gero eta errealtate zabalagoa da Nafarroan. Hala ere, PSNko inor ez da euskaraz mintzatzeko gauza.

Ni ikasten ari naiz, klasikoak irakurtzen ditut, Axular ohe ondoko mahaitxoan dut beti. Anitz pozten nau euskara zabaltzeak. Euskara eta euskalduna den oro nazionalismoarekin eta independentismoarekin lotu dute, eta horrek min egin dio euskarari. Euskara armatzat hartu behar dela esatea latza da.

Itoizko urtegia, zinez, barbarrezkoa al da? Susmoba bada gainera, ur hori Nafarroatik at eramana izanen dela.

Lan horrekin ados nago. Dirua ezin da alferrik bota, egia da, baina ez dut uste hori egiten ari direnik. Bestalde, ur hori Nafarroatik ateratzea ere, espainola ere bainaenez, ongi iruditzen zait. Besteek beharra badute, zergatik ez eman?

Otanok Tuterako institutuan klaseak ematen dituen bitartean, intsumisoak espetxean daude.

T A N T O A

Berarekin zorretan nago

VICTOR Manuel 1967ko martxoaren 13an ezagutu nuen. Egun horretan, astelehen Santua, Ordenu Publikoaren Auzitegi frankistak epaitu egin zuen Salesasen. Defenditzaile Gregorio Peces Barba zuen. Hasieran libre utzi zuten arren, gero sei hilabeteko kartzela-zigorra bete zuen. Delitua: «Signo-n (Accion Catolicaren aldzakaria) ondoko esaldia idatzi izana: «*Gernika bonbardatu zutenen aurka gaude, Badajozeko zezen plazan jendea tiroz hil zutenen aurka edota Nafarroako errepede-baztarretan jende hil zutenen aurka.*»

Hurrengo urteetan, eta oraindik hala jarraitzen dut, gauza askotan ez nintzen bat etorri Victor Manuelekin. «Borroka amatua» deitzen genion hari egiten zion kritika gogoratzen dut, eta oraindik mutikoak ginenok erokeriak egin ez genitzan egiten zituen ahaleginak. 1973ko abenduaren 20an

askok edan genuen txanpainari egin zizkion gaitzespen lasai eta didaktikoak gogoan ditut, eta baita «hura» ez zela bidea azaltzeko egiten zituen ahaleginak ere. Zorretan nago berarekin.

Nafarroan PSOE sortzen lagundu zuen, baina siglen gaitetik pertsonengan sinesten duelako 77an esperientzia txarra bizitu zuen: gizarteak alderdiak eskatzen zituenean, «entzutsu» bilduma batekin aurkeztu zen hauteskundeetara. FNI deseginda, «bere» PSOEko kameta eskatu eta 77ko abenduaren 9an jaso zuen.

Victor Manuel euskaltzale handia da. Eta Foru Legebiltzarreko lehendakari zenean, sekretuan, Sole Erbitiren eskutik euskarazko klaseak hartzen zituen. Ekitaldi publiko orotan agurra beti euskaraz egiten du.

Bete dituen karguak ezagunak dira eta baita praktika batzuekiko bere urruntasuna ere: esaterako, kritika latzak GALi,



**Joaquin Pascal
PSNko zinegotzia
Iruñeko Udaletxean**

baina 84an eta 85ean! Baina ez dira hain ezagunak txoriburuzen baitengandik jasan behar izan dituen idatzi iraingarriak. Arrazoiak: jarrera «ofizialen» aurrean azaldu izan dituen independentzia joerak.

PSNren Gestoraren ekinbiderekin desadostasuna maiz azaldu izan dut. Baina nahiago izan nire lagun Victor Manuelen moral eta adimen-neurria duen pertsona batekin bat ez etorri, beste pertsonaiatxo batzuekin bat ez etorri baino.

Intsumisioen aurkako kartzela-zigorrarekin ez nator bat. Hori bai, intsumiso badira, intsumiso izan daitezela ETArekiko eta bere inguruarekiko ere.

ETA aipatu duzularik, zer deritsozu berarekin negoziatzeko aukerari?

ETArekin bere amaieraz hitz egin daiteke soil-soilik.


Presoen hurbilketa alde egotea ez ote da onargarria?

Hasteko, ados jarri beharra dago. Batzuek hurbilketa dioten bitartean, besteak bateratzeaz ari dira. Oro har

aztertuta, presoak etxetik gertuago egotearen alde nago. Hala ere, terrorismoa egiten jarraitu nahi duten presoak hurbiltzea ez dut uste zilegi denik, nahiz eta printzipioan ados nagoen.

XABIER CARRILLO

BAQUE KAFEAK ESKEINITAKO ARGIBIDE KAFEZALEAK



Afrika kontinentean Robusta Kafea hazten da bereziki, gorputz sendoa du eta zapore gogor eta mikatza. GINEA, SIERRA LEONA, BOLIKOSTA, GANA, TOGO, BENIN, NIGERIA, GABON, KONGO eta ERTAFRIKAR ERREPUBLIKAN hazten da. Kafe hau, neurri txikian erabiliz gero, osagarri bikaina gerta daiteke Kafe SUABEen nahasketa on batean. BAQUE KAFEA suabe... suabea

Poz handia ematen digu kafeaz dakigun guztia zure esku jartzeak.



Cosme Delclaux enpresariaren desagerketa ETArri egotzi diote denek

Neguriren aurkako erasoak

ETak enpresarien aurka egin du askotan. Hala eta guztiz ere, aginte ekonomikoa eta politikariekiko lotura uztartu dituen Neguriko kasta jo-puntu berezia izan du talde armatuak. ETA eta Neguri: historia zahar eta luze bat...



Delclauxen autoa azaldu ondoren, bahiketaren hipotesia nagusitu da. (Argazkia: Jose Sampedro).

«**HERRIA.** Gizarte nazionalan zapalduarik dagoen taldea da. Egungo egoeran, Euskal Herri osoa da, bi estatu zapaltzaileekiko: Estatu espainiarra eta Estatu frantziarra. Estatu hauek Espainia eta Frantziako oligarkien alde jokatzeko dute; oligarkia horien barne euskal jatorrizko oligarkia dago, objektiboki atzerritarra eta zapaltzailea».

ETAren V. batzarrak «herri» hitzari buruz eman zuten azalpenak ez zuten duda iz-

pirik ere uzten: euskal oligarkia etsaia zen. Talde armatuak euskal oligarken aurka egin behar zuela iritzi zion, eta Neguriko kasta, XIX. mendean siderurgia eta meagintzari esker aberastutako familiak, oligarkia horren adierazle nagusia, jotea erabaki zuten. Oharpena egina zegoen, ekintzak etorri ziren ondoren.

1968an Ibarra familiak,

BBV banketxearekin estu loturiko abizenak, babesa eskatu behar izan zion Poliziari. ETak «El Correo Español»-ek frankismoarekiko zuen atxikimendua salatu eta egunkari honen aurkako kanpaina hasi zuen. Ibarretarrak «El Correo Español»-eko jabeak ziren eta, egunkariaren egoitzaren eta furgoneta baten kontra izandako atentatuaren on-

doren, Poliziara jo zuten babes bila. Bederatzi urte beranduago bide bera egin beharrean aurkitu ziren beste arrazoi larriago batengatik.

1973.eko martxoan ETak su eman zion Getxoko Itsas Klubari, Neguriko enpresari eta frankista ezagunen bilgune.

Eraso nagusia, berriz, 1977.eko maiatzaren 20an etorri zen: Javier Ibarra Ber-

Neguri: Espainiako agintearen bermea

BIZKAIKO ekonomiak bere urrezko urteak eza-gutu zituen XIX. mendearen bigarren erdian; honela bada, siderurgia eta meagintzan hasitako enpresariak benetako monopolioak sortu, eta haietako batzuek bankaren munduan ere lehen urratsak eman zituzten (Banco de Bilbao Espainiako Estatuko lehendabiziko banketxe pribatua izan zen). Garai hauetan hasi zen Bizkaiko oligarkia eta aginte politikoaren arteko lotura, Getxoko Neguri auzoa bizileku aukeratu zuen goi burgesiak urte luzez ondo baino hobeto zaindu duena.

Ibarra, Gandarias, Karrera, Txabarri, Alzola... XIX. mendeko enpresari bizkaitar gehienak truke-librearen aldekoak ziren,

eta, beraz, liberalei ematen zieten babesa. Harik eta 1890ean ekonomia atzerak hasi arte. Orduan, Bizkaiko Ekoizleen Liga eratu zuten, kontserbadorea. Euren leloa: *«Espainia espainiarrentzat»*. Liberalak ala kontserbadoreak, Neguriko oligarkiak Berrezarkuntzaren sistematan bete-betean hartu zuen parte, Bizkaia Senatuan zituen ordezkariak eta Diputazioako kargu nagusiak eskuratzen zituela.

XX. mendean Neguriko familietatik beste alderdi politiko bat sortu zen: Batasun Liberala. Alderdi honek esaten zuenez, Euskal Herria beti Gaztelari lotuta bizi izan zen, eta foruak baino, onuragarriagoa zen kontzertu ekonomikoa.

Espainiako Gerra iritsita,

Bizkaiko goi patronalak Errepublikaren aurka altxatuaren alde egin zuten: Javier Ibarra Bergek, ETApM-ak gero bahitu eta hil zuenak, esaterako, bollandres borrokatu zuen Francoren indarrekin. Euskal Herri osoa matxinatuaren esku geratu ondoren, goi burgesiak hitzarmen bat lortu zuen haiekin, Francoren agintepean zegoen zonaldera gerra-materiala bidaltzeko. Alemaniara ere burdin mineral kopuru handiak esportatu zituzten.

Trantsizio garaian sistema berriaren alde jokatu zuen gehienbat Neguriko

kastak, bere ezaugarri nagusietakoak izan den espainiartasuna alde batera utzi gabe: Pedro Zubiria, Cosme Delclauxen aitona, APko senadorea izan zen.

Era berean, PSOE gobernura heldu zenean alderdi honen aukera aintzat hartu zuten Neguriko enpresariak: alde batetik, sozialistak espainiartasunaren ikurra izan dira Euskal Herrian; bestetik, PSOEek egindako politika ekonomikoak euren mozkinak handitzen lagundu ziren. Aipagarria da BBV, Neguriko banketxea, «PSOEren banketxea» deitu dutela askok.

geren bahiketa. Javier Ibarra Berge, Bilboko alkate ohi eta Bizkaiko Diputazioako presidente izandakoa, Babcock Wilcox eta «El Correo Español»eko presidentea eta Banco de Vizcaya banketxearen kontseilaria zen, beste 50 bat enpresatan ere finantza interesak zituela. Bahitzaileek, ETApM-ko «bereziak» taldekoek, Neguriko Los Chupos bere etxaldean atzeman zuten Javier Ibarra, eta, libre uztearen truke, mila milioi pezetako (40 milioi libera) erreskatea eskatu zuten, ordainketa egiteko epea ekainaren 18an amaitzen zelarik.


Ibarraren hilketa

BAHIKETA honek ez zuen luze iraun. Ekainaren 22an,

erreskatea ordaintzeko epea amaiturik, Javier Ibarraren gorpua Barazarreko gainean azaldu zen; batzuek Ibarretarren arteko adostasun ezari egotzi zioten bahitzaileekin akordiorik ez lortu izana, beste batzuen arabera, berriz, talde armatuaren barneko liskarrek eragin zuten enpresariaren hilketa.

Ekintza honek bazterak astindu zituen: alderdi politiko gehienek eta ETApM-ak berak gogor gaitzetsi zuten Ibarraren hilketa. ETAM bahitzaileen jarreraren alde azaldu zen: *«Ibarratarrek*

■ Lipperheideren bahiketa zela eta, Neguritik 50 bat familiak alde egin zituzten argitaratu zuen zenbait komunikabidek



Javier Ibarraren gorpua Barazarreko gainean agertu zen. ETApM-ak ekintza hau gaitzetsi zuen. ETAM-ak, berriz, ez.

eta hauek bezalako beste batzuk gabe, ez litzateke ez Guardia Zibil, ez Polizia Armatu, ezta Indar Armaturik ere izango»

Ekintza honen ondoren eta taldearen batasuna berreskuratuta, ETAM enpresariari zuzendutako iraultza zerga kanpaina zabal bati ekin zion. Honekin lotuta, 1981 eta 82. urteetan 50 bat leherkarik Banco de Vizcayako bulegoetan eztanda egin zuten; horietako batek hiru lagun hil zituen banke-



Jose Lipperheide 76 urteko enpresariak hilabetea pasa zuen ETAREN esku; bere familiak ordaindutakoaz ez dago adostasunik: 150 milioi pezeta aipatzen dute batzuek, 500 beste batzuek.

txe honek Bilbon zuen egoitzan. Angel Galindez banketxeko presidentek jarrera tinkoa azaldu zuen: «Terroristei ordaindutako diruak terrorismo gehiago eragiten du».

82. urteak Neguriko beste enpresari baten bahiketa ere ekarri zigun: Jose Antonio Lipperheiderena.

Lipperheide, 76 urtekoa eta Cosme Delclauxen neska-lagunaren aitona zena, metalurgia eta meagintza enpresa talde zabal baten burua zen. Negurik, ohi izan duen bezala, ez zuen bahiketa honi buruzko adierazpenik egin. Beste enpresari batzuek, ordea, hitz gogorak izan zituzten: Luis Olarrak, garai horietan Bizkaiko Enpresarien Konfederakun-

deko presidentek, EAJK ETAREN aurrean zuen jarrera kritikatu eta talde armatu honi ordainketarik ez egiteko dei egin zuen.

Lipperheidek hilabetea pasa zuen ETAREN esku: bere familiak erreskatea ordaindu, eta libre geratu zen otsailaren 2an. ETAK jasotako dirutzari buruz zalantzak daude; Espainiako Barne Ministerioak 150 milioi pezeta aipatu zituen, baina 500 milioiko datua eman zuenik ere izan zen. Neguritik berria gezurtatu arren, zenbait komunikabidek argitara eman zuenez, bahiketa hau zela eta, 50 bat familiak Getxoko auzo honetatik alde egin zuten.

Pedro Guzmanen bahiketak ez zuen Lipperheide-

ren kasuarekin inolako antzik izan. Pedro Guzman, Athleticeko zuzendaritzakoa eta Bizkaiko enpresari ezagunez osaturiko familia bateko kidea, 1985. abenduaren 30ean bahitu zuen ETAK; 11 egun beranduago, Polizia Nazionalaren GEOS talde berezia Basauriko areto batean sartu, enpresari getxotarra askatu, eta ETAREN komandoko hiru kideak atxilotu zituen.

Askatu eta ordaindu

EZKER Abertzaleko taldeek salatu zuten, hainbat polizia nazional Ekuadorrera joan eta bertan bizi ziren bi euskal errefuxiaturik egindako torturen bidez, enpresaria non zegoen jakitea lortu zuten. Poliziak askatu arren, Guzmanek dirua eman zion ETARI: 200 milioi pezeta, Espainiako Barne Ministerioak ezagutzera eman zuenez. Pedro Guzman bahiturik

zegoen bitartean, Jose Miguel de la Rica Euskal Enpresarien Guneko buruak esan zuen ETAREN ekimenak ez zuela ekarriko iraultza zergaren ordainketak handitzea: «Enpresariok iraultza zergari kasurik ez egiten hasi garelako».

Neguriko enpresarien aurka ETAK egin zuen laugarren bahiketa Andres Gutierrez metalurgia enpresa bateko jabearena izan zen, 1987.eko maiatzaren 19an. Gutierrez familiak 150 milioi pezeta inguru ordaindu zion ETARI, eta enpresaria libre utzi zuten Gordexolan, bahiturik 46 egun pasa ondoren.

ETAK enpresariengana jo ohi du iraultza zergaren eske. Atentatuak ere egin ditu haien aurka. Hala ere, talde armatuak aginte ekonomikoarekin duen jarrerak badu beste kutsu bat: ETAK etsai du oligarkia, langileak zapaltzeaz ezezik, Euskal Herriak bizi duen gatazkaren erantzule bezala salatzen baitu hemengo goi burgesia. Testuinguru honetan kokatu beharko litzateke Cosme Delclauxen desagerketa, iturri guztiek iritzi duten bezala, ETAK egin dela argituko balitz.

Cosme Delclaux enpresa eta finantza munduan oso ezaguna den familia bateko kidea da. Delclauxtarrek 15 enpresa dituzte jabe goan, batzuk osorik, eta besteak, beste enpresari batzuekin batera. Euren enpresek gutxi gora-behera 97 mila milioi pezetako dirutza saltzen dute urtean. Horrez gain, BBVrekin ere lotura du Delclaux familiak. Cosme Delclaux azaroaren 11n desagertu zen.


ANDER USABIAGA

ETAK oligarkia du etsai; hori kontuan hartu beharko litzateke Cosme Delclaux Neguriko enpresariaren desagertetan

Alain Krivine, Ligue Communiste Revolutionnaire alderdiko buruzagia

«Mugimendu sozial berria sortu dute Frantzian iazko abenduko grebek»

Ilea zuritua eta 55 urte ditu egun Alain Krivinek, 1968ko Maiatzean Frantziako gazteria matxinatuaren buru ezaguna izan zenak; hala eta guztiz, tinko segitzen du borrokan buruzagi troskistak.



Ezkerrak irabaziko dituela datorren urteko hauteskundeak uste du Alain Krivinek. (Arg. J. Arriola).

Analistek hala diote: Frantziako gizartean egonezina geroz eta nabarmenagoa da. Iazko azaro-abenduko grebaldiek jarraipenik izango dutela uste dute askok.

Miterrandismoaren aroa amaitua dela erakusten digute iazko grebek, iraulketa handia gauzatu dela gizartean. Aurreko aroan mugimendu

soziala boterean zegoen ezkerrek berak eduki du kateatuta. Grebek erresistentzia eta benetako borrokarako grina berria erakutsi ziguten, onartezina dena ez onartzeko asmoa. Eta mugimendu sozial berri baten sorrera ere, zentzurik

zabalenean. Funtzio publikoan langileria gaztea, bizia eta borrokalaria ageri da, jende gaztea oro har, beren gurasoek baino kultur maila handiagoa dutenak, krisiaren eraginez pozik direnak tren konpainiako txartelzultatzaile kontraturik lor-


tzen badute, nahiz eta ikasketa unibertsitarioak izan.

Belaunaldi berriak existentzia eta erradikaltasun politiko handiagoak ditu, nahiz eta iazko grebalari gehienei ez iruditu beren mugimendua politikoa zenik. Eta abendukoak erakutsi zi-

gun, bestalde, badela deso-
rekarik sindikatu tradizio-
nalen eta mugimendu be-
rrien artean. Abar sindikal
berriak sortu zituen mugimenduak: SUD Posta Zerbitzuan, FSU irakaskuntzan edo CRC osasungintzan; erakunde berriak ere: *Droits au Logement* edo Aterbe Eskubidea, AC edo Langabeziaren Aurkakoa. Zabaltzen ari da mugimendua, baina ez du islarik politikan.

Testuinguru politiko eta elektorala ez duela mugimenduak apenas aldatu, alegia?

Alderdi tradizionalak ez dute ezer ikasi mugimendu honetatik, gizartetik geroz eta urrutiago daude; izoztuak edo, PCF adibidez, glaziarren abiaduran mugituz. Iazko grebek horixe erakutsi digute: ihesbide politikoa behar zuela mugimenduak eta ez duela aurkitu. Hala eta guztiz, bizirik irauten du iazko izpiritu hark eta aurten bertan ikusi ahal izan ditugu funtzionarioen grebak urrian, Saint-Bernard elizako borroka eta beste zenbait, inoiz baino oihartzun handiagoa izan dutenak. Hori guztia, gainera, Frantziako ezkerre bere garairik hoberenean ez dabilen honetan. «Eskuinari nola aurre egin?», «Nola eratu ezkerreko alternatibarik, baina ez sozialistekin izan dugun bezalakoa?», horiek dira ezkerreko jendearen galderak. **Ezker-eskuin dialektikarekin zerikusirik ez duten sektoreak dira, baina, mugitzen ari direnak.** Bai eta ez. Jendeak ez du erabat baztertu ezker-eskuin dialektika hori. Nire ustez, liberalismoaren aurkako mugimenduak dira oro har. Funtzionarioen asanbleatan gizarte ereduaz, zerbitzu



«Saint-Bernard elizako borroka urrundu ditu PCF eta CGT jarrera arrazista eta chauvinistetatik». (Argazia: Julien Arriola).

publikoaz hitzegiten zen. Zerbitzu publikoaren finantziario, demokratizazio eta kontrolaz. Hori politika egitea da, grekoaren jatorrizko adieran bederen. Iazkoa ez zen mugimendu sindikal klasikoa izan.

Funtzionarioak langileak bailiran mintzo zara, baina Europako ezkerrek zalantzan jartzen du kontzeptu hori.

Gaur egungo langileriaren inguruko analisi teorikoari ekin beharko genioke, langabeei buruzkoari ere... Langileriak, hitzaren bene-

tako adieran behintzat, hedatzeko joera du, ez murriztekoa. Hitzaren zentzu mugatzailea ez badugu kontuan hartzen behinik behin. Hots, produkzioan zuzenean ari direnak ezezik langiletzat jo behar ditugu irabaziak eta plusbalia lortzeko premiazkoak diren gainerakoak: teknikariak, zerbitzuetakoak, ordenadoreetakoak, zientzilaria, intelektualak... Ez du adierazten horrek langile kontzientzia dutenik derrigor; baina, berez, objetiboki, langileak dira. Enpresa pribatuan, be-

«Jendeak ez du erabat baztertu ezker-eskuin dialektika, liberalismoaren aurkako mugimenduak dira oraingoak»

riz, milaka arrazoi dituzte alor horretako langileek grebara ez jotzeko. Jende gutxi dago sindikatuetan eta izugarria da enpleguen behin-behinekotasuna.

Zalaparta bandia eragin du aurtengo udan Saint-Bernard elizako afrikarren kanporatzeak. Baina horien aldeko manifestazioetan 20.000 lagun besterik ez ziren bildu.

Orain dela urte batzuk, aldiz, katurik ere ez zen biltzen. Orduko manifestazioekin alderatuz gero, jendetza handiak izan dira oraingoak; eta gertakariaren larritasuna kontuan hartuz gero, txikiegiak. Izan ere, giro arrazista ez da ageri soilik Le Peni botoa ematen diotenen artean; ezkerrean ere arrazista asko dago. Horrek eragotzen du *sans papiers*enganako (dokumenturik gabeko inmigranteak) elkartasuna. Eta lortu den elkartasun epel hori ere botereak egin dituen astakeriengatik izan da batik bat. Herrialde katoliko batean elizako ateak aizkorakadaz botatzeak jende asko asalatu du.

Alderdi Komunistaren jarrera aldaketa litzateke nabarmenena.

Arazakeriaren aurka ezer gutxi egiten zuten ezkerreko erakundeek ere aurpegia eman behar izan dute oraingoan. Bat batean jabetu dira bazela hor arazo bat. Gogoan izan 1979an 'zero inmigrazioa' eta mugak ixtea aldarrikatzen zuela PCFk. Saint-Bernardeko borroka lagundu die jarreraz aldatzen, erraza izan ez bazaie ere. CGT sindikatua ere aursardiaz borrokatu da orain, urte luzez bere militanteen artean giro arrazista eta chauvinista hedatu ondo-

«Giro arrazista ez da ageri soilik Le Peni botoa ematen diotenen artean; ezkerrean ere arrazista asko dago»

ren. «*Arduratu zaitezte Frantziako langileez, ez atzerrikoez!*» zioten CGT eta PCFko militante askok orain arte. Baina ohartuak dira Le Penek botoemaileak kentzen dizkiela eta, zorionez, estrategia aldatu dute.

Datorren urtean, hauteskunde legegileak. Zer gertatuko da?

Beheraka ari da eskuina, horrela diote inkestek, eta horrela segiko duelakoan nago. Ezkerrak irabazi behar ditu hauteskundeak. Gero etorriko dira negoziazioak. Nire iritziz, batasun gobernu osatuko dute berriro, oraingoan Berdeak ere bertaratu. Eta 1980an ez bezala, programa askoz epe-lagoa izango da oraingoa, laburra, metroko txartel batean kabitzeko modukoa. Guk, berriz, ahaleginak egin behar ditugu horrelakorik gerta ez dadin, indar erradikalak bilduz. Front Nationali aurre egiteko ezker gogorra behar da, ez epela. **Krivine eta bere alderdia, ICR aurkeztu dituzte komunikabideek azken mugimenduen bultzatzailetzat: Saint-Bernard, okupazioak...**

Gezurra. 'Liga'k baduela eraginik mugimenduetan, horretan konforme. Baina geuk zuzendu ditugula, hori gezurra da erabat. Greba kementsurik dagoen bakoitzean konploten bila aritzen da eskuina. Ezin dute ulertu jendea altxatzea, matxinatzea. Inozokeria kolonialista da esatea afrikarrak ez direla eratu eta borrokatzeko gai. Biziak arriskatu eta 60 egu-

nez gose greban jarduteko motibazio handiak behar dira. Hori manipulatu duenik ez dago.

Krivine modan da berriro: «Le Figaro»k deabruztat zauzka, aingerutzat «Liberation»ek...

Betiko kontua, poliziaren konplota. 'Liga' aspaldikoa da eta, gutxi asko, ekinean aritu gara beti. Egia da hauteskundeetan baino gehiago nabarmendu izan garela mugimenduetan. Hamar urtez isilpean euki gaituzte eta orain berriro 'Liga'z mintzatzea... ez dago gaizki ere.

Koalizio gobernurik osatuko balitz, ministro karguan ikusten al duzu zeure burua?

Ezta inondik ere! Ez dut uste bileretara deituko digutenik ere. Benetako ezker antikapitalistak noizbait agintea eskuratuko balu, orduan agian onartuko genuke gobernuan aritzea.

Politikari orok, ezker zein eskuinekoek, 1968ko Maiatzaren seme-alabak direla diote.

Miterranden garaian hedatuagoa zen moda hori. Ongi ezagutzen ditut «Ni 68ko Maiatzean ibili nintzen» dioten ministro eta goi-funtzionarioak. Jarraitzeko adorerik ez zuten izan; hainbeste ilusio eta, gero, langileria ez zegoela aginterako prest esaten zizuten. Bitxia da orain jende hori berriro ere marxismoaz eta komunismoaz hitz egiten entzutea, errebolta garaiak itzuliak direlako edo.

JULEN ARRIOLA

MUNDUA EZ DA BIRIBILA

Sufistekin gau batez Frantziako Tolosan



SPALDITIK ari naiz inmigrante magrebiarren joan-etorriak aztertzen espazioan, denboran eta oroimenean kartografia moduko bat egiteko asmoz. Gipuzkoan duela 30urte bizi den gizonetako marrokiar batek gonbidatu ninduen kofradia sufi baten ospakizunera.

Arras ezaguna da Aljerian, Marokon eta Europako zenbait herritan ospakizun hau: *Tariqa Derqawia* edo *Hadeli Alawia* du izena. Marokoko Rif herrialdeko tribu batekoa (*Fuqara* edo 'behartsuak') da gonbitea egin zidana, Euskal Herrira etorri zenetik harremana galdua badu ere bere sorterriarekin. Hiri handien gogortasunari aurre egiteko babesleku sufismoan bilatzen zuen gizon honek, baita ospakizunean ziren gainerakoek ere. Babesa, eta jatorrizko iturrietarako itzulera.

ZAWIA izeneko lekuetan biltzen dira Europan diren inmigranteak beren ospakizunetan. Frantziako Tolosa hirian 300 lagunetik gora ginen eta, urtean behin, Eguberritan, 700 lagun inguru elkartu ohi dira Belgikan. Zergatik, ordea, sufismoa? Laroussi Amri soziologo tunisiarrak dioenez, «*Mendebaldeak, iraultza industrialaren ostean, ez du jada idealik. Hutsa dugu aurrean. Ez dago bizitzeko arrazoirik. Ideal berria behar da, eta sufismoa da hutsunea betetzen duena*». Bada, ene ustez, beste arrazoirik ere: gizarte proiektuen porrota eta, batez ere, nortasunaren bilaketa.



KEBIR SABAR

Analista politikoa

FRANTZIAR, belgikar, espainiar... musulmantzat, magrebiar jatorrikoentzat, ez 'islamista' ez 'mendebalzale' ez direnentzat, nortasun galdua aurkitzea da erronka nagusia, alienazio kulturalaren sukarra pasa eta gero. Beti ere integrismoari uko eginez. Eta badu honek guztiak hausnarketarako gairik. Izan ere, mende amaiera honetan, premiazkoa da kultura, gizarte eta politika alorretako erreferentzia sistemak zertan diren behatzea, Mendebaldeko 'neodesarrollismo'a gaintzea eta kultural-esentzialismotik harantzago jotzea.

Konpainia elektrikoak eta bankuak inbertsio handiak ari dira egiten parke eolikoetan

Haizeak gero eta diru gehiago mugiarazten du


Haizeak ez du errota askorik mugitu izan Euskal Herrian, baina luze baino lehen ikusiko ditugu nonnahi hiru besodun burdinezko zuhaitzak; ez garia edo artoa xehetzeko, argindarra sortzeko baizik, energia eolikoa ekoizteko parkeetan inbertsio handiak ari baitira egiten korporazio elektriko eta finantzieroak.

HAIZEAREN indarra aspal-ditxotik erabili izan dugu gizakiok, errotak edo belautziak mugiarazteko batetik bat. Argindarra sortzearena edo energia eolikoarena, berriz, lau ekologista zororen denborapasatzat jo izan da orain gutxi arte. Edo hirietatik oso urruti bizi diren lagun bakan batzuentzako salbuespeneko energia iturria zen haizearena. Amaitu dira kontu horiek. Energia eolikoa 'integratua' da jada gure produkzio eta kontsumo sisteman. Hots, konpainia elektrikoak hasi zaizkio etekinak ateratzen eta alor horretan dirutza handiak inbertitzen. Adibide bat: Nefinsa eta Gamesa

enpresek 2.500 milioi pezetako inbertsioa (100 milioi libera) egingo dute Aragoiko La Muela herrian. Parke eoliko honek 25 aerogeneradore izango ditu eta 39 megawatt ekoiztuko urtean.

Haizea eta dirua

GAMESA IBV (Iberdrola eta BBVk sortutako korporazioa) taldekoa izaki, garbi asko ageri da Hego Euskal Herriko kapital finantzieroak eta argindar enpresek energia eolikoaren aldeko apustua egin dutela. Eta erakunde publikoak ere bide beretsutik dabiltzala dirudi. Herri Batasunaren «Herria eginez» aldizkariak plazaratu berri duenez, 25 parke



Hamar megawatteko parke eoliko batek hamaika mila etxebizitza hornitzeko adina argindar sortzen du.

eoliko eraiki nahi dituzte Eusko Jaurlaritzak eta EVEK (Energia Euskal Erakun-

deak) Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian. Proiektua gauzatzekotan, Euskal Au-

Konpainia elektrikoak hasiak dira energia eolikoari etekinak ateratzen eta alor horretan dirutza handiak inbertitzen

tonomi Elkartean kontsumitzen den argindarraren % 8 inguru sortuko lukete aerogeneradoreok, hau da, 200.000 etxebizitza hornitzeko adina. HBk salatu duenez, isilpean darabil Jaurlaritzak proiektu hau, herritarrei zor zaien informazioa ezkutatuz. Nolanahi ere, parke eolikoan banaketa egina legoke, «Herria eginez»ek dioenez: Araban gehienak (18), Gipuzkoan bakarra eta gainerakoak Bizkaian.

Euskal Herrian, Nafarroa nagusi

NAFARROAN, bien bitartean, lehenagotik hasi dira energia eolikoaz baliatzen. Euskal Herriko beste edozein parajetan baino ugariagoak dira herrialde honetan aerogeneradoreak, baita handiagoa ere sortutako energia. Egun hiru megawatt ekoizten dute Nafarroako parke eolikoek eta beste 25,80 egiten ari diren parkeak martxan izango direnean. EAEn 0,02 megawattkoa da egungo energia eoliko ekoizpena. Espainia aldean, berriz, Andaluzia da haizearen indarra gehien erabiltzen duen herria, 70,30 megawatt. Eta Gaztela-Mantxa gehien erabiliko duena, 410,70 megawatt sortuko duten parke eolikoak ari baitira egiten autonomi elkarte honetan.

Azken hamar urteotan egin diren inbertsioak ikusi besterik ez dago energia eolikoaren etorkizuna igartzeko. 1986an 136 milioi pezeta inbertitu ziren Espai-


nian parke eolikoak egiteko; aurren, 51.000 milioi. Datoren urterako prebisioa, 68.500 milioi da. Eta 2.010. urtera bitartean 225.000 milioi pezetakoa izango da, 9.000 milioi liberakoa. Merkeagoa ote, bada, haizeak sortutako argindarra? Eguzkiak eta biomasak (hondakin organikoek) sortzen dutena baino merkeagoa bai; ordea, hidrauliko, gas, nuklear eta ikatz zentralak sortzen dutena baino garestiagoa.

Merkitzeko joera nabarmena du, baina, energia eolikoak. Orain bederatzi urte 360.000 pezetako inbertsioa behar izaten zen kilowatt bat sortzeko; egun, 160.000. Ekologia ere kontuan izateko gaia da, hamar megawatteko parke eolikoak 2.447 tona petroliok adina argindar baitakar, eta karbono dioxidorik batere ez. Bestetik, 11.000 etxebizitza hornitu litzake eta 130 langile behar ditu urteko, parkearen diseinu eta eraikuntzak irauten duen bitartean behintzat. Europan 20.000 lagun inguru ari dira gaur egun parke eolikoan eraikuntza edo mantentzen lanetan. Eta puntako enpresen artean da Euskal Herriko bat, Gamesa Eolica, Nafarroako Erreniegako parkea egin zuena. EHN (Nafarroako Energia Hidroelektrikoa) erakundeak bultzatu zuen GEn sorrera, haizeak ere argindarrik —eta dirurik— eman zeza keela eta.

XABIER ARANBURU

DIRUAREN HOTSA

Kontzertuaren inguruko hitzarmen berriak



AUTONOMI Estatutua eta Kontzertu Ekonomikoa sinatu zirela badira jada 16 urte eta asko gara uste dugunok gastuen dezentralizazioak abaintaila besterik ez dakarrela. Eta zilegi ditzogu Estatutu zein Kontzertuaren garapenari ekitea eta sakontzea. Gai honen inguruan

izenpetu diren azken hitzarmenen balorazio politikorik ez dut egingo, ez baita hori nire eremua. Bai, ordea, ekonomia alorreko hainbat gairen inguruko hausnarketarik. Lehenbizikoa, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari (PFEZ) dagokionez lortu da arautze ahalmenik. Beraz, EAEko hiru herrialdeetako Foru Diputazioek zehaztuko dituzte zergaren zenbatekoa eta gainerakoak.

BESTETIK, alkohola, tabakoa eta errekairen gaineko zergak ere bertan bildu ahal izango dira. Honen bestez, Lurralde Historikoen ogasun erakundeek jasoko dituzte hiru atal horietako zergak ere, orain artean Espainiako Haziendak jasotzen zituenak alegia. Gerora, Kupoaren bidez egin beharko da dagokion doiketa. Sobera jakina denez, Kupoak arautzen du zenbateko dirua eman behar dion EAEk Espainiako Haziendari, honek gure autonomi elkartearen dituen gastuen truke.



MARI KARMEN GALLASTEGI

Ekonomia irakaslea

EUROPAN ere nabarrituko dugu EAJk eta PPK hitzartutako akordio ekonomikoaren eraginik, solaskide zuzenak izango baititu EAEk erabakigune garrantzitsuetan. Eta hasiera hasieratik jakin ahal izango dugu zeintzu irizpide dituzten Bruselan honetaz edo hartaz, baita erabakitzeke (edo iritzia emateko bederen) aukerarik ere. Beraz, hitzarmenen norabidea zuzena delakoan nago. Jakina, ikusi egin behar zenbatekoa den, zehazki, hitzartutakoaren kopurua. Besteak beste, zerga berezien eta batez ere errekairen gainekoak Espainiako batz besteko % 6,24 gairidituko duen ala ez. Baina gure ekonomiaren ezaugarri nagusiak ikusirik (herri industrialak gara oraindik ere) pentsatzekoa da Espainiaren batez bestekoaren gainetik ibiliko dela.

Lan mahaien proposamenak eta lan-ildoak dagozkien erakundeei jakinaraziko zaizkie

GIPUZKOAN PLANAK LOTZEKO

Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskararen erabilera sustatzeko udalerrri mailako plangintzak elkartu eta koordinatzeko lan mahaiak egiteko plangintza aurkeztu du.



Gipuzkoako Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Siadecoko ordezkariak aurkezpenean. (A.: G.

EGITASMOAK hiru esparru hartuko ditu bere baitan: udal zerbitzuetako euskararen erabilera-plangintzak; merkataritza alorrean euskararen erabilpena sustatzeko egitasmoak eta kirol jardueretan euskararen erabilpena sustatzeko plangintzak.

Xabier Huizi, Gipuzkoako Aldundiko euskara ardura-dunak adierazi digunez, proiektu honek «Kirola euskaraz» programan du jatorria. Bere esanetan, «programa bonetan Eusko Jaurlaritza, Aldundiak eta Deba bailarako ordezkariak gaude. Eibarren gai bonen

inguruan jardunaldiak egin ziren eta Gipuzkoako beste eskualdeetatik eskaerak etorri ziren. Bestetik, Antzuola eta Bergararekin egindako administrazioa euskalduntzeko hitzarmenak ere eginda genituen,

beraz, hor ere bagenuen zer esanik. Merkataritzarena desberdina izan zen». Siadecok honen inguruko plangintza martxan jarri zuenean, «guk ere zerbait egitea pentsatu genuen, izan ere, Gipuzkoan espa-

rru bonetan homogeneitatek ez zegoela ikusten bai-kenuen. Honek ez du esan nahi beste esparrurik ezin denik aztertu, baina oraingoz hauexek aukeratu ditugu aztertzeko».

Alde batetik, lortu nahi diren helburuak hauexek dira: Gipuzkoan dauden euskararen erabilpen-plangintzen diagnosis egitea, azterketa horren arabera lan-mahaiak osatzea eta

Honek ez du esan nahi beste esparru batzuk aztertuko ez ditugunik»

XABIER HUIZI

hauek luzatutako proposamenak bideratu, sustatu eta ideia berriak lortzea. Bestetik, esparru horiek lurralde mailako erakunde eta egituran izan dezaketen eragina definitu nahi dute. Aldundiak koordinazio orokorra egingo du Siadecoren bitartez. Kanpaina nagusiak eta diru ekarpenak ere egingo ditu, jardunaldiak eta beste zenbait gauza antolatzeko.

Lan mahaiak osatzeko irizpideak aukeratu eta onartu behar izan dira. Esparru bakoitza aztertzeke erabiliko diren lan mahai bakoitzean hamar udalerrri egongo dira. Zerrenda honetako ordezkarietz gain, lan mahai horietan Uemako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiko eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiko ordezkariak ere parte hartuko dute.

Lan-mahaien erabaki ahalmena

LAN-mahaietan parte hartuko duten pertsonak teknikariak izango dira, baina udaletako ordezkari politikoak ere inplikatu dira proiektu honetan. Mahai hauek hiru hilabetetik behin bilduko dira gutxienez, eta gehiengoak onartu dituen proposamenak eta lan-ildoak dagozkien erakunde eskudunei jakinaraziko zaizkie. Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalkuntzarako Zuzendaritza Nagusiak kasu bakoitzari dagozkion ardurak aztertu eta bere kasuan onartu eta gauzatu egingo ditu, horretarako behar diren baliabide tekniko, ekonomiko eta pertsonalak izendatuz.

IDOIA TORREGARAI



ANDONI SAGARNA

Klaudio Harluxet Fundazioko kidea

Zer ekarpen espero duzue egitea Klub Elektronikoak euskaltzaleen arteko harreman sareari? Komunikazio sistema amankomun bat erabiltzeak

hurbilaraziko al ditu jarrerak?

JOXE JABIER IÑIGO

EKBko kidea

Funtsean bi gauzarako sortu du EKBk EuskaraZ posta-zerrenda: informazioa elkarren artean trukatzeko eta informazio hori modu eraginkorren trukatzeko: azkar, erraz eta masiboki. Kontuan izan behar da gaur egun informazio interesgarri asko euskalgintzan gabiltzanongana ez dela iristen; batzuetan komunikabideen zabaltzen ez dutelako, beste batzuetan oso laburki egiten dutelako eta, azkenik, beste zenbaitzutan informazioa berandu argitaratzen delako. Elkarreak teknologia honetaz baliatzen hasten diren neurrian, informazio hauek masiboki hedatzeko modua izango da.

Informazioa trukatzear gain, beste funtzio bat ere bete dezake EuskaraZ-ek: iritzi trukaketarako eta eztabaidarako gune izatea. Posta-zerrendaren bitartez normalean elkarrekin eztabaidatzeko marko ohikorik ez dutenei ho-

rretarako aukera ematen zaie. Askotan gainera, elkarrekin eztabaidatzeko ohiko gune bat

duten euskalgintzako elkarteetan kasuan (EKBko partaide direnak, esate baterako) arduradunen arteko eztabaidak izaten dira, oso noizean behin baino ez dute aukera izaten elkarrekin partaide soilek elkarren artean debatzeko. EKBkoak ez diren elkarteetako partaideen artean aukera horiek are urriagoak izaten dira. Bestalde, ez dut dudarik euskalgintzan gabiltzanon informazio eta iritziak egun baino neurri handiagoan trukatzeko hizkuntza normalakuntzarako estrategiarik eraginkorrenak adosten nabarmen lagunduko duela.



URREA



● Ipar Euskal Herriko Yosheikan Budo irakasle den Jose Perezek euskaraz ematen ditu klaseak. Beste kirolekin euskaraz ari den bitartean, Asiako kirol honetan euskarak leku osoa du.

GOROTZA



● Laudioko Udalak pasa den ekainean erabakitako dirulaguntzen murrizketa indarrean jarri du. Honen ondorioz, euskaltegi pribatuetako ikasleak laguntza hori gabe geratu dira.

I. Informatikari Euskaldunen Topaketak egingo dituzte ostiral honetan Donostian

EUSKARAZKO SOFTWAREA HUTSUNEETATIK ABIATUTA


Donostiako Miramar Jauregian egingo dituzte ostiral honetan UEUK antolatuta. Bertan bilduko dira irakaskuntza, komunikabide eta argitaletxeetako kideak. Euskarazko softwaregintzan dihardutenen ahotan bildu ditugu esparru honen egungo egoera, gabezia nabariak eta lehentasun nagusiak.

EUSKARAZKO softwareari begiratzerako orduan, hezkuntzarako egiten dena eta bestelakoa ezberdintzea beharrezkoa da. Izan ere, hezkuntzarako pentsatuak dauden ehundaka programa badago jadanik euskaraz, azken urteetan egindako lanaren emaitza. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1987an EIMA III programa martxan jarri zuenetik 368 bat software-programa landu ditu, batzuk oraindik produkzio fasean badaude ere. Produkzio honi loturik, baina, behar nagusizat du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Mikel Zalbidetik «*irakasleen prestakuntza*». Dena den, «*orde-*

nagailuen erabilera errazteak on egingo dio irakaskuntza munduari ere, ordenagailuaren eta hezkuntza-softwarearen erabilerrako bidea erraztuko baitu.

Hezkuntza-softwarearen lehentasunei dagokienez, irakaskuntza erreformak markatzen ditu oraingoz ELMA III programan Mikel Zalbideren ustez, «*DBHren ezarpena dela-eta lehentasun handia eman baitzaie irakasmaita borretako jantzagaia lantzeko produktuei*». Hala ere, ekoizturiko ikasmaterialen berri ematea ere premia garrantzitsutzat du.

Hezkuntzarako egiten den softwarea alde batera utzita, baina, oinarriko sof-



Xabier Artola I. Informatikari Euskaldunen Topaketetako antolatzaile-taldeko partaidea da. (Arg.: G. Garaialde).

twaregintzan —testuak lantzeko programak, datu baseak lantzeko programak,

kalkulu orriak...) oso gutxi dago euskaraz, Windows eta Word, esaterako. Merkatuan

«Lokalizazioak ere arazoak ditu, informatikaren mundu honek izugarritzko abiadura daramala, alegia»
XABIER ARTOLA

dagoen softwarea —bai sistema eragileak, baita aplikazioak ere— hizkuntza batean jartzeari lokalizazioa deritzo. Jada merkatuan diren programak euskarara lokalizatzea, baina, ez da itzulpen kontua bakarrik, Harluxet Fundazioko Andoni Sagarnak azpimarratu duenez: «Itzultzea baino konplexuagoa da, hizkuntzaren ezaugarrietara egokitu behar baita sistema».

Premia eta lehentasunak

KANPOKO produktuen lokalizazioari begira, estrategia eta lehentasunak finkatu beharra antzematen du Xabier Artola Informatikari Euskaldunen Topaketetako antolatzaile-taldeko partaideak: «Merkatua azertu beharko litzateke, gebien erabiltzen diren programak ikusi eta horien lokalizatorako pausoak eman.

Dokumentu-baseak lantzeko softwaregintzan

Datu-baseak kudeatzeko softwaregintzan euskarazko produkzioen gabezia erabatekoa izan da orain arte. Ametzagaña taldea ari da, hain zuzen ere, euskarazko softwarea lantzen esparru horretan, ARGIAren dokumentazio-basean oinarrituriko proiektu bati helduta.

Proiektu honetan lanean diharduen Josu Landaren hitzetan, «*arlotan honetan arreta berezia dauka euskarazko base-dokumentalak izateak, merkatuan dauden beste produktuek ez baitute kontuan hartzen euskararen morfologia eta berezitasunik*». Hutsune hori dela eta, Ametzagaña lantzen ari den base-do-

kumentalak lantzeko proiektuak euskara beraren berezitasunak hartuko ditu kontuan.

Egitasmo zehatza du orain Ametzagañak eskuartean, dokumentu-baseen kudeaketari dagokionez: ARGIAko historiako elkarrizketen bilduma, gerora argitaratzeko asmoa dutena. Hala ere, base-dokumentalen gestioa proiektu osoaren lehenengo fasea besterik ez dela argitu du Josu Landak. Izan ere, asmoa anbiziosoagoa da eta epe luzeagokoa: «*lotuta dago hizkuntzaren industria edo hizkuntzalaritza konputazionala deitzen den esparruarekin, hizkuntzaren inguruan*

ekoizten den softwarea eta sortzen diren lanabes informatikoekin». Domuentu-baseen kudeaketa lehenengo pausotzat dute eta lehenengo pauso hauek etorkizuneko lanabesetarako baliagarriak izango direla uste du Landak.

Azken helburua hizkuntzaren kalitate-kontrolerako tresnak eta zehatzago itzultzaile automatikoa sortzea dute Ametzagañako partaideek, «*baina hori azken helburua da eta horregatik garrantzitsuak dira horri begira ematen diren pausoak: abiadura, hizkuntzaren berezitasunak kontuan hartzea, eta abar*».

Baina lokalizazioak ere arazoak ditu, mundu honek izugarritzko abiadura daramala, alegia. Eta ingelesezko bertsio aurreratuenak badaude, jendeak ez du erabiliko euskarazkoa euskaraz egoteagatik bakarrik. Programak euskarara lokalizatzeko pausoak era ezberdinetara eman izan dira. Word eta Windows eus-

karatzeko Eusko Jaurlaritzak hitzarmena egin zuen Microsoft-ekin, baina Netscape Interneteko nabigatzailea euskaratzeko, aldiz, enpresa ekoizleak UZEI-rengana jo eta berak ordaindu du.

Euskarazko softwaregintzak dituen hutsuneei jarraiki, arazoak larriagotu egingo direla uste dute bai Andoni


Sagarnak, baita Xabier Artolak ere. Harluxet Fundazioko kidearen hitzetan, «*hizkuntzaren erabilera areagotzen ari da informatikan; esaterako, ordenagailuari teklaturik gabe aginduak hitzez emateko sistema prestatzen ari da IBM, eta hori badator. Horren aurrean, nor prestatuko du ordenagailu hori*

Asma ezazu berehalaxe zertan gelditu den gizon hau atzean

Jakina. Oraindik ere betaurreko zaharkituak erabiltzen ari da. Oraindik ere ez da konturatu MULTIOPTICASen Indo Lente Progresiboak egokitzen dituztela. Hoberenak, azkenak, distantzia guztietara bikain ikusteko modukoak. Orain badakizu, zatorz MULTIOPTICASera eta izan zaitez egunean.



MultiOpticas mailegu txartelarekin, ordainketa atzeratua.



**INDO LENTE
PROGRESIBO BERRIAK,
MULTIOPTICASen**



Hernani, 4 - DONOSTI

euskaraz egiteko sistema? Informatikarekiko izango ditugun barreman berri horiek euskaraz gauzatzea agian ez da gaurko arazoa, baina bihar goizekoa izan daiteke eta orain hasi behar dugu horretarako prestatzen». Sagarnaren iritziz hizkuntza-industria deituta-koan sartzeko beharra azaltzen du. Xabier Artolaren ustez, bilakaera honen aurrean industriaren inguruan egongo litzatekeen ikerkuntza oso inportantea da, eta hizkuntzarekin lotuta dauden ekoizpenak «guk egin behar ditugu, ikerketa hori guk egin behar dugu, ez informatikariek bakarrik, bizkuntzalariek ere bai».

Bestalde, euskarazko softwarearen komertzializazioa eta gizareratzearen hutsunea ere ikusten du, Mikel Zalbidetik bezala, Andoni



Josu Landa dokumentu-basak kudeatzeko egitasmoa lantzen ari da Ametzagaña taldean. (Arg.: A. Elozegi).

Sagarnak. «Aplikazioak euskaraz edukitzeak lehentasuna izan dezake, baina Word 6.0 PCrentzako euskaraz egonda ere, ez da jendearengana iritsi, ez dut zabaldua ikusten». Ez ditu ahazten, hala ere, zeharkako arazoak: «Jendeak ez ditu

programak erosten, abal dela kopia egiten ditu. Eta ez baditugu programak ordaintzen nola nahi dugu, ordea, inor horretara dedikatzea?».

Arestian aipatutako premia eta lehentasun hauek aztertuko dituzte ostiral ho-

netan Donostiako Miramar Jauregian bilduko diren informatikari euskaldunak. Baina ez dira horretan geldituko, asmoa ez dute hori, behintzat.

Informatikarien topaketak

ORAIN arte euskarazko softwaregintzan zer dagoen eginda azertzeaz gain, arlo honetan euskaraz aritzeak zein arazo sortu dituen aztertuko dute I. Informatikari Euskaldunen Topaketetan, ikuspegi tekniko eta linguistikotik. Azkenik, bilkura hau aurrera begira lehentasun eta estrategia finkatzeko ere erabili nahi dute, Xabier Artola antolatzaile-taldeko ki-deak adierazi bezala. Bali-zako koordinaziorako tresna, batzuren gogotan.

**IDOIA TORREGARAI
ARANTXA ERASUN**



Industrialdea, 4
NAFARROAKO LEITZA
TEL.: (948) 51 03 11
FAXA: (948) 51 05 29



**EUSKAL HERRIAN EGITEN DEN KALITATE ONENA
DUEN SUKALDE HALTZARIA DA**

**KALITATEA OSOTASUNEKO EDUKIAN NABARMENTZEN DU
EGOKI -K BERE PRODUKTUETAN**

KALITATEA BADA ZURE "MARKA"

EGOKI -tu ZURE ERRONKA SUKALDEAN

Kiko Caballeroren egitasmoa aztertu dute jokalariek eta abendurako nahi lukete irtenbidea

GABONETAN PALA HOTSAK ESPERO DIRA FRONTOIETAN

Erremediorik ba ote? Bost hilabete dira jada Deportibo, Bilboko pilotalekuan palakada hotsik entzuten ez denetik. Olentzerok bere zakuan ekarriko al du hori aldatzeko giltza? Itxaropen horrekin ari dira entrenatzen pala jokalariek.

EGIN dezagun historia pittin bat. Asegarcek pala jokalariek kale gorrian utzi zituen maiatzaren 31ean. Koadroko pala jokalariek gehienek kontratua amaitzeko bezperan, enpresaren eskaintza onartezina jaso zuten, ekonomikoki estutu eta jaialdi

kopurua ere gutxitzeko asmoa zeramana.

Baldintza horiekin pala berari labankada bat ematea zitekeelakoan, beraz, enpresak eskaintakoari ez zioten men egin eta eredu-garri beharko lukeen jarrera baterakorra hartzea erabaki



Maatzaren 31n utzi zituen Asegarcek pala jokalariek kale gorrian. (Argazkia: Xouse Simal).

45 tantora da partidu hau

Lerro hauek idazterakoan hauxe zen pala partiduaren behin-behineko emaitza. Oraindik ez da partidua amaitu, oraindik ez dira 45 tantora iritsi, baina bistan dago «Gastuak» abantaila nabarmena duela eta «Sarrerak» ahalegin guztiak egiten dituela bien arteko aldea areagotu ordez gutxitzeko. Ezin dugu etsi, eta gorde dezagun itxaropena 45era iritsi arte.

Geldi dago pala azken hilabeteotan, Deportibon ez da pilotaren ziztu hotsik entzuten, eta mutu daude tra-

beseko apostulariak. Zer gertatzen zaio palari? Palak behera egin du, ikuslegoa atzeratu egin da, ikusleak gutxitu eta bakandu egin dira. Ondorioz, sarrerak murriztu eta galerak azaleratu dira eta, bide batez, pilota mota hau krisian sartu da. Egoera hori kontuan harturik aurkitu beharko dira erremedioak, eta ez arazoak ezkutaturik. Palaren irtenbidea zaila izan da orain arte eta zaila ari da gertatzen... Nire ustez, hiru baldintza dira ezinbestekoak egoera honi konponbidea aurkitzeko eta palaren munduan erabat egingarri izateko.


Lehenengo eta behin, enpresa bat behar da, arazoa bere gain hartuko duena, arriskuak neurtuko dituena, baina baita ere, konpromezu serioak betetzeko gai izango dena. Enpresa horrek gestioa hobetu, berritu eta egokitziaz aparte lehenengo urte ba-

tean edo bitan dirua galtzeko arriskua izan dezake.

Bigarrenik, pilotariei ere tokatuko zaie euren partea. Guztiok desiratzen dugun ekimen hori burutuko bada gastuak gutxitzea ezinbesteko gertatzen da, eta esan didatenez, beraiek prest omen daude horretarako.

Hirugarrengez, administrazioak ere badu zeresanik, baina adieraz dezagun argi eta garbi bere egitekoa. Hitzarmena eta adostasuna enpresarena eta pilotariena izango da, hain zuzen ere. Bi horiek dira protagonista eta horiek dira palaren etorkizunaren zutabe.

Azken finean, arlo honetan administrazioaren agitekoa ez da bata edo bestea ordezkatzeko, administrazioa ezin da enpresari bilakatu. Laguntzea, bultzatzea, girotzea, babestea eta bi protagonista horiek uztartzeko ahaleginak egitea dagokio administrazioari.



Jose Mari Agirre Eusko Jaurlaritzako Kultur sailburuordea da gaur egun. (Argazkia: Leire Arzuaga).

zuten: Juan Pablo, Daniel, Insausti, Garrido eta Arzelusek kontratua indarrean izan arren euren kirolkideekin bat egin eta jokatzeari uko egin zioten.

Lau aukera

PALA munduaren gainbeherak berehalako erantzuna derrigorrezkoa zuen eta ondorioz Kiko Caballero (Euskadiko Pilota federazioako lehendakaria) era-

ko luketenak, eskuak igurtzi eta etorkizunari begira jarri ziren. Aitor Totorikaguena Eusko Basque puntisten ugazaba berehalako azaldu zen palan sartzeko. Arribillaga palista utzi berriak eta ordurarteko burua zen Ipiñak elkarrekin egoera larri honi aurre egiteko adorea erakutsi zuten.

Hirugarren aukera Kiko Caballeroren itzalpean ernaltzen ari zen beste ekimen

kundeetako ordezkariekin bildu zen. Hori eta Asegarkoekin eginiko bilerak hutsala izan ziren: kirola babestu eta gauraz hartu behar-

bati zegokion, baina azken orduan tartean (bazterrak nahasi eta ideia garbirik gabe euren buruari publizitatea egiteko asmotan) Jose Luis Llantada Bilboko enpresariaren planteamendua azaldu zen.

Baldintzen desegokitasuna, sostengu ekonomikorik eza eta konfiantza falta zirela medio, besteak beste, irailaren 13an Llantadak plazaratutako egitasmoari baietza eman zioten pala jokalariek.

Erabakiaren protagonistek gaur, Llantadaren aldeko jarrera agian ezinbestean eta behartuta hartu zutela aitortzen dute: *«Hogeita sei gazte ginen, horietarik batzuk langabezian eta egoera horri luze utsiko ez lioketenak. Asmo onak alde guztietatik jaso genituen, baina geuk datu zehatzagoak*

nabi genituen, proiektu zehatz bat, alegia. Horrengatik jo genuen Llantadaren gerizpera baina beltzen basi orduko ibartzan joan da proiektu hura».

Enpresari honek laster ekin zion pala munduan kezkatuta eta suspertzeko ahaleginetan murgildu beharko luketen aldeekin hitz egiteari. Deportibo pilotalekuko arduradunekin, beste inorekin baino lehen, eurek baitute jaialdiak antolatzeke beharrezkoa den eszenatokiaren jabegoa.

Urteko 16 milioi pezetako errenta ordaintzen zuen enpresak, eta alogera hori merkatzeko asmoz eginiko negoziaketak alferreko suertatu ziren. Komunikabideek (ETBk) arreta gehiago eskaini zezaten eskaerak ere ez zuen probetxuzko inolako erantzunik jaso. Eta oro-

«Bilbon palak beti izan ditu zaletuak; kontua da lehengoei berriak atxikitzea» KIKO CABALLERO

ren buru, oso denbora gutxi-
ren bueltan, proiektu berri
horrek, kasik abiapuntu-
an zenean, pot egin zuen.

Jokalarien elkartasuna

BOST hilabete pasatxo da-
ramate jokatu gabe profesio-
nalek eta batzuk beste
inongo ogibiderik gabe
itsu-itsuan edozer irensteko
moduan egon arren, bategi-
nik segitu dute. Supan ar-
gentinarraren kasua aipa-
garria da. Duela hilabete bat-
zuk lur hartu zuen Euskal
Herrian, palaz bizitzeko as-
moz eta orain koadroko
beste pala jokalariei esker
bizi dela esan genezake.

Bien bitartean gipuzkoa-
rrak astean bitan Andoaingo
pilotalekuan biltzen dira
entrenatzeko. Bizkaitarrek
berriz, Deportiboko ardura-
dunekin konponketa bat hi-
tzartuta Bilboko pilotale-
kuan dihardute, Olaben
Plentzian... Denak puntu-
puntuan daude, lehiaketa
berri bati ekiteko prest.

Pala profesionala bideragarria

BILBOKO festetarako ziru-
dien lehenik. Urrian den-
boraldiaren hasierarekin
batera zioten, beste batzuk.
Baina momentuz palak isilik
darrai, mutu. Aurrez palaren
ardura hartu zutenek jaialdi
hauen baliabide ekonomi-
koak jasan ezinak zirela ja-
kinarazi zuten, eta ondorioz
goxoki mikatzegia ahora-
tzeko arriskuan atzera egin
dute. Kiko Caballero Eus-
kadiko Pilota Federazioko
lehendakariak, ordea, oso

bestelako iritzia du: «*Edo-
zein jarduerak mugimen-
dua behar du, baldin eta
bizirik iraun nahi baldin
badu. Bilbon lehen orain
eta beti palarako zaletasu-
nik izan da eta kontua da
lehengoei berriak atxiki-
tzea. Baina horretarako
mundu hau aparte landu
behar da, ezaugarri bere-
ziak ditu. Pala hartuko
duenak, maitasunez ekin
beharko dio, ez dezala pen-
tsa egun batetik bestera ira-
baziak lortuko dituenik,
baina horrek ez du esan
nahi, batzuek hortik saldu
duten bezala, pala profesio-
nalak inolako irtenbide
ekonomikorik ez duenik.*

Eguberrietarako

JOAN den astean egin zuten,
hain zuzen ere, pala joka-
lariak bilera erabakiorra. Bi-
lera horretan mahai gainean
Kiko Caballerok duen egi-
tasmoaren berri izan zuten.
Jakin badakite denboraren
joanak kaltea areagotu egi-
ten duela, baina baldintza
berriak zehazki jakin artean
euren jarrera ez dute eraba-
kiko. Nolanahi ere, oso serio
hartu dute asmo berria eta,
etxe barrutik datorrenez,
euren buruari eperik jarri
gabe baina jokatzeko irrikiz
eta premian daudela kon-
tuan hartuz gero, Olentze-
rok bere zakuan Deporti-
boko pilotalekuaren atea
irekiko ditun giltza ekartzea
espero dute. Eta, agian, gure
frontoietan hilabeteotan
entzun ez den pala hotsa
berriro entzungo dugu.

MARTIN AGIRRE



La Casa del Café

— Juan Irujo, S. A. —
D O N O S T I A





«Beldurra beti dago hor, baina nire barruko egonezinak gainditzen nau»

Buruan darabilen egitasmo bakoitza disko bihurtzen du Kepa Junkera bilbotarrak. Oraingoan, Ibon Koteron alboka jolearekin «Leonen orroa» diskoa prestatu du, bere ibilbidean zazpigarrena izango dena eta bide batez Leon Bilbao zenari eskainia doana. Oskorri, Leon Bilbao, Fasio eta Mauriziak musikaren ikuspegia aldarazi diote. 1986 eta 1988ko txapelketen ondorioz trikitixak bizitako aldaketez, egungo egoeraz eta trikitilariak duen ikuspegiak mintzatu zaigu.

Zure burrengo diskoa Ibon Koteronekin elkarlanean prestatu duzu. Non du jatorria?

Aspaldidanik buruan nuen egitasmoa da. Maitasun berezia diot albokari, eta Leon Bilbaori batik bat. Leon Bilbaorekin batera Fasio eta Mauriziarekin harreman ona eduki nuen. Albokara hurbilketa izan zen. Beste be-launaldi bateko jendea izan arren oso jende irekia zen eta gure musika erabat onartu zuten. Beste zenbait sektorek okerrago hartu zituzten gure ideiak.

Ibon Koteron ezagutzeko parada izan nuen. Bera ni bezala bilbotarra izanik oso kasu bitxiak gara, Bilbo bezalako hiri batean, gure garaian behinik behin, musika tradizionala jorratzea oso arraroa zelako. Proiektua egitea proposatu nion eta Oskorrik eta Leon Bilbaok

albokari emandako tratuak bide hōri jorratzera eraman gaitu.

Baina albokaren ezau-garriak oso bereziak dira...

Bai. Nota kopuru mugatua du eta, gainera, ez dago inongo konposiziorik. Guk sortu behar izan genituen kantu guztiak, herri-musika izanik ardatz bakarra, Oskorri eta Leon Bilbao ahaztu gabe. Bi hauek izan dira alboka hobekien landu dutenak. Zoragarria da Oskorriren «Ezpatadantza» kantuan albokak duen indarra.

Eta zer esango digu «Leonen orroa»k?

Zati bat Madrilen grabatu genuen, Luis Delgadoren estudioan, eta gainerakoa Elkarren. Diskoaren oinarria perkusioak, trikitixak eta albokak osatzen duten hiru-kotea da. Talde handia bildu dugu: Oskorriko Natxo de

Felipe, Anton Latxa eta Bixente Martinez; Tomas San Miguel teklista, Javier Pase-riñaren flauta, Jose Miguel Budiña gaita-jole galiziarra, Rafa Martinek zanfoña jotzen du, Maixa eta Ixiar aho-tsetan, Leturia panderoan... lana biribildu dute guztiak.

Zein alde du zure aurreko lanetatik?

Ezaugarri nagusia albokarekin egina dagoela izan da. Nire zazpigarren lana da hau, nahiz eta aurrekoa Julio Pereirarekin elkarbanatu eta beste bat Riccardo Tesi eta John Kirkpatrickekin. Lan oso ezberdinak egin ditut nire ibilbidean, batzuetan orkestra tradizionalagoekin, jazz kutsukoekin beste batzutan, rockera gehiago hurbiltzen direnekin... Alboka sarkorra da eta lan honen ardatza bada. Albokaren mugak aintzat hartuta, lan oso pertsonala egin dugu.


Zer bilatzen zenuten lan bonekin?

Lan mordo egin genuen eta bertatik aukeraketa. Hama-sei pieza hautatu ditugu. Nik hamabi egin ditut, bi Ibonek eta beste biak elkarlanean egin ditugu. Melodia berriak sartu nahi izan dizkiogu albokari, gainerako instrumentuekin konbinatu...

Zure lanetan etengabe dago esperimentazio ukitu bat. Ez zara esperimentu butsean gelditzearen beldur?

Beldurra beti dago hor. Baina nire barruko egonezinak gainditzen nau. Proiektu berri bakoitzaren aurrean zein erantzun izango dudan ez dut jakiten, baina ez naiz itsu-itsuan murgiltzen. Alde horretatik, Oskorriekin lan egiteko aukera izan dudanez gauza asko ikasi eta ikusi ditut, gero nik horiek jorratzeko. Tomas San Miguel edo Leon Bilbaoren lanek ere horretan asko lagundu didate, oinarri bat izan dira. Albokarekin disko bat egiteak arriskua zekarren niretzat. Orain jendeak eta kritikak entzun behar du eta eurek erabakiko dute.

Trikitixa beste musikatresnekin nabasterakoan ez al da bigarren



«Oskorrik izan du errurik handiena trikitixa beste musika-tresnekin elkar daitekeela frogatzerakoan. Barruak agintzen didana egiten dut. Oskorri izan da aitzindaria neurri handi batean, bidea zabaldu duena, beste herrietako musika ahaztu gabe».
(Argazkia: G. Garaialde).

mailan geratzen, beste bat gebiago balitz bezala?

Nire karrera orokorrean ikusten dut. Ez dut rock talde baten dinamikatik ikusten, adina edo irudiarengatik modaz pasa daitekena. Produizioan eta ideietan ere parte hartzen dudanez, nire lana trikitixa baino zerbait gehiago ere bada. Lan hauek

sarritan ez dira ikusten. Musika-tresnajele soila baino gehiago banaiz. Zuzenean nire kontzertuak entzuterako joaten dena behar bada harritu egingo da, diskoa hontzagoa delako, dena dago neurtuagoa...

Lan-dinamika horrek ez dizu dezepziorik eragin?

Orain arte ez. Nik esperotako bideetatik joan dira

gauzak. Lan hau jendarean aurkezteko aukera edukitzeaz harro nago. Julio Pereira munduan dagoen musikaririk garrantzitsuenetakoa izanik, berarekin diskoa grabatzeko aukera edukitzea ohorea da niretzat, baita orain alboka jotzen trebeena den Ibon Kotronekin jotzea ere. Gainera, gure disko xume honetatik Leon Bilbao, Fasio eta Maurizia omendu ahal izateak nola eragingo dit ba dezepziorik? Hauen musika entzute hutsak emozioa eragiten dit.

Trikitixa orain mende bat pasatxo sortu zen. Euskal Herrian aldiz, eboluziorik eta iraultzarik nagusia azken barmarkadan izan du. Zein neurritan uste duzu izan zarela borren 'errudun'?

Garai hartan ez nintzen gertatzen ari zenaz jabetzen. 1986 eta 1988ko txapelketen ondorioz izan zen batik bat. Erantzule bakarra baino, faktore ezberdinek eragin zutela iruditzen zait. Batetik, musika-tresna hauek hiritan sartzen hasi ziren, inguru urbanoan. Ikuspegi ezberdina izaten da hemen. Ordura arte baserri eta herri txiki-tako giroetara mugatu zen trikitixa eta zabaltze horrek ere eraginik izan zuen. Hirietan jende gazteak kontzertu gehiagotara joateko aukera du, estilo ezberdin gehiago ikusteko, jasotzeko... Ikasteko aukerak ere handiagoak dira eta horrek ere ideia berriak sortzeko orduan laguntzen du.

Nitaz gain Oskorri edota Joseba Tapia hor egoteak eraginik izan zuen. Trikitixaren eklosioa izan zen. Denbora asko pasa beharko da berriro ere antzeko zerbait gerta dadin. Garai ia

ideala izan zen niretzat, iragana eta korronte berrien uztartze bat izan zen. Baina gertatzen ari zenaren kontzientziarik ez genuen.

Kritika gogorrak jaso zenituzten bere garaian...

Oso kritikatuak izan ginen. Gure ideiak ez ziren trikitilarien ezaugarrietan sartzen. Trikitilari batek nolakoa izan behar zuen jendeak argi zuen, inkonziientean bazen ere. Guk gure lanak aurkeztu genituen urte askotan akordeoi-joleek konposatutako esparru batean. Trikitixa eskuetan nuela konposatzeagatik kritikatu ninduten batik bat.

Niretzat harrigarriena hori zen: trikitilariak ez zirenek egindako kantuak jotzen zituztela eta nireak, aldiz, ez zituztela onartzen. Ez dut ezer hauen aurka, are gehiago, zorutzen naute. Pepito Iantzik asko konposatu zuen trikitixarako eta oso gauza politikak egin zituen.

Beharbada, kritikez baino bitxikeriez hitz egin behar da. Liskarra sortu zen arren ez nuen hori bizi izan, ez nuen niri zegokidan zerbait bezala hartzen. Nire erreperitorioa asturiarra zela aipatu izan zen. Arrazoi nagusia izan zen norberak bere kantuak aurkeztea ohikoa ez zela. Bi korronteen arteko talka izan zen eztabaidaren arrazoi nagusia. Ez dut arazorik izan sekula. Are gehiago, Gipuzkoa eta Bizkaiko erromerietan ibili nintzenean, jendeak gustura dantzatzen zuen, harrera abegikorra egiten ziguten.

Aldaketa zu ia obartu gabe izan zela aipatu duzu. Ez al da komenigarriagoa gauzak poli-ki-poliki aldatzea?

Beharbada bai. Ez dakit. Zazpigarren diskoa da hau

eta aukera izan banu beste hainbeste aterako nituzke. Pazientziarik ez dudala onartzen dut eta ondorioz, ongi pentsatutako politika batekin, estrategikoago batekin apurtzen dut. Ahal izan dudan guztia atera dut, ateratzen utzi didaten guztia. Eskaintza ugari egin ditut: akordeoiekin soilik osatutako akustikoa kaleratu nuen, hor atea zabalik utzi nituen bideari ekiteko; jazz musikariekin beste proiektu batean aritu nintzen, Julio Pereirarekin izandako esperientzia, bide tradizionalera gehiago hurbiltzen diren lanak... Bide oso ezberdinak izan dira, elkarren artean uztartzerik daudenak, ikertzen jarrai daitekena. Arrazoi ezberdinengatik beste bide batzuk aukeratu izan ditut.

Zuk aukeratutako bideak, hala ere, ez ditu molde zabarrak baztertzen...

Antzinako trikitixak zortzen nau. Trikitixa disko bat aukeratzeko esaten baldin badidate, musika estilo guztietan aritzen direnei nire errespetua erakutsiz Leon, Fasio eta Mauriziare n bat,

Iturbideren bat edota Laja eta Landakandaren bat aukeratu nituzke. Emozioak sortarazten dizkidate, oilo-larruan jarri. Horrek guztiak ez du beste gauzak egitea baztertzen. Garaiek eta jendeak horretan asko eragiten dute. Musika garatuz doa. «Zer dagoen ongi eta zer gaizki» eta «hau edo beste» entzun behar dela esatea ez zait gustatzen. Bakoitzak nahi duena entzun behar du, benetan zirrarak sortuko diona.

Euskal Herritik kanpo asko atera zara. Zein barrera izan duzu?

Maila altua dagon jaialditan egon izan naiz, Azoreetan berriki. Jendeak harrera oso ona egin izan dit. Etxean zaudenean, ezagunen aurrean, gehiago kostatzen zaio jendeari zure lana baloratzea. Kanpoan izan naitzenean esperientzia oso positiboak izan dira ez bakarrik niretzat, baita bertako jendearentzat ere. Gustura joaten naiz kanpora. Egun, gehiago jotzen dut kanpoan hemen baino. Arraroa da kanpoan Gipuzkoan baino gehiago jotzea, Gipuzkoa baita trikitixaren kabia, az-

ken urteotan behinik behin. Ez dut arazorik kanpora ateratzeko, berandu baino lehen ni ikusteko aukera izango dutelako. Dudan pena bakarra da proiektu ezberdinetan parte hartu dudanez horiek jendeak ezin izan dituela ikusi: banda batekin, bakarlarri batekin... Nire lana alderdi bakar batean ikustea da tristeena.

Zer bildu duzu kanpoan ibili zarenean?

Esperientzia guztiak jaso ditut. Musika jotzera kanpora irten aurretik ere musika entzunez nahikoa bidaiatu nuen. Emari ona izan da hori. Jende horrek duen energia, jakituria jasotzen duzu. Milaka musikarik liluratzen naute eta hauek ezagutzeko aukera dudanean, esperientziak elkartrukatzeko eta mintzatzeko parada dudanean energia positibo izugarria ematen dit, proiektu berriei ekiteko gogo piztu.

Modu ezberdinean jorrazten da hemen trikitixa?

Denetarik dago. Herri bakoitzean bertako folklorea

NORTASUN AGIRIA

1965ean jaio zen Bilbon ● Jose Anjel Iribarren zale amorratua zen txikitan; hark sinatutako argazkia ilusioz gordetzen du ● Lagunei atzerritik musika-tresnak eskatzen dizkie bidaiatzera doazenean, berak ere oso maite du bidaiatzea ● «Infernuko auspoa» elkarteko zuzendari, lehendakari eta irakaslea da ● Zazpigarren diskoa kaleratu du asteon, «Leonen orroa» ● Espainiako Kultura Ministerioko Sari Nazionala jaso zuen 1990ean ● Sukaldaritza lasaitzeko terapiatzat du ● Txirrindularitza atsegin du





«Herri txikia gara eta huts handiena belaunaldi ezberdinen faltan dugu». (Arg.: G. Garaialde).

abaritzen da, hemen beharbada apur bat gehiago. Musikaren bilakaera gisa hartzen dute batzuek beren lana eta ohiturak berreskuratzen jarduten dute beste batzuek. Herri txikia gara eta hutsik handiena belaunaldi ezberdinen faltan dago. Poliki-poliki irekiz joan behar dugu, beste kulturetako jendearekin nahasi...

Mestizaia hori nola gauzatu?

Ez du zertan mestizaia izan behar. Agian beste kultura bateko ekarpena soilik egin nahi du norbaitek, hemengoarekin nahasi gabe. Horrek balekoa izan behar du.

Euskal kulturari zer ekarpen egin diezaioke bonek guztiak?

Euskal kulturaren parte oso-oso txikitat dut nire burua.

Niri dagokidanez asko lagundu dit eta nire proiektuetan erabakigarria izan da. Beharbada beste arlo batzuetan kalte gehiago eragin ote diote beste batzuei.

Hainbat jende ezagunekin lan egin duzu: Carlos Nuñez, La Musgaña, Julio Pereira, The Chieftains, Tomas San Miguel, Oskorri... Belaunaldi berriek hori jasoko al dute?

Oso zaila da. Hainbeste informazio dago, ezen dena jasotzea zaila izaten dela. Musikatik eta musikarako bizi naiz, egun guztia horretan dihardut eta, hala ere,

nahikoa ez den inpresioa izaten dut. Urte asko behar-ko dira informazio hori jasotzeko eta kulturak leku hori har dezan. Argentinako tangoetan garrantzia izan duen Hector Piazzolaren bizitzaren lana irakurtzen ari naiz eta duela hainbat urte hil zen arren gauza asko deskubritzen ari naiz.

Trikitixa beste edozein musika-tresnarekin elkartu daitekela frogatu duzu.

Oskorrik izan du errurik handiena. Barruak agintzen didana egiten dut. Oskorri izan da aitzindaria neurri

handi batean, bidea zabaldu duena, beste herrietako musika ahaztu gabe. Begiak eta belarriak adi izan behar dira. «Frogatu» hitzak beldur ematen dit. Sentitzen dudana egin izan dut beti, nire ukitu pertsonala erantsiz.

Euskal musikariak sarritan kanpora ateratzeko dauden zailtasunex kezkatzen dira. Zuk muga hori gaintitzea lortu duzu. Beharbada kantuetan hitz gutxi edukitzerakoan bizkuntza bigarren maila batean geratzen delako?

Kanpoko jendeari galdetu beharko litzaioke hori, gure buruari galdetu ordez. Mundua oso handia da eta aztertu beharko genuke euskaldunak nola iristen garen beste kulturetara, bes-


«Gure xume honetatik Leon Bilbao, Fasio eta Maurizia omendu ahal izateak nola eragingo dit ba dezepziorik?»

«Pazientziarik ez dudala onartzen dut; ondorioz, ongi pentsatutako politika batekin, estrategikoago batekin apurtzen dut»

te tokietara. Gure baitan ere arazo hori dago. Zenbat talde ezagutzen ditugu Kataluniakoak edo Galiziakoak edo beste toki baten batekoak? Adibide puntualak izaten dira. Beste kulturak ezagutzen ez ditugun heinean ezin dugu horrelako kexarik azaldu. Ateratzea ez da hain erraza.

Hitzak gutxi erabiltzen dituzu zure kantuetan. Hala ere, erabiltzeko orduan jende esanguratsuarengana jo izan duzu.

Abeslaria ez naizenez, hori egiteko eta prestatzeko orduan erraztasuna galtzen da. Instrumentista naizenez beste ikuspegi batekin egiten dut lan. Bertsolari eta poetengana jo izan dut: Xabier Amuriza, Jon Sarasua, Edorta Jimenez... Hauek jaialdietan ezagutu izan ditut, kultura mugimenduko kontuetan... eta harremanak eta ideiak sortzen dira. Horri dagokionez ezin dut gauza handiegirik esan, nik musikan jartzen ditudalako nire indar guztiak. Hitzak norbaiti eskatzen baldin badizkiot, pertsona horrengan konfiantza osoa dudalako da. Oskorriekin askotan lan egin izan duen jendea da. Horrek segurtasun nahikoa eman izan dit, bai euren lanari dagokionez eta eurei ere nire lana atsegin zaielako.



«Gaur egun gehiago jotzen dut kanpoan, atzerrian Euskal Herrian baino. Arraroko iruditzen zait kanpoan Gipuzkoan baino gehiago jotzea, Gipuzkoa baita trikitixaren kabia, azken urteotan behinik behin». (Argazkia: Garikoitz Garaialde).

Entzuleak erakartzea ez al da zailagoa bitzik gabeko musikarekin?

Kantu batek zer dioen ez ulertzea ez zait inporta. Musika instrumental asko entzuten dut. Lengoia bat bada hori. Musika instrumentala bokal eta silaba nahikoa badu. Batzuentzat, aldiz, hitzek musikalitatea badute. Musikari askoren ustez hitzek musikak baino garrantzi handiagoa dute.

Autodidakta izan zara ikasteko orduan. Hala ere, trikitixa irakasteko metodoa prestatu duzu. Zertan oinarritzen da?

Alde akademikoak ez ninduen erakartzen eta nire

metodoa osatu nuen. Ezkerreko eskuarekin ohiko hartzekin jo beharrean beste birekin jotzen dut. Eskuaren erabilera osoa egiten dut, ohituraz hala izan ez bada ere. Nik landutako eskalak, alderdi teknikoak... sartu ditut. Musikatik bizitzea zaila denez, metodo bat idatzi nuen klaseak emateko orduan nire ikasleek partiturak etxera eramane zitzaten. Argitaratu gabe dudaren, solfeo eta antzinako teknikak uztartzen dituen lehen metodoa da.

Trikitixak jai-giroko ukitua duela aipatzen da sarritan. Zure musikak ez al du bori galdu?

Edozein trikitixak dantzatzera eramaten zaitu. Badaude beste musika batzuk beste arlo batzuetara eramaten zaituztenak. Lanean denetarik egin dut. Berez lotsatia izateak eragina izango du horretan, nahiz eta nire burua alaitzat eduki. Sarritan bakarrik sentitu izan naiz trikitixaren munduan, inguruan ez nuelako inongo laguntzarik. Euskal Herria trikitixaren eskutik ezagutu dut. Orduan zaila zen euskal kultura ezagutzea, nahiz eta aitona eta amak panderoa jo. Euskara ez ezagutzea ere zailtasuna izan zen.

JON ABRIL

Museoaren itzal luze, eta zabala

GUGGENHEIM eraikina gustatzen zait, nire hainbat laguni erokeria -itsusi den aldetik- iruditzen zaien arren. Burdinazko egituratzar handiak badu erakargarritasunik. Noski, hau entzunda edonork ihardetsi dezake: «Beharko ederra egin, hainbat diru gastatu eta gero!». Ez du arrazoirik faltan izango. Eraikina gustu kontua izan ditekkeen legez, diruarena ez baita. Diru larregi gastatu den erabakitzeke orduan ez da gustuarena aplikatu beharreko neurria, kopuruarena baizik. Milioi bat pezeta (edo libera) eskakeria da mordoia di-tuenarentzat, urregorria ordea lau zero-tik gorako zifretan galzten denarentzat.

Eguneroko bizimoduan azken taldekoa izaki, antzeko sententzia daukat Guggenheimi buruz ere. Joan den astean aurkeztu dute EAEko erakundeek eta Guggenheim Foundation-ek museoaren plan operatiboa izenekoa, eta abagunea aproposa da soseki eta bestelakoei begi-

ratua emateko. EAEko biztanleen patri-ketatik aterako diren milaka milioiek zero asko dituzte eskuinaldean, zero gehiegi seguruenik, batik bat kontuan hartuta beste kultur ekimenentzat ezkerretara gelditzen direla zero horiexek. Guggenheimek hainbat urtez hipotekatu du kulturarentzako diru publikoa, eta sinatzen duen honen susmoa da gogotik igarri dela. Galdera da, beraz beharrezkoa ote zen. Eta ez zait zuzenena iruditzen munduko autorik on eta garestiena ekartzea beste arloak oraindik oinez edo oinutsik dabiltzanean. Areago, gure kasuan bezala, auto handi hori martxan jartzeko oinezko guztiak bultzaka leher-tu arte jarri behar izan ditugunean.

SOSEN ingurukoa da kezka hori, bai-na ez da bakarra. Argitu gabe daude Guggenheim-ek erakusketa eta batez ere erosketen alorrean erabiliko dituen irizpideak, eta batzorde eta azpibatzor-

deen labirintoan galduta gaudelarik, deus gutxi jakiten ahal da erosketa kri-terioez. Ezkutukeriatik ez da gauza one-girik atera ohi. Kriterioez ezer ez jakiteaz gain, erosketa horiek erabakitzeke Eus-kal Herrian izango dugun ahalmenaz ere ez dakigu-eta asko. Esan nahi baita, New Yorkeko lagunek ez ote dituzten perlak eurentzat gordeko, honerako kondarrak utziz. Inportantea da, kondarrak maila

Ez zait zuzenena iruditzen Guggenheimen moduan, munduko autorik on eta garestiena ekartzea beste arloak oraindik oinez edo oinutsik dabiltzanean

Euskal Herriko musika herri Katalanetan ezagutarazteko jaialdia antolatu dute «De bat a bat» aldizkariak eta Centre Artesa Tradicionarius kulturguneak. Argazkian ageri diren Tapia eta Leturia Bandekoekin ekin zitaion iragan ostegunean, hilak 14, jaialdiari. Abenduaren 19a bitarte Amaia Zubiria, Hiru Truku, Alboka eta Kepa Junkera izango dira Bartzelonan.



hautan oso garesti ordaintzen baitira. Guggenheim Museoa errealtatea izanik, lehenbailehen argitu beharreko puntu bat horixe baita. Lehen mordoa gastatu da, baina oraindik ere mordoa dago gastatzeko.

Hirugarren kezka bat ere badabil labirintoan Ariadnaren haririk gabe. Euskal (Herriko) arteari zein onura ekarriko dion, alegia. Ez dut uste museo handi batek artearen sorkuntza mailan derrigor ekarpen berezirik eginen duenik. Lore polita da, baina ez nahitaz ongarri lana egiten duena. Artea eta artistaren hedapenean, baina, funtsezkoa izan daiteke ekarpena. Museo horrek hemen egiten den arteari -ez soilik dinosauro kontsagratiuei- arretaz begiratuko balio, gaizterdi. Artistarentzat neurri bateko akutilu -eta sari- izan daiteke. Gaizki ulertutako kosmopolitismo baten izenean, ordea, hemengoari batere erreparatzen ez bazaio, orduan beteko da atzerriko arte kritikari hark esaten zuena. Hots, ederra sartu digute iparramerikarrek! Negozio biribila egin dutela gure lepotik. Eta aspektu hori ere oraindik ilun.

KOSMOPOLITISMO erratuaz mintzatu naiz, gai hauen aipua egiten denean ahotsa goratzen dutelako batzuek, hobe dena ekarri behar dela esanez kanpokoa izan arren. Dudarik ez. Eta hemengoari merezi ez duenik ez zaio eman behar. Baina kontua ez da partidaren tanto batzuetako abantaila ematea hemengoari, partida hemen jokatzeko delako kontsumo-produktu hutsa. «Onena, edonongoa izanda ere». Irizpide horrek, kulturaz ari garela, hizkuntzan izan du aplikaziorik, eta halaxe gaude. Alegia, ez dugula zillorrera begira egon behar; baina ezta ere besteen zillorrera begiratzeagatik gurea zornatuta dagoela konturatu ez. Eta Guggenheim argiegi gagozkiela, zornea ez dakit ba ote dagoen, ez baitugu ikusten ahal, hain baita zabala eta luzea itzala.

MIKEL ELORZA

Erein dutenak

LASTER hasiko zaigu Antoine d'Abbadie urtea: 1897an zendu baitzen euskaldun irlandes handia. Luzaz ahantzirik egon da halako garrantzia duen gizona. Ospakizunen antolatzen hasiak dira Euskal Herriak eta Frantziak dituzten erakunde sonatuen batzuk. Hargatik ordu deno aipatu gogo ditut ixilpean eta beti apalik lan egin dutenak, hauspetik atera zedin «Antonio Abadia» (berak batzutan horrela izenpetzen baitzuen).

Lehenik ohore hegoaldeari, hor berpizten hasi baitzen Abadiaren oroitzapena, udalek eta kultura taldeek ospatzen zituztela jaun horrekin eratutako euskal jaien eta lore jokoek mendeurrenak: Elizondo (79), Bera (80), Markina (83), Durango (86), Gernika (88), Iurreta (91). Euskaltzaindiak ere parte hartzen zuen mintzaldiz. Durangok antolatzen zuen literatura lehia-keta bat sail nagusienetan, «Abadia Urrüstoi» pastoralara ere sariskatuz antzerkian. Gero, 1991an, pastoral hori jokatu zuten Zuberoako ikastolek, Mauleko bi emanaldiez gainera, Donibane-Lohizunen, Arrasaten eta Oiartzunen.

BESTALDE Elhuyar Elkarteak 1993an zenbaki berezi bat, dossier gisan atera zuen, osoki euskaraz: «Antoine Abbadie, XIX. mendeko zientzialari eta euskaltzalea», hor agertzen da galdera bat: nolaz ahantzirik egon den horrelako gizon ospetsua. Entzuten duten jakintzaren adar askotan erauntsi zuela, eta beraz ezin zuela sail berezi eta mugatu bat bere izenaz merkatu. Kultura mailan halaber ahantzirik egon da, guziz iparraldean, frantses nazionalismo hertsien eta itsuen lerratu baitzen eskualde hau XX. mende hastapenetik: handiegia eta zabalegia zen Abadia, bere «Zazpiak Bat» lemarekin eta unibertsalismoarekin.



JEAN LOUIS DAVANT

IPARRALDEAREN ohorea salbatu dutenak dira Donibane-Lohizun eta Hendaia. Donibaneko Udalak bi aldiz ohoratu du Abadia: 1990ean beraz pastoralara gomitatuz, 1992an euskal kantu txapelketako finalaren kariatara, orduko auzapezaren ahoz Louis XIV plazan. Hendaian aldiz badago talde bat, «Les amis d'Abbadie» (Abadiaren adiskideak), bulta honetan lanean ari dena, bereziki eskola publikoak horko jauregian antolatzen dituen Ondarearen Klaseekin. Azpimarratzekoa da gainera Tellechea jaun astronomoaren adorea, obserbatorio-ikergia bizirik atxiki baitu jauregi horretan, Akademiako zuzendaritzari luzaz ihardokiz. Hargatik d'Abbadiez gehienik dakien gizona da nire ustez Hondarribiako Inigo Sagarzazu jauna, bere kaxa deraman azterketa lan erraldoiari esker. Eta nolaz ahantz orokorki Jon Bilbaoren «Enciclopedia» famatuak Abadiak dakarren informazio guziaz?

TXUTXU - MUTXUKA

NTM RAP TALDE FRANTZIARRA GILTZAPEAN


Frantziako NTM rap taldeko kideek kartzelatik pasa beharko dute euren kantuetako batean polizia iraintzeagatik. Hiru hilabeteko kartzela zigorra ezarri die Toulongo auzitegiak eta sei hilabetez ezingo dute zuzeneko emanaldirik eskaini. Iazko uztailean jazo ziren gertaera hauek, Seyne Sur Mer-en egindako kontzertu batean. Lau disko dituzte kalean, azkenarekin 200.000 kopia saldu zituzten. Kantuetako hitzengatik zigortutako lehen talde frantziarra da.

NOR - NORI - NOR K



ENKARNI GENUA

eta Manolo Gomezek osatzen duten Txotxongilo taldeak aipamen berezia jaso zuen Bilboko jaialdian. XV. Nazioarteko Txotxongiloen Jaialdiko antolatzaileek 25 urte hauetan Donostiako taldeak egindako lana saritu nahi izan zuten. Larunbatean, hilaren 16an, egindako ekitaldian aurtengo sariak ere banatu ziren. Haur Dramaturgian Alejandro Zacchignak izan zen garaile●



MARTIN UGALDE

bi omenaldi eskaini dizkiote aste berean. Azaroaren 11n 75 urte bete zituen idazle eta kazetariak Koruko Aizarna Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura arduraduna jaso zuen bere etxean urtebetetze egunean eta larunbatean, hilaren 16an, Jakin aldizkariak Hondarribiko jatetxe batean 60 lagun bildu zituen. «Euskaldunon Egunkaria-ko kontseilu editorialeko lehendakaria da egun Martin Ugalde●



LUIS MARI MUJIK

eraman ditu aurtengo Irun Hiria sariketako poesi eta eleberrari arloko sariak. «Bidean ihes...» izenburuko eleberririk eta «Nire soneto beroak» poema bildumak dira lizantzarrari sari bikoitza ekarri dizkietenak. Saiakera arloan, Jon Sudupe azkoitiarrak lehenengo saria eraman du «Muniberen ametsa. Euskaltasuna eta modernitate» lanarengatik. Bertan, Xabier Muniberen lana aztertu du●

 ■ JON BILBAO
FUNDAZIOA
LANEAN

Euskal Herriko egoera eta eza-gutza biltzea eta zabaltzea izango du helburu Jon Bilbao Fundazioak. Asteartean, azaroaren 12an aurkeztu zen Gasteizen Fundazioa eta euskal ikerkuntzen inguruko materiala biltzeaz gain diasporakoaz ere arduratuko da. Amale Bilbao, Jon Bilbao zenaren alaba, izango da Fundazioko lehendakaria. Urtean bi erakusketa egingo ditu Fundazioak, argazki eta dokumentu ezberdinez osatuak. Bilbaok bere heriotzarekin utzitako lanaren jarraipena egin nahi du Fundazioak. 1994an hil zen euskal bibliografian lan eskerga egin zuen Bilbao eta bera izan zen Renoko unibertsitateko Euskal gaietako ikasketen programa sortu zuena.

 ■ ARGAZKILARI
HANDIEN LANEN
ERAKUSKETA

Donostiako Koldo Mitxelena Kulturguneak eta Bartzelonako Arte Garaikideko Museoa (MACBA) elkarrekin egindako egitasmoan mundu osoko argazkilarik handien lanak bildu dituzte. Erakusketa urtarrilaren 7a arte egongo da zabalik Donostiako Koldo Mitxelenan. Rafael Tousen bildumako lanak dira guztiak eta bertan azken hamarkadetako argazki lan garrantzitsuenak bildu dira. Bertan daude, besteak beste, Fred Wilson, Roland Fischer, Andres Serrano, Laurie Simmons, Francesc Abad, Cindy Sherman, Floro Azqueta, Ana Busto, Paul Blanca edota Valentin Vallhonraten lanak.

Polonia eta Txotxongilo taldea omenduko dituzte Tolosako 14. Nazioarteko Jaialdian

Egunerokoa haritik zintzilik jartzen dutenen inbasioa

Azaroaren 23tik abenduaren lehenera bitarteko egunak txotxongiloenak dira Tolosan. Guztira 22 konpainien magiak, eta horietarik sei, Euskal Herriko taldeen ikuskizun berriak.



■ Kukubiltxo taldea izango da euskal ordezkarietako bat «Behin bazen» lanarekin.

INOIZ baino proposamen gehiago jaso dituzte aurten CITEko antolatzaileek: 342, lau kontinenteetako 24 herrialdeetatik iritsiak. Ikuskizun horien guztien artean 23 aukeratzeko, lanak izan dituzte Migel Arretxek eta beste kideek. Aurtengo edizioak, hamalau garrenak, betiko eskema jarraituko du: haurrei zuzendutako ema-

naldiak izango dira (ikaste-txeekin hitzartuz eta era guztietako ikusleari irekitako saioak) eta helduei eskainitako sail txiki bat. Lehenengo emanaldietan bereziki haurrentzat pentsatuak izateari lehentasuna eman diote antolatzaileek.

Urtero herrialde bat aukeratzeko da bere txotxongilo mugimendua sakonago ezagutarazteko. Aurten Polonia da herrialde hori. Lau talde etorriko dira beraien lanak azaltzera eta erakusketak ere jarriko da Aranzburu Jauregian. «Aukeraketa

ona egin dugu. Aniztasun handia dago lau ikuskizunetan: batean txotxongiloa ia anekdota butsa da, beste batean tradizionala, objektuekin egina dago birugarrena eta azkenik txotxongilo eta aktore artean erdibidean gelditzen den ikus-

EUSKAL TXOTXONGILOAK URTE OSOAN AUKERAN

TALDEA	KONTAKTUA	HIZKUNTZA	
GORAKADA, TEATRO DE TITERES	Julio Perugorrio	94-6816743 Durango	Euskaraz/Gaztelera
EL TENDERETE	Jose Ignacio Andino	94-4336427 Bilbo	Gaztelera
TAUPADA		943-740478 Elgoibar	Euskaraz
BEHI BI'S TXOTXONGILO TALDEA	Patricia Franco	943-390690 Donostia	Euskaraz
BABAGORRI	Eduarne Etxeberria	943-422165 Donostia	Euskaraz
PRO-ISMO CERO	Belen Vicente Arandia	945-140833 Armentia	Gaztelera
ANTZEKIZUNA TEATRO DE GUIÑOL	Antoine Bastero	94-4693925 Getxo	Euskaraz/Gaztelera
BIHAR TEATRO DE TITERES	Felipe Garduño	94-4959891 Sestao	Euskaraz/Gaztelera
COBAYA	Javier Perez	94-4462932 Bilbo	Euskaraz/Gaztelera
GARGANTUA	Corrado Masacci	94-6833146 Ondarru	Gaztelera
GOLOKA	J.A. Larreategi	94-4167552 Bilbo	Euskaraz
GRUPO EL DESVAN	Merche Fernandez	Alameda Urquijo 84 6. erdia Bilbo	
PANTA RHEI	Idoia Ayestaran	945-287078 Gasteiz	Euskaraz/Gaztelera
KEINU TALDEA	Xabier Goitia	945-288922 Gasteiz	Euskaraz
KIXKA DONOSTIAKO ANTZERKI TALDEA	Amaia Lumberras	943-702674 Donostia	Euskaraz
KUKUBILTZO	Josu Kamara Izagirre	94-4558366 Larrabetzu	Euskaraz
MASKARADA ANTZERKI TALDEA	Mikel Martinez	94-4467781 Bilbo	Euskaraz/Gaztelera
PAN Y CHOCOLATE	Charo Ramirez	945-142907 Gasteiz	Gaztelera
TXOTXONGILO TALDEA	Enkarni Genua	943-215869 Donostia	Euskaraz
TAUN TAUN	Iñaki	943-765837 Bergara	Euskaraz/Gaztelera
KALANDRAKA	Jose Ramon Martinez	948-812023 Zintroniko	Gaztelera
RETABLO DE FIGURILLAS	Juan Faro	948-259425 Barañain	Gaztelera
RIKI-RAKE TEATRO MOVIL	Santiago Mozo	948-827530 Tuter	Gaztelera
IRUÑA PEQUEÑO TEATRO	Carlos Salaberri	948-210937	Euskaraz/Gaztelera
SAMBHU TEATRO		948-600565 Iruztun	Euskaraz/Gaztelera
GUS MARIONETAS	Fernando Arregi	948-263412 Iruña	Euskaraz/Gaztelera
IKILMILIKLIK		948-599226 Zugarramurdi	Euskaraz/Gaztelera

kizumean *pimpin garaiki-deak erabiliz*, jakinarazi digu Arretzek.

Aurten bi erakusketa izango dira, Donostiako Txotxongilo taldearen zilarrezko eztaiak ere ospatzen baitira. Poloniar eskainitako erakusketan lau eszenografok egindako 20 ikuskizunetako eszenografia osoak ikus ahal izango dira. *«Eszenografiak pisu handia du Polonian. Arte dramatiko eskoletan arlo honek ospe handia dauka»*, esan digu antolatzaile nagusiak.

Enkarni Genua eta Manolo Gomezen taldeari eskainitako Kultur Etxeko erakusketan 25 urte hauetan egindako lan gehienak jasoko dira. Horrekin batera,

Jaialdian amatera emango dion saioan, «Printze txikia» taularatuko dute Migel Zebriok zuzentzen duen Et Incarnatus orkestraren zuzeneko musikaren laguntzaz. Obra hori aukeratu dute Jaialdi honetako lehen edizioako lehen emanaldia izan zelako. Talde honek harreman estua izan du hasieratik Jaialdiarekin.

22 konpainien 23 ikuskizun

EUSKAL HERRIKO sei konpainien erakusketekin batera, Polonia, Italia, Venezuelak, Argentina, Bulgaria, Erresuma Batua, Errusia, Andaluzia, Katalunia, Aragoa, Gaztela-Leon eta Euskal Herriatik etorritako 22

konpainien 23 ikuskizun izango dira egun hauetan Tolosan (italiarrek bi eskainitako baitituzte). Euskal taldeen presentzia handia da beste sorpresa bat. *«Jaialdiaren filosofia, bemen egiten diren obra guztiei parte hartzeko aukera ematea da, nazioarteko jaialdi batean erakutsi behar dutela iruditzen zaigulako»*.

Urte berean estreinatutako obrak izatea eskatzen zaie taldeei. Aurten sei konpainiak estreinatu dute obra eta Jaialdian izango dira.

Jaialdiaren nahia euskal taldeen lana nazioartean hedatzea da baina obrak estreinekoz erakutsiak behar dute izan

«Beste urteetan konpainia gutxiago izan dira arrazoi borrengatik», azaldu du Arretzek. Behi bi's taldeak «Mugamundu» eskainiko du, haurren pentsatuz, ekologia landuta osatutako ikuskizuna. Gorakadak bereziki haurrentzat pentsatutako «Pinotxo 2000» aurkeztuko du, modernitateari kontzesio batzuk eginez. Zaila da lan hau haurrentzat moldatzea, berez helduentzat egina delako.

Gus taldearen ikuskizuna ere oso txiki izan da, zabaltzen den ipuinliburu batean kokatuta. Kukubiltzok martxoan estreinatutako «Behin bazen» eramango du Tolosara, Azkueren hiru ipuinen oinarria hartuz eta teknika asko sartuz osatu dutena.

Panta Rheiren «Txitxili-purdi erregea» erritmo bizikoa da eta aktore eta pampinen nahasketa egiten du. Talde hau ezagunagoa da helduentzat prestatu izan dituzten lanengatik eta aktore lanetan aritzeagatik. Azkenik, Txotxongilo taldearen «Printze txikia» obrak ez du aurkezpenik behar, urte asko daramatzatelako ikuskizuna taularatzen.

Helduentzako emanaldiekin sail berezia osatu da eta antolatzaileek sail txiki hau ondo goxatu dute aurten. Lau ikuskizun izango dira: Venezuelako Naku taldearen esketx feministak eta autokritikoak mahai gainean; La Fanfarra kataluniarren ikuskizun tradizionala, baina bitarteko teknologikoetan ikertuz; Bulga-

riako Zwei Hnde-ren manipulazio eta magia handiko esketxak; eta Errusiako Te taldearen ikuskizun esperimentalak: itzalak ispiluen gainean islatuz eskainiko dute Tolosan oraindik ikusi ez den teknika berria.

Haurren txaloen bila

HAURREI begira prestatutako beste ikuskizun hauek ere badira: Italiako Buratto taldeak formato handiko bi ikuskizun ditu testurik gabe eta musikarekin: Rimsky-Korsakoven «Sherezade» eta «Fly buterfly», tximeleta batekin aldeak eginez pertsonaren metamorfosia azaltzen duen lana. Burgosko La Fantasiak argi beltzeko ikuskizun interesgarria erakutsiko du bokalen arteko borroka irudikatzen duen bitartean.

Binefarko Titiriteros tal-



Milaneko Teatro del Buratto taldeak bi ikuskizun ekarri ditu. Argazkian «Fly Butterfly»-ren erakusgarria.

dearen (bi urtetan izan dira Tolosan) «Cuento de la fabula de la raposa» eta Lleidakoko Centre Titellesen «Gulliver

Liliputen», batez ere haur txikientzat pentsatuta daude. Hitzik ez dute eta abesietez lagunduta datoz. Titiri-

tran andaluziarren «Cuarto de cuentos» lana eragin handikoa da.

Kataluniako Zootrop taldea ere ezaguna da Tolosan. Azkenik Argentina eta Erresuma Batuko bi talde ere etorriko dira. Azken honetan betiko estiloa lantzen da, horri ere eutsi egin behar zaiola pentsatzen baitute antolatzaileek.

Aipatu gabe ezin utzi Jaialdi honen barruan «Antzerkia eta haurra» gaitzat hartuta nazioarteko ihardunaldi zenbait izango direla Tolosan hilaren 28, 29 eta 30ean. Partaideen artean Euskal Herriko Jose Ignazio Ansorena eta Pilar Lopez izango dira. CITEko antolatzaileek egitarau aberatsa osatu dutela esan daiteke. Zuek disfrutatzeke izan dadila.

JOXEMI SAIZAR

AIZU! ren harpidedun izan nahi dut!

Izen abizenak.....

Helbidea.....

Tnoa..... P.K.....

Herria.....

Herrialdea.....

Bankua.....


Sukurtsal zk.....

Kontu zk.....

Urtebeteko harpidetza: Hego Euskal Herria eta Estua: 6.500 pta. Ipar Euskal Herria eta atzerria: 11.500 pta.

Diputazio kalea, 3 - 1.
40009 Bilbo - Tel. (94) 423 15 52

Azkenean, iraila! Laster helduko zaigu AIZU!



Haurren kantu eta jokoez 60 urtetan bildutakoa kaleratu du Pierre Duny-Petre garaztarrak

Euskal Herriaz ikertzea ihesbide izan zuen jandarma

Pierre Duny-Petrek «Xirula mirula» izenburupean kaleratu berri du haurren kantu eta jolasetan oinarritutako bilduma. Eusko Pressek argitaratua, etxean entzundakoak eta Garazin eremu-lan anitz baten ondorioz bildutako materiala eskaintzen du. Ipar Euskal Herrian euskara galtzen ari dela jabeturik, lekuko lana bete du lan honen bidez.


IDAZLE ezohikorik sekula izan bada, Pierre Duny-Petre garaztarraren kasua horietako bat da. Filosofia eta Letrak Baionan ikasi ostean, Bigarren Mundu Gerran, partisano aritu zen alemanen eta Petainen poliziaren kontra -bost urtetan preso hartua eta ihes eginga, bi urte eman zituen espetxean-. Bakea iritsi zutenean, berriz, bere helburua irakasle izatea bazen ere, jandarma izatera gogoz kontra behartua izanik, literatura sorkuntza hartu zuen ihesbidetzat.

Geroztik ia 40 urtetan aritu da langintza horretan eta, ihesbide pasio bihurturik, urte hauetan guztietan idaz-

ten aritu da. Marseillen, Clermont-Ferrand, Paben, Akizen... bizi ondoren, sorterrira itzuli eta hemen eman ditu erretiroko urteak.

1953. urtean hasi zen «Gure Herria» euskal aldizkarian lanak argitaratzen, «*kondairako istorioak frantsesez, euskal mitologiaren pasarteak bildu eta dotore eman ez; asko etxean ikasi edo bilduak ziren; poesiak, berriz, neuk sortuak, euskaraz, Euskal Herriaz, gerra garaiko gertakariez...*». Hainbat ezizenez argitaratzen zuen: Piarres Hegittoa, Manech, Doni-Petri...

1960. urtean «Basajauna euskal kondairetan» ikerlana



Bigarren Mundu Gerran, partisano aritu zen alemanen eta Petainen poliziaren kontra. (Arg.: G. Garaialde).

saritu zuen Baionako Euskal Erakustokiak; garai hartan kondairaz halako lanik ez

zen eta aintzindari izan zela esan liteke.

Urte luzetako herrimina

eramangarri egiteko, bere sorterriaz idazteaz gain, herri herri Euskal Herriarekin zerikusia zuten era guztietako objektuak biltzen aritu zen. Urte batzuk geroago beste agerkarietan ere lan-kidetzak argitaratzen hasi zen: «Principe de Viana», «Gure Almanaka», «Enbata», «Herria», «RSBAP»...

Lan horien guztiengatik, 1957. urtean, Euskaltzain urgazle izendatu zuten. Rene Lafon Bordeleko Unibertsitateko irakasle euskaltzalearen informantea eta laguna izaki, urteak eman zituen haren laguntzaile, «Lafonekin egindakoaz gain, ene lana beti bakarrik egin dut, eta batzuetan informante moduan Jeanne Idieder emazte iboldiarraren laguntza izan dut».

Horrela lan eginez osatu zen «Xirula mirula» bilduma liburua. Udazken honetan argitaratua bada ere, mende hasieran, egilearen haurtzaroan ahoz jasotako osagaiekin abiatu zen.

Donibane Garazi eta ingurukoak

PIERRE Duny-Petre biltzaile izan da, eremu-lanaren egile; Donibane Garazin bertan eta inguruko herrietan ahoz-ahoz bildu izan du liburua egiteko materiala eta lholdi ingurukoa ere bai, emazteari esker, «duela anitz urte hasi nintzen, obartzan bainintzen horrelako obitura zabarrak galtzen ari zirela oraingo euskaldunen artean, bai eta kantuekin batera erritmoa eramateko era eta jolasa; beti neraman papera ondoan, zaharrenei entzundakoak biltzeko».

Bestelako osagarriak ere baditu liburua: «Segidan bildu izan dut ele zahar eta



1957. urtean Euskaltzain urgazle izendatu zuten Duny-Petre. (Arg.: G. Garaialde).

irigarri zenbait jende belduen abotik, boriek ere jostatzeko baitziren, galarrotsak, toberak, sorgin istorioak -ugariak ziren azken hauek gure eskualdean-...».

Kantu eta jolas hauetarik zenbait beste herrialdeetan ezagunak dira (Lapurdin, Gipuzkoan...) baina bilduma Nafarroa Beherako leku batzuetan baizik ez da egin eta hango bertsiok ditu.

Bitxikeriarik ere topatu du bere bilketa-lanean, informante baten arabera, «Nafarroa Beherean ezagunak diren artzain jokoak, Ekialde Erdiko artzain jokoak bezalakoxeak dira; hots Palestina eta herrialde baietako obitura zahar boriek eta hemengoak berdinak dira, eta Jesukristoren hilbarrian ageri sinbologia gure artzain jokoena bezalakoa da».

Mikel Duvert Eusko Ikaskuntzako kide baionarrak lan hori aztertu eta Joxemiel Barandiaran antropologo

handiari helarazi zion. Bi ikerle hauen ustez, Pierreren lana biziki interesgarria zen eta liburu batean behar zela agerrarazi, horrelako lanik ez baitzen Ipar Euskal Herrian ezagutzen. Euskal Kultur Erakundeak ere interesgarritzat jo eta argitaratzea lortu dute, urtetako lan gaitzaren ondoren.

Bilduma honekin, Mikel Duvert saiatu zen Euskal Herrian zehar antzeko kanturik eta aurkitzen; hainbat lekutara galdetegi bat igorri zuen, baina ez zen arrastorik agertu. Beraz, pentsa liteke ezagunak ez direnak erabat galdurik daudela, «txipitan euskara bakarrik entzuten zen Donibane Garaziko karrketan baina belaunaldi batean galdu da; frantses hutsean mintzo da jendea. Nik bildu izan ez banitu egun galduak ziren denak, gaurko haurrei ez zaizkie erakusten».

Gaur egun Euskal Herriko Atlas Etnografikoaren ma-

teriala da bilduma honetan frantses itzulpena eta azalpen batekin ematen dena.

Liburuaren titulua bera bilduriko ume kantu batetik aterea da, xirula egin aurretiko kantu batena, alegia; xirula bera nola egin ere ematen da, «gaur egun neborak ez baitaki egiten».

Liburua amaitu zuenetik, hainbat materiale eskuratu eta bideraturik du bigarren liburuki bateko ardatza prestatzeko.

Gerra garaiko oroitzapenez liburu bat euskaraz idazteko ere eskatu diote, baina gaur ez du indarrik sentitzen horrelako proiektu bati ekiteko, «neketsua da 82 urteko batentzat, batez ere zenbait gairi buruz mintzatzea».

Baina Duny-Petrek gogoko lanarekin jarraitzen du, euskal kulturari buruzko lanak irakurri eta karrketan biltze-lanari lotua.

RITXI LIZARTZA

Bilboko laburmetraien jaialdia hilaren 25ean hasiko da aurtengo hautaketa pantailaratzen

Minutu gutxiko amets luzeak

Arriaga Antzokiak urtero antolatzen duen laburmetraia, dokumental eta animazio zinemamagintzaren jaialdiak hurrengo aste osoa emango du Bilbon pantaila handiari itsasita egotea gustuko dutenen artean. Fikzioa nagusitu da aurtengo lehiaketarako hautatu diren laburmetraia eta animaziozko filmeen artean. Europako hainbat herrialdetako zinema eskola ezagutzeko paradaz gain, EEBB, Zelanda Berria, Australia edota Mexikotik bidalitako lanak daude aukeran.

ZURI beltza da bereziki laburmetraia egileek egin duten hautaketa estetikoak. Grisak nagusitu, baina ez dira faltako koloredun animazioa, irudimenaren mugak gainditzeko fikzioa

edota errealitatea azaltzen duten dokumentalak. Australia, EEBB, Mexiko, Alemania, Belgika, Norvegia, Erresuma Batua edo Zelanda Berriko jatorria dute aurkeztu diren 584 filmeek.

Aurtengo zinemaldiaren zuzendaritzaren arabera, emakume zuzendarien agerrera dugu harrotzeko arrazoi. Izen ezezagunak izanik, zaila da ebaluaketa egokia egitea baina Jane Wilmot,

Shona Auerbach, Eva Weber, Anne Kjerti, Barbara Clifford, Isabelle Ingold, Elisa Batteis zuzendarien lanak jasoko dira aurtengo emanaldian. Aipagarria, Sandra Bullock («Speed» edota «La red») aktoreak izena dakarkiola zinemaldiari «Mailman» ekoizpenarekin.

Lehiaketatik kanpo, urteroko «Zinegintza eta Eskola» sailean izango dira jaialdi honetako euskarazko filme bakarra, Euskal Zinematekaren zenbait filmeren emanaldi, eta «3.000 guiones contra un virus» gaztetxoek egindako gidoiak eta frantziar errealizatzaileek zuzendutako filme bitxiak. Kubako San Antoniode los Baños telebista eta zinema eskolaren 10. urteurrena dela eta, handik iritsitako zenbait filme eta dokumental ere badira.

Dowskin ala gurpildun aulkiaren errege

KAMERA begien altueran jartzen duenean harrিতuta uzten gaitu Dowskinen. Warhollen itzulerarekin bat, honen laguna izandako Stephen Dowskinen 10 filme eta argazki erakusketa bat izango dira ikusgai aurtengo Bilboko laburmetraia jaialdian.

Emakumearen irudiek (Dowskinen erreginek) hartu dute erabat zinemagile eta artegizon honen lana. Txikitatik gur-

pildun aulki bati lotuta egonagatik, ez dio uko egin kamera atzean zinema egiteko aukerari.

Arte Ederretako zinematekan pantailaratuko diren Dowskinen 10 filmeek, emakumea, bizimina, harreman latzak eta kale giroa dute oinarri. Estatubatuarra jaiotzez baina aspalditik Londresen bizi den zuzendariari bere ikuspuntu berezia nabarmendu behar zaio ezau-

garri nagusi gisa: edozein harritzeko modukoa.

«Chinasee Xaker», emakumezkoen damajoko batean makilariaren aldaketak erakutsiz, «Alone» bakardadearen inguruko filmea, «Din Amo» emakume baten *striptease*ari buruzko hausnarketaz eta ildo bereko filmeak erakutsiko dira Bilbon, Dowskinen bilkaera ezagutzeko aukera bikain honetan.

Euskal egileen erdal filmeak


EUSKAL HERRIAN egindako filmeei dagokionez, 17 inguru aurkeztu eta 8 aukeratu dituzte lehiaketarako. Ramon Barea, Francisco Aseginolaza, Begoña Vicario, Iñaki Elizalde, Mikel Agirresarobe, Jose Luis Se-

rano, Jose Felix Collazos eta Antonio Garzon datoz Hego Euskal Herria ordezkatzuz baina filme bat bera ere ez da euskaraz. Euskal Mediak zein Euskal Herrian zinemagintzan egin diren hainbat saiok porrot eginik, EEBB, Madril eta Bartzelonara abiatu beharrean izaten dira zinemagile asko.

Horien artean dugu Jose Felix Collazos bilbotarra. El-karrizketarik gabeko laburmetraian, gauaren gatibuden neska baten istorioa kontatzen du, beti ere gauaren iluntasunean harri bitxiak aurki daitezkeela adieraziz. Jose Maria Lara, «Justino» eta «Años Oscuros» ekoiztu ditue.

n produktore bikaina, eta orain Kalparsororen azken lana «Pasajes» ekoizten ari dena, laburmetraien mundura jaitsi da «*laburmetraiak bartzan ari duen berezko autonomia dela eta*». Aktore zein produkzio taldea kooperatiba gisa antolatzen duen produktoreak, gauaren iluntasunaren barne munduan atzeko atetik sartu eta «*ispilua bestaldean agertzen diren mamuak zein itzalak irudiaren indarrarekin azaldu*» nahi izan ditu. Musikak indarra ematen dio lanari; Javier Asin musikagilearen laguntza jaso du.

Begoña Vicario lezamarak «Pregunta por mi» animazio lana egiteko Madrilgo Kultura Ministeriotik jaso du dirulaguntza. Ondarrarekin eta fotogramaz fotograma, marrazkiekin osatu du giza organu trafikoari buruzko



■ Dowskin zinemagile bitxiari eskainitako zikloa izango da, argazkian bere filme bateko fotograma.

laburmetraia. Alcalá de Henaresen egiten ari den Laburmetraien Jaialdian «Zureganako grina» euskarazko animazio filmea aurkeztu eta Bilbora, aldiz, «Pregunta por mi» gaztelarazko lana ekarri du. «*Logika oker baten ondorio da. Hasieran pentsatu nuen errazago izango zela dirulaguntza eskuratzea gaztelaraz egindako lanak aurkeztuta*», dio.

1994an «Gernika» laburmetraiarekin agertu zen Iñaki Elizalde, aurtan «Agurra» izeneko fikzio laburmetraia aurkeztuko du. Argentinatik itzultzen den euskal etorkin baten istorioa kontatzen du iruinseme honek. Gidoigintzan Patxi Labordarekin bat egin eta aktore nagusiaren paperak berak hartu du. Oroimena eta

herrimaren inguruan murgilduko gaitu bertako aktore zein gidoilariarekin lan egitea gustuko duen errealityzatzailak. «*Zinemagintza artea den ikuspuntutik, ezer kobratzen ez duten aktore eta zinemarekiko mirespena sentitzen duen jendearekin lan egin behar dugu; makina bat pertsona zoragarri aurkitzen baita industria interesetik kanpo*», azaldu digu. 16 minutu ditu ekainean Monpellierran estreinatuko zuten laburmetraia honek. Aitona eta ilobaren arteko lehen hartuemana «Aurreku» dantzaren bidez erakusten du bertan.

Zinema merkatura sartzeko aukera

BILBOKO Zine Jaialdiarekin bat datoz, telebista eta banatzaileen merkatura sartzeko modu bat den heinean. Laburmetraiak gero eta zaletu gehiago dituenek, iraupen laburreko filmek «*nobelak bezala ipuin*» ala «*kontaki-*

zun labur gisa uler daitezke». Baina denentzat «*espresio modu bat da, istorioa iraupen laburrekoa izanik elementu desberdinen konzentrazioa ageri da*» eta «*beharrezkoa da sinbologia berezia erabiltzea*».

Hiru zuzendari hauen esanetan, laburmetraia ez da heziketa ikastaroa eta euren lana defenditzen dute edozer gauzaren gainetik. Jose Felix Collazos laburmetraia berbalioa aipatu eta «*laburmetraia zein luze-metraiak tartekatzea zinegile askoren aukeraketa dela azaldu du*».

«*Mugitu egin behar duzu*», dio Iñaki Elizalde «*nazioarte mailan hainbat jaialditan sailatu beharra dago lanak oibartzuna izan dezan*». Aurtengo zinemaldiak Polanski, Wenders ala Truffau ezagunen laburmetraien saila estreinatzea horren adibide dugu.

MYRIAM GARTZIA

■ **Euskal Herriko 17 filme aurkeztu dira lehiaketara, zortzi aukeratu dituzte; baina 17etatik bat bera ere ez zen euskaraz**

ORAIN ARGIA REN HARPIDEDUN EGINEZ GERO



HAUETAKO
OPARIREN BAT
ESKURATUKO DUZU
DOHAINIK

ANTTON OLARIAGA

Alukiss



BASOTIK EDANEZ

IDAZLEEN PIZTIARIOA BARRUAN

erain

ALUKISS-BASOTIK EDANEZ

ANTTON OLARIAGA



POSTERRA (63 x 43): GERRA AURREAN ARGIA REN HARPIDEDUN
ZEN FAMILIA BAT SUPAZTER ONDOAN.

KIOSKOAN BAINO
%20a MERKEAGO

ARGIA REN HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ

Telefonoz ere egin dezakezu harpidetza zenbaki honetara deituz 9etatik 1era eta 3retatik Zetara

943 - 37 15 45

ANTTON OLARIAGAREN ALUKISS - BASOTIK EDANEZ

ARGIA REN POSTERRA

HARPIDETZA TXARTELA

☎ (943) 37 15 45

FAXA: (943) 36 10 48

IZENA _____	1. DEITURA _____								
2. DEITURA _____	TELF. _____								
HELBIDEA _____	POSTA KODEA _____								
HERRIA _____	HERRIALDEA _____								
BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____									
SUKURTSAL HELBIDEA _____	SUKURTSAL ZKIA. _____								
KONTU KORRONTEA/LIBRETA									
<table border="0" style="display: inline-table;"> <tr> <td>□ □ □ □ □</td> <td>□ □ □ □ □</td> <td>□ □</td> <td>□ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □</td> </tr> <tr> <td>Entitatea</td> <td>Sukurtsala</td> <td>K.D.</td> <td>Kontu zenbakia</td> </tr> </table>	□ □ □ □ □	□ □ □ □ □	□ □	□ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □	Entitatea	Sukurtsala	K.D.	Kontu zenbakia	
□ □ □ □ □	□ □ □ □ □	□ □	□ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □ □						
Entitatea	Sukurtsala	K.D.	Kontu zenbakia						

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne)
Hego Euskal Herria 12.100 pzta
Ipar Euskal Herria 685 libera
Espainia 12.100 pzta
Beste Atzerriak 15.750 pzta
Airez 24.850 pzta

ARGIA: Zirkuitu ibilbidea 15 LASARTE-ORIA 20160

Euskal Kulturaren URTEKARIA ere etxean jasoko duzu

L I B U R U A K

Pako Aristi
CASTLETOWN

erein

«CASTLETOWN»
PAKO ARISTI
EREIN, 109 or.

Iazko irailean prentsan irakurritako albiste batetik otu zitzaion urrestildar idazle gazte honi poesi liburu hau idaztea. Ekaitz baten ondorioz Castletown Irlandako itsas-herrian arrantzaleak bertan bildu eta han gertaturikoak dakartza. Castletownen sekula egon gabea dela aitortu arren, hango kaleak, tabernak, etxeak, bazterrak... bere baitan aurkitu dituela argitzen du idazleak. Bizitzak norberarekin zer egin duen ikusten jartzeko ausardia duten guztiei eskaini die Aristik liburua, «Castletown» barne egoera baten izena ere bai baita●

«APAIZ ZAHARRAREN
GITARRA»

JOAN MARI IRIGOIEN
ELKAR, 166 or.

Xaguxar sailean kaleratuta-

ko liburu honetako istorio gazi-gozaok 2.000 urte ataria du oinarri. Pertsonaia ugari azaltzen dira bertan: don Meliton apaiza, bere iloba Leontxi, Bideopit segurtasun indarren zainburua, Zitz eta Zotz epotxak, doña Kamila maistra, Faraonides arkitektoa, Baltasar magoa, oilo zuria, kangurua...

Guztiek elkarrekin umorezko eta fantasiako istorioa osatzen dute, maitasuna eta gorrotoa elkarbanaturik azalaraziz. «Apaiz zaharraren gitarra», hamabi urtetik aurrerakoei bideraturiko liburu dotorea, idazle dotorearen eskutik●

ITXARO BORDAREN BEGIETAN

Lost generation

JUAN Luis Zabalak, Susa argitaletxean agertu duen nobelako istorioa, urte zenbait beranduago akzioaren beheetarik iragan ondoan, Azkoitiko gaztetxearena da hain zuzen ere, istorioa itxuraz egiazkoa, ikaratia, belaunaldi 'galdu' batena, hots, leku eta mende frangotan gertatzen (ahal) dena. Horregatik zaiagu menturaz «Galdu arte» hau hurbil-hurbila, bere garagardo pinten edo kanuto munstroen urrina orrialdez orrialde ixurtzen zaigula, memoria hilak harrotzera.

Baby boom garaiko gazteen «erebeldiaren» kontakizuna da bestalde: opulentiaren umeak izanagatik, ausatzeko eta lanegiteko toki zein aukerarik edukiko ez duen jende saldo kidekoak dira, segurtantza izpirik gabekoak, ez sozial mailan, are gutiago sendimenduen sailean, liburuan azaltzen den drogaren gaia adibidez plazer bezainbat ihesbide zaiena.

Hargatik ororen gainetik Azkoitiko gaztetxearen istorioa da. Niko narratzaileak, hamar urte berantago, Atraskuko barraren gibeletik bitutia idazten duena, Xepe gazte


haserretua ostoetara ekarriz: Xeppek ez du amor eman nahi sekulan, nahiz eta ez dakien zehatz zergatik, gaztetxea ekimen espontaneoaz itzaitetik instituzio municipalaren esku jartzera heltzen den bitartean. Herrikoitasunaren eta instituzio gosetuen arteko borroka etengabea da, indarrak irensten zein xedeak zangopilatzen dituela.

Juan Luis Zabalaren obran, «Galdu arte» hau behialako «Kaka esplikatzeko» haren segidan datorkigu: mundu berdina, jendetsua, neketsua, dudatsua, ekitearen eta desageretzearen mehatxuzko leize hegian kulunkatzen dena. Eta 1984-1986 urte haiek! Debate multiformeak ostatu ilunetan squatt delakoak, GALen ekintza hiltzaileak... Garaiaren 'pilpira' desesperatua egokiro jaukitzen da liburu honen bihotzera. Niko narratzaileak, idatziz, zorra kitatzen dio, eta zorra kitatuz nolazpait kontzientziaren bakea lortzen duke.

«Galdu arte»-k orduko musika sinkopeatuen arra-entzuteko gutizia emaiten digu: hori asko da gure gustuko.



«GALDU ARTE»
JUAN LUIS ZABALA
SUSA



«TXOKOLOSKI. DIBERTIGARRIA DA TXAKURREN BIZITZA»

ANGELA SOMMER-BODENBURG
ITZUL.: EDURNE AZKUE
DESCLEE DE BROUWER,
172 or.

Psikologia, pedagogia eta soziologia ikasketak egin zituen idazle honek arrakasta handia izan zuen «Banpiro txikia» liburuekin. Sail honetan bere hiru liburu daude argitaraturik aurretik, Txokoloski eta Tobiren abenturak ere jasotzen dituen «Txokoloski. Urtebetetzeko txakur trufatzailea» tartean. Trufa festan bizi izandako pasadizuen berri ematen da liburu honetan. Hamar urtetik aurrerakoentzat ●

**«BIZITZA PUSKETAK»
JABIER MUGURUZA
EREIN, 108 or.**

Les Mecaniciens eta bakar-lari gisa kantugintzara lotu ondoren, haur literatura idazteari ekin zion Jabier Muguruzak orain bi urte. Oraingoan helduei zuzenduriko ipuin bilduma osatu du Irungo idazleak. Bederatzi ipuin dira orotara, zortzi pertsonaia ezberdinen bizi pusketak azaltzen dituztenak. Guztien bizitzak islatzeko moduko sentsibiltatea erakutsi du egileak liburu honetan. Islada taldea arduratu da diseinuaz eta ipuin bakoitzaren ilustrazioaz. Eguneroko bizitzatik aldendu gabe euskara goxoa irakurketan jarduteko pusketak samurrak ●




«EZPALA»

1996KO IRAILA, 82 or.
Ezker abertzalearen aldizkariaren bigarren alean sinadura zein gai ezberdin eta ugariak aurki daitezke. Euskal errepublika independenteaz zenbait gogoeta egiten ditu Iñaki Gil de Sanvicentek; Xabier Alegriak independentzia eta sozialismoaren aurrean ETaren ekarpenak bildu ditu eta Tomas Karrerak Floren Aoz elkarriketatu du, besteak beste. Ezker Abertzaleko gazte talde ezberdinen iritzia, Jakes Abeberriekin eta Rafa Diezekin elkarriketak, eta Jakes Bortairuren iritzia ere bildu dira. Euskal Herrian hitz egiten diren hiru hizkuntzetan aurki daitezke lan ezberdinak, euskara nagusi izanik ●

**«BIHOTZ AUSARTA»
JOANES URKIXO
ALFAGUARA-ZUBIA, 137 or.**

Txikitatik datorkio abentura zaletasuna Joanek Urkixori. Makina bat kontu irakurri ondoren eta eukal filologia ikasketak egin ostean idazteari ekin zion. Ume eta gaztetxoentzat idatzi du batetik bat. «Bihotz ausarta» honetan, aitaren errietak ohitura bihurtzen zaizkion Urtziren berri dakarki. Azterketak gaizki ateratzen zaizkio, maite duen neskek ez dio jaramonik egiten... zailtasun guztien aurrean bihotz ausarta erakutsi behar izango du. Hamabi urtetik aurrerakoei bideratuta dago liburua ●



Hontza
LIBURUDENDA

Okendo kalea, 4
Tel. 42 82 89 Faxa: 43 12 56
20 004 DONOSTIA



«MATERIALAK»
MIKE ETA MARIA
GORDON
IBAIZABAL, 32 or.

Marrazki alaiez lagundurik irakurtzen hasi berrientzat ipuin dotorea da honakoa. Materialen inguruan informazio polita eskaintzen dio haurrari: burdina, egurra, ehunak, gasak... material ezberdinak beren ezaugarriekin eta adibideekin ikusi eta ikasiko du txikitxoak, baita material horiek egoera ezberdinetan hartzen duten itxura ere ●

Trikitixa era zaharrean

BEJONDEIELA! Hamabost urte hauetan sumatu ez duen hegoaizeren batek jota edo, Juanito Maltzetak bigarren diskoa grabatzea erabaki du.

Denok gogoratuko duzue 1981ean IZ etxarekin grabatutako disko hura, non Mamenen ahots bihurri eta panderoak Juanitoren trikiti alaiari laguntzen zioten. Oraingo honetan, ordea, Mari Karmen alabak soinuarekin lagundu dio aitari, kantu batzuetan oso gauza politak eginez. Panderoaz eta aho-tsaz ere aritu da Mamen, eta kantuan laguntzen Eskoli Zabalo. Irrintzilaria Nerea Ugarte izan da. Kantu guztiak Juanitok berak eginak dira, bat izan ezik, alabaren laguntzarekin egindakoa, hain zuzen.

Disko hau, dudarik gabe, zapore zaharrekoa da. Juanito


to Maltzetak eskuak libre izan ditu kantuak egiterakoan, eta era zaharreko doinu beteta topatu dugu disko hau. Gogoratu behar da, Juanito Maltzeta Elgetaren eskola zaharreko trikitalaria dugula, eta bere garaikideek izan duten magia hori gordetzen duen bakarrenetarikoa. Gauzak asko aldatu dira lehen diskotik bigarrenean: bals eta «agarrauak», lehenengoan ez bezala, ugariak dira (gehiegi nire gustorako), garai bateko erromerietan jotzen ziren horietakoak: balsak, mazurkak, txotisak... diskoa entzuterakoan zeozer faltan bota dut. Behar bada fandango eta arip-arin gehiago, behar bada nerbio puska bat kantatzerako orduan... Akaso lehenengo diskoaren alaitasuna galdu da bidean, baina bai Juanitok, bai alabak, hamabost



«EMAN NERI ESKUA»
MALTZETA AITA-ALABAK
ELKAR

urte gehiago dituzte, eta ez da erraza, ez, disko haren naturaltasuna gordetzea.

Trikitixa zahararen zaleentzako egindako diskoa duzue aurrean. Molde zaharreko hamazazpi kantu, egur labean eginak, lasai-lasai eta bere denbora hartuta... behar zuen moduan. Goza ezazue.



«ITXOITEN ETA IKUSTEN»
ILUSIO FALTSUAK
IZ

Ez dira ugariak pop-rockean murgiltzen diren taldeak Euskal Herrian. Euskaraz kantatzen dutenen artean dago Errenteriako hau, Ilu-

sio Faltsuak. Haurraren begirada inuzentea azaltzen da aurreko aldean eta esperientzia duen adinekoa atzekoan. Hamabi kantu bildu dituzte Jon Minerren ekoizpenaz lagunduta. Lau kidek osatzen dute taldea: Joxe Rikardo Goenaga gita-

rra, ahotsa eta armonikan; Juan Luis Asensio baxuan; Inigo Amoriza baterian eta Juan Karlos Astinza gitarra eta pianoan. Kantu guztietan bai musika eta baita hitzak ere taldeko kideek egin dituzte. Inori ilusio faltsurik sortuko ez dion taldea ●

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación



«Euskal Herritik»eko lan-taldeak 150 dokumental grabatu ditu dagoeneko.

Euskal kulturaren 150 altxor

Euskal Herritik» dokumental sortaren atzean 4.000 folio inguru, hamaika lan ordu eta beste hainbeste kilometro gordetzen dira. Denboraldi honetan ehun eta berrogeita hamar dokumentalen kopurua gainditzen duten arren, atal esanguratsu horretarako ez dute ezer berezirik prestatu. Koldo San Sebastian, saioaren zuzendariak eta arduradunak, lau urtez aritu den taldearen lana goraiatzeko du.

«EUSKAL Herritik» dokumental sorta hauen atzean lau urteko talde-lana eta Euskal Herriari buruzko gai anitz ezkututzen dira. Dokumental hauek Euskal Telebistako beste programe-tatik bereizi egiten da. Saioaren zuzendariak, Koldo San Sebastianek, azaltzen du horren zergatia: «Txapeladun jendea gara, baina aldi berean, ordenadorea- ren aurrean lan egiteko gai

gara. Batak ez du bestea kentzen, behar bada, bori da saioa berezia egiten duena».

Saioak jarraitzaile ugari ditu, «batetikjendeak horrelako saioak errezelarik gabe begiratzeko dituelako eta bestetik, jendea lantzen ditugun gaietan interesatua dagoelako», dio zuzendariak.

Orduerdiko dokumental- lak lan prozesu luzea eska-

tzen du. Lehen pausoa aukeratutako gaiaren ideia orokorra planteatu eta horren inguruan zein pertsonaia egon daitezkeen aztertzea da. Ondoren aurregidoi bat egiten du zuzendariak, «gidoiaren produkzioan problemak izaten dira - dio Koldok - normalean istorio bat kontatzen da, guk hortik laupabost istorio kontatzen ditugu. Honek saioa entretenigarriagoa egiten du eta

jende gehiagok ikus dezan lortzen degu». Gidoia eginda izan ondoren, kontaktuak lortu, eta grabaketa egin ohi da.

«Telebista txikian lan egiten dugu eta bitarteko oso gutxiarekin -bi baldintza hauek aipatzen ditu Koldo San Sebastianek- borregatik talde lana oso garrantzitsua da. Hasierako lan-taldea ari da oraindik bemen lan da lan».

Dokumental sorta hau egiteak hainbat bitxikeritaz jabetzeko aukera eman diote «Euskal Herritik» egiten dutenei: «Zenbait gida turistikotan aspaldi desagertutako gauzak oraindik badi-relakoan daude, adibidez, antzina liboa egiten ziren lekuak», honetaz gain, bitxikeritik gutxi duen gauza ilunagoaz ere jabetu dira, «garbi dagoena da kultura bat desagertzen ari dela, euskal kultura, alegia».

Dokumental hauetatik beste bi saio jaio dira: «Batetik, 'Amama sukaldari'». Zenbait programetan plater tipikoak sartzen genituen eta konturatu ginen ez dutela zerikusirik Subijanak egiten duenarekin. Bestetik, 'Herri musika sorta' sortu dugu, erromantzeak edota dantzak erakusten zizkiguten eta hor beste aukera bat genuela konturatu ginen».

Euskal Herriari buruzko 150 dokumental baino gehiago egitea posible da Koldoren hitzetan: «Euskal Herria nabiko txikia da, baina aldi berean oso handia, beti dago zerbait kontatzeko -gainera- gaiak dauden bitartean eta ETBk nahi izanez gero, hor jarraituko dugu».

ITZIAR CARRASCO

Jasone Gezuraga: «Epaile izatea zein zaila den konturatzen zara orain»

Larrabetzuar hau kasualitatez agertu omen zen «Txiskolan», bere ikasle batek huts egin eta bera joan behar lehiaketara. Kasualitate haren ondorioz azkenean Mallorcarako bidaia irabazi zuen, baita egun duen «Barretzaindia»ko epaile postua ere.

Epaitua izatetik epaile izatera, zein da alde?

Orain konturatzen zara zein zaila den epaile izatea. Zuk egindako lana epaitzea zein gogorra izan behar zen beste batzuentzat, eta partaide bezala egin zenituen akatsak zeintzuk ziren ere orain ohartzen zara.

Horrek bigunagoa izatea eragiten al dizu?

Agian inoiz modu horretara

epaitua sentitu ez denak, ez du jakingo momentu horretan pertsona hori zein egoratan dagoen. Lehiakideak txisteak kontatzen ari diren momentuan, nire buruari esaten diot: «Zein txarto egon behar diren pasatzen hauek momentu honetan». Gaia oso landua dutela ikusten duzu, eta horrelakoetan nik uste apur bat bigunagoa izateko pentsamendua izateko

ten dudala.

Bizkaitarra eta emakumea zara, hori da bain justu «Txiskola»ko partaideen artean butsunehandienetakoa.

Hutsune hori edozein arlotan betetzeko dago, ez da Bizkaiko kontua bakarrik, Gipuzkoakoak izan ezik beste probintziako taldeak ere gutxi dira. Gipuzkoan partehartzaileak lortzeko erraztasun handiagoa izan da, jendeak programagaz inplikazioa duela ikusten da, Bizkaitik edo beste herrialde batzutatik baino gehiago. Arlo hori garatu behar dela uste dut, emakumeena ere bai. Mendaroko emakume talde bat plazaratu da, nik uste saiakera bat egin behar dela, eta kontziente izan behar da gauza horietan ere berdinak garela.

Bizkaitik agertu izan direnetako batzuk batuaz aritu dira.

Hori gai askotan izan dela uste dut, bertsolaritzan edo beste gai batzutan ere gure hizkeraz aritzeko konplexua eduki dugu. «Txiskola»ra joan ginen taldea euskaldun zaharrak ginen, eta ez zitzaigun asko kostatu bertara joan eta bizkaieraz egitea. Baina Bizkaiko beste talde batzuk batuaz aritu dira.



«Bigunagoa izateko pentsamendua izaten dut». (Arg: Leire Arzuaga)

ARRITXU ZELAIA

TXORI BATEK

ESAN DIGU

Sabino Arana Fundazioa eta «Quién sabe dónde»

TVE eta Sabino Arana Fundazioak, «Quién sabe dónde» programaren bitartez, Espainiako Gerran heriotzera zigortuak izan zirenen elkartzea bideratu dute.

Hau guztia «Espetxean» aldizkariaren 60. urteurrenaren inguruko ekitaldien barne da. «Espetxean» aldizkaria Espainiako Gerran kartzela frankistetan ziren euskal presoek kaleratzen zuten. 1937 eta 1942a bitartean argitaratu zen aldizkariaren 12 zenbaki gordetzen da. Bilboko Larrinaga, Santoñako El Dueso eta Burgosko Prision Centraleko presoek egin zuten «Espetxean».

Paco Lobatonen saiokoak Euskal Herriko hainbat tokitan egonak dira dagoneko.

«Euskaraokea»ko bi disko Durangoko Azokarako

Arratsaldero Euskal Telebistan izan ohi den «Euskaraokea» saioak bi disko plazaratuko ditu laister. Ixiar Oreja eta Iñaki Urdanpilletak aurkeztu duten saioko disko bat IZ etxean eta beste Elkarren grabaturikoa izango dira.

■ «Osasuna eta burokrazia» telesaila ostegunean

Ostegun arratsaldean «Osasuna eta burokrazia» telesaila «Boxeoa» atala eskainiko dute. Telesailean agertzen denez, Saint James ospitalak gastuak murriztea erabaki du. Bertako administrariak ez du ulertzen ordea, ospitalaren egoera ekonomiko larria hobetzeko hartu dituen neurriek sortzen dituzten iskanbilien zergaitia. Azaroaren 21ean 15:10ean.

■ Primi Errostarbe eta Rufino Arrolaren Gernikako omenaldia

Gernikan urriaren 27an Primi Erostarbe eta Rufino Arrola urteetan plazarik plaza aritu ziren trikitalariei eskaini zioten omenaldia emango dute Euskal Telebistan. Orduan grabaturikoa azaroaren 22an gaueko 22:05ean eskainiko dute.



■ Barcelona taldea San Mamesen larunbatean

Larunbatero Euskal Telebistan eskaini ohi duten Espainiako Ligako lehen mailako partiduan euskal talde baten txanda izango da. Azaroaren 23an Athletic Bilbao-Barcelona norgehiagoka eskainiko dute 20:20ean. 17:25ean emango dute bigarren mailako Alaves-Merida partidua.



■ Bartolo Aierbe «Berriketa gutxi»n

Asteazkenero «Berriketa gutxi» saioan, elkarrizketatu eta elkarrizketatzailea aldatu ohi da. Aste honetan elkarrizketatua Bartolo Aierbe izango da. Bartolo Aierbek 90 urte dituela kaleratu du Auspoa argitaletxearekin «Zarrak berrituz» bigarren liburua. Gaintzan jaiotako gizon honek, garai bateko lanbideak, ohiturak, gertarak eta bizimodua bildu du. Bartolo Aierbe elkarrizketatuko duena Nikolas Aldai izango da. Nikolas Aldai Euskadi Irratiko esataria da. «Eta hitza jolas bihurtu zen»

deritzon bertso irratsaioko zuzendaria da. Azaroaren 27an, gaueko 23:55ean eskainiko dute. Ostiral goizean ere eskaintzen dute «Berriketa gutxi» saioa, 9:55ean. Baina hau aurreko astekoaren errepikapena izan ohi da, kasu honetan Euskadi Irratiko Susana Mujikak, Ixiar Oreja kantari eta telebistatko aurkezlea elkarrizketatu zueneko eskainiko dute.



Z A P P I N G

Julian Eizagirre autobus gidaria Antxon Etxeberriaren «Herriko semeak» saioan

«HERRIKO semeak» deritzon programa eskainiko dute asteazkenean Zarauzko Telebistan. Aste honetan Antxon Etxeberriak Julian Eizagirre autobus gidaria izango du gonbidatua. Julian Eizagirre azken 34 urte hauetan ari da gidari lanean, berea izan zen Zarauzko lehen autobusa. Gidari honen esperientzia, ezagutu dituen aldaketak, lehenagoko urbano zaharrak nolakoak ziren, eta gaur egungo egoera emango dute ezagutara besteak beste.

Azaroaren 21ean, ostegunean, hiesaren inguruko erreportaia berezia eskainiko dute. Abenduaren 1ean hiesaren nazioarteko eguna izango

denez, Juan Mari Zubiaurrek gai honetan aditua den Daniel Zulaika elkarrizketatuko du. Herritarren kezak, ihesaren aurkako sendagaiak lortzen dituzten emaitzak, eta etorkizunean jarraituko diren bideak izango dituzte besteak beste Zubiaurrek eta Zulaikak mintzagai Zarauzko Telebistan.

Ostiralero legez, «Gaur ostirala» albistegiaren txanda izango da azaroaren 22an. Saioan Ivan Bengoetxeak Zarauzko berriak, agenda eta erreportaiak aurkeztuko ditu. Albistegi hau ostiralean ikusteko paradarik ez dutenek, larunbatean, azaroaren 23an eguerdiko 13:15ean eta arra-

tsaldeko 19:15ean ikus dezakete «Gaur ostirala» saioaren errepikapena.

«Gaur ostirala» aurkezten duen berak, Ivan Bengoetxeak astelehenetik osteguna bitartean «Azken ordua» izeneko albistegia aurkeztu ohi du.

Manuel Alvarez Pamplona Televisioko zuzendari berria

Manuel Alvarez kazetari iruindarra da Pamplona Televisioko zuzendari berria. Manuel Alvarezek Gerardo Iratxetaren lekua hartu du, azken honek Radio Top 40-ko eta Iruñeko telebistaren zuzendaritza bateratu ditu gaur egun arte.

Manuel Alvarez Europa Presseko argitalpen sailean aritu zen lanean, eta Pamplona Televisioko gidaritza hartu aurrez Tentempie deritzon agentzian jardun zen lanean.

Segura Irratian Beasaingo «Aigeala»koak

Duela hiru urte Beasainen jaio zen «Aigeala» euskara taldeko partaideek, aurreko txandan bezala, izen bera daraman irratsaioa Segura Irratian emititzen dute. Larunbatero lau orduz anitz jendek hartzen du parte irratsaioan.

«AIGEALA» euskara taldeko zazpi bat lagunek izen bera duen irratsaioa egiten dute Segura Irratian larunbatero, goizeko 9:00etatik ordu bat bitartean.

«Txiki txoko» saioak ematen dio hasiera irratsaioari Patxi Saezek, «Aigeala» taldearen partaideak eta irratsaioaren esatariak kontatu digunez: «Goierriko zenbait ikastetxeetan irrati tailerrak egiten dituztenez, hauetaz baliatuz, umeen lan taldeak antolatu dira

eta hauek aukeratutako gaiak lantzen dituzte. Gero, prestatzen duten bori irratitzeko aukera ematen diegu».

Bigarren orduan «Albisteen begitik» hasten da. Bertan, astean zehar gertatu diren berri garrantzitsuei errepasoa egiteaz gain, zenbait kolaboratzeileek analisisa egiten dute.

«Alkatizketa»rekin hasiera ematen diogu hirugarren orduari. Goierriko alkateak jartzen ditugu tertulian



Patxi Saezek «Aigeala» euskara taldeko lagunekin irratsaioan Beasaingo gaiak lantzen dituzte. (Arg: Garikoitz Garaialde)

-berrikuntzak ere aipatu ditu Patxi- *aurten gazte tertulia egiteko asmoa dugu».*

Loinaz, Beasaingo patroia Nagasakin hil zeneko 500 urteurrena beteko da, *«horren inguruan bainbat ekitaldi prestatze lanean ari dira. Beraz, antolatzeaile batekin elkarrizketa izango dugu»,* azaldu du Patxi.

Ordua bukatzeko Tolosako feriarekin konektatzen dute eta azken orduan eguraldiaren berri jakiteko Goierriko ainbat lekutan den jendearekin harremanetan jartzen dira eta «Tripontzi» lehiaketarekin amaitzen dute irratsaioa.

ITZIAR CARRASCO

B A G A K

■ Eskolarteko lehiaketa Loiola Irratian

Urtero Azpeitian izan ohi den Euskal Antzerki Topaketaren inguruan irrati lehiaketa antolatu ohi da. Loiola Irratian eskaintzen duten lehiaketa honetan Antzerki Topaketetan omendua izango dena gaitzat hartuta eginiko galderak erantzun behar izaten dituzte. Aurten omendua Xabier Lizardi izango da.

Lehiaketan parte hartuko dutenek «Laino eta Izar», «Bi ahizpak» eta «Ezkondu ezin ziteken mutila» lanen inguruko galderak erantzun behar dituzte. Bi mailatan lehiatuko da, DBH bata eta BBBn bestea. Orotara DBHko 22 ikastetxe eta


BBBko 10 ikastetxetako ikasleak arituko dira lehian.

Abenduaren 13an 16:00etatik 18:00etara bitartean eskainiko dute Herri Irratitik lehiaketaren finala. Egun horretan garaile direnei, eta parte hartu dutenei abenduaren 21ean, Santo Tomas egunean banatuko dizkiete sariak.

■ Ttan-ttakun Irratia martxan da berriro

Hilabete batzuetako etengabeko ondoren berriro lanean hasi dira Egiako Ttan-ttakun Irratian. Oraingoan ordu gehiago izango dira antenan, eguerdian, eta gauetako 20:00etatik aurrera eskainiko dira irratsaioak, eta tartean musika izango da nagusi.

A U R P E G I A



Manex Etxart (Irulegi Irratia)

Manex duela urtebete hasi zen musika saioa aurkezten Donibane Garaziko irratian: «*Ostiral arratsaldean egiten duan saioa, musikaren ingurukoa da eta gazteei zuzendua dago batez*

ere. «Musikaren iraultza» deitzen da saioa eta elkarrizketa bidez Frantziako eta Euskal Herriko musika-taldeen aurkezpena eta aldi berean promozioa egiten ditub».

Halaber, atzerriko musika ere aztertu ohi du, «*horiek ez baitira entzuten egunero irradian».* Hilean behin beste lankide batekin batera gazte problematikari buruzko mahai-inguru bat egin ohi du.

«*Aurrerantzean arratsaldeko animazio saioak egiten jarraituko nuke: musika aurkezten jarraitu, jendearekin hitz egin...»*

Etxean ere bada produktu toxikorik

UMEAREN eboluzio edo garapenean, bada fase bat harrapatzen duen guztia ahora eramaten duena. Eta noski, etxean bazterren batean gordeta, edota sarritan agian batere gorde gabe, bista-bistan dauden produktu asko eta asko toxikoak izan ohi dira (lixiba, esate baterako). Zorionez, beste hainbat ez dira hain arrisksuak, eta umeak ahora eramanda ere, haurraren eragin ditzaketen kalteak ez dira lixibak eragin ditzakeenak bezain handiak izango.

Hala, ikusi eta ezagutu ditzagun aipatu produktu hauen artean zein diren usuenetakoak:

✓ Kosmetikoak: edertasunerako produktuak, begi nahiz ezpainetarako lapitzak, koloreteak, kremak eta esne garbitzaileak, begietarako itzalak, hortzetarako pasta arruntak... Normalean, ez dira oso toxikoak izaten. Gainera, kasik ezinezkoa da ume batek produktu hauetako baten kantitate arrisksu bat hartzeko aukera edukitzea.

✓ Perfumeak: koloniak, bizarra egin ondorengo lozioak eta abar. Aurrekoak baino produktu toxikoagoak dira. Baina probatuz gero ahoa erre egiten dutenez, umeak asko jota trago bakarra emango dio hauetako bati, eta kantitate horretan ez dira kaltegarriak izaten.

✓ Polietileno hedatuzko enbalajeak: umeak puska handi samar bat irentsi eta zintzurrestean geratzen bazaio, ez atzera ez aurrera, ondorio larriak ekar ditzake, itobehararen ondorioz hain zuzen. Baina hori gertatzeko kasualitate handia beharko litzateke.

✓ Etxeko landareek toxiko indartsuak eduki ditzakete, baita pozoia ere. Beraz, umearen eskueran utzi aurretik, komenigarria da oso arrisku posible horiez galdetzea. Hala ere, etxeko landare edo lore arruntak (larrosak, biuletak, bitxiloreak eta abar) zupatu edo dastatzen baditu, ez dago arriskurik, kaltegabeak dira-eta ■

Umearen eboluzioan, bada fase bat harrapatzen duen guztia ahora eramaten duena.

Eta noski, etxeko bazterren batean bista-bistan dauden produktu asko eta asko toxikoak izan ohi dira



JABIER AGIRRE

L A N D A R E A K

Orbela

UDAZKENA orbelaren sasoi, orbelaren garaia da. Naturazalea den ororentzako sasoi berezia da oso berau. Basoan sartu eta hostaje harro hezea hankapean...

Hiritarrentzat, ordea, zikinkeria espaloietan, zaborra bazterretan, zatar-tutako kaleak eta zapata gorri eta antzekoen puntta zorrotzetako betun disdiratsua ajatu eta lohitzea besterik ez ditu eragiten orbelak. Hori besterik ez. Hostoa lurreratu ordurako, zarama nazkagarria bailitzan begibistatik ahalik eta azkarren ezkutatzeko, kale-garbitzaileak zain egon beharra dauka. Alkatearen zur tropikalezko mahai zabalaren gainean berehala da kexa bestela.

Orbela den paotxa eta!

Orbela naturaren amaigabeko birziklapen egoskorren adibide garbia da. Hondakina, bizitzaren galbae estuak urtero bazterten duen kondarra, ongari preziatuena bilaka daitekeen isla.

Modu egokian pilatu, simaur edo pixa pixka bat nahastu eta tarteka irauli bat emanez gero, hilabete gutxitan ongarririk finena bihurtua da orbela. Badira, hala eta guztiz ere, usteldu eta lur bilakatzeari gogor aurre egiten dioten hostoak orbelean. Platanoarenak esate baterako. Ondorengoen jatena izateko usteldu eta deuseztatzea eraman edo jasan ezin duten hostoak.



Platanoa ere hiritarra da, ordea, Euskal Herrian; basoan ez duzu, ez, aurkituko ■

JAKOBA ERREKONDO

Kakoeta: Zuberoko arroil ikusgarriena Pirinioen azpian

Zuberoko hegoaldean (Santa Grazi eta Larrañe) daude Euskal Herri osoko arroil eta mendi-zintzur ikusgarrienak. Kakoeta arroilak 250 metroko horma bertikalak ditu eta zenbait unetan, hiru metro eskaseko zabalera baino ez du. 1992ko uholdeek arroila sortu zuen erreka zeharkatzeko pasabideak deuseztu zituztenez, oinetako egokiak eramatea beharrezkoa da.


ZUBEROAKO goi lurretan, Lakora eta Otsogorriagañe mendietatik jaisten diren erreka biziek mendi-zintzur ikusgarriak sortu dituzte gizaldietan zehar. Kakoetakoa Santa Grazi herritik zortzi bat kilometrora dago, aparkaleku baten ondoan. Arroila ikusgarria da oso; izan ere, bailara hertsu batean egoteak ikusgarritasun handiagoa ematen baitio.

Arroilaren sarrera zabala da, baina segituan hasten da estutzen. 1992. urtera arte erreka zeharkatzeko hainbat zubi eta pasabide zeuden, baina urte hartako uholdeek eta elur-urtzeak aurretik eraman zituzten guztiak. Ondorioz, hankak erreka uretan sartu beharko ditugu zenbaitetan. Hala ere, ez dago batere arriskurik.

Lehenengo burdin-hesia gaintituta, beherantz joko dugu soka bati helduta (lehen eskilarak ziren) eta jarraian, zubi bat igaroko dugu. Laster zintzuraren erdialdera iritsiko gara, hots, zati estuenera (hiru metroko zabalera duena). Ezker-eskuin, 250 metroko horma handi eta ia bertikalak izango ditugu begi-

bistan. Gune honetan eguna gau bihurtuko zaigula esan daiteke, eguzki printzak ozta-ozta iristen baitira arroilaren barruraino. Ur-jauzi baten azpitik igaro ondoren, barruan laku batzuk dituen haitzulo batera sartuko gara.

Txangoa hiru bat ordutan egin daiteke lasai asko. Denborarik izanez gero, alboko Ehujarreko, Urdabiko eta Uhaitzako arroilak ikus ditzakezue; al-



Goiko argazkian, Kakoetako arroila. 1992. urtera arte hainbat zubi zeuden bertan, baina uholdeen ondorioz, erreka eraman zituen asko. Erdiko argazkian, Kakoetakoaren alboan, Ehujarreko arroil zabala. Eta behekoan, aldiz, Santa Graziko ermita. Ermita hau XI. mendekoa dugu.



diz, Kakoetako arroilaren ibilbidearekin nahikoa nekatu bazarete, Santa Graziko auzoak ezagutzeko aukera ere baduzue. Bertakoen harrera ezin hobea jasoko duzue. Eraikuntza ezagun bat bisitatzeko aukera ere izango dugu nahi izanez gero: XI. mendeko Santa Graziko ermita, hain zuzen.

Eguraldiaren gorabeherak kontuan hartu behar dira txango edo ibilaldi hau egiteko asmotan bazabiltzate. Izan ere, eurite eta elur-urtze garaietan, Kakoetako zintzurra zeharkatzen duen erreka emaritsua izaten baita oso ■

**ANDONI URBISTONDO
MIKEL EGAÑA**



ANTZERKIA

23 ● Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren barruan, asteon bi emanaldiz gozatu ahalko du Principal Antzokira hurbiltzen denak. Gaur eta bihar, **Philippe Gentyren Australiar Konpainiak «Stowaways»** obra taularatu du. Hilaren 27an eta 28an, aldiz, **Italiako Giorgio Barbeto Corsetti Konpainiaren «Mefistofeles»** ikusteko aukera izango dugu. Emanaldiak arratseko 20:30ean hasiko dira.

24 ● **Orfeon Baracaldes taldeak «Mari-Eli»** obra taularatu du gaur 20:00etan Barakaldo Antzokian, V. Zarzuela Topaketen barruan.

27 ● Gaur 21:00etan, **Theatre Nuit de Nantes** taldeak «Et Dukk, donc, s'en vint sur terre» obra antzeztuko du Miarrizteko Gare du Midi aretoan.

BERTSOLARITZA

22 ● **Gazteen Bertso Jaialdia** antolatu dute gaurkorako Ostirala Eibarko Orbea pilotalekuan, gaueko 22:30ean. Hona bertso-kantuan arituko direnak: **Maddalen Lujanbio, Ainhoa Agirreazaldegia, Jokin Sorozabal, German Meabebasterretxea, Aitor Mendiluze eta Iñigo Manzisidor.** Sa-



Bilboko XV. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia heldu da amaierara. Izan ere, hilaren 22an

Azaroaren 22an, gaueko 22:30etik aurrera, «Barrenkaleko blues-ak» ikuskizuna estreinatuko da Basauriko Sozial Antzokian.

Ziurrenik izen horrek ez dizue gauza handiegirik esango, baina «Zazpi eskale»k bai, ezta? Izan ere, «Zazpi eskale»k izandako arrakasta ikaragarriaren ondoren, bueltan datozkigu Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Josu Zabala. Bingen Mendizabalek koordinatu du «Barrenkaleko Bluesak», eta estreinaldia Basauriko Trintxera Kultur Elkartearen laguntzarekin gauzatuko dute. Gazteei eta drogari eskainitako jardunaldien barruan antolatutako



ekitaldia dugu berau. Sarreraren prezioa, beriz, ondoko hau izango da: 800 pezeta (32 libera inguru).

rrenen prezioa: 400 pezeta (16 libera) aurretik eta 500 leihatilan.

ERAKUSKETAK

22 ● Iragan azaroaren 15az geroztik, eta abenduaren Ostirala 15era bitarte, **bost euskal artista gazteren lanak** ikusteko aukera dugu Donostiako Galeria DVn, «**Dibujar» izenburupean.** Edu Lopez, Ana Isabel Roman, J. R. Amondarain, Manu Muniategiandi-koetxea eta Sergio Prego dira artistok.

IKASTAROAK

22 ● Billabonako eta Zizurkilgo udaletako kultur batzordeak **tailer iraunkor eta**

ikastaro ugari prestatu dituzte. Tailerak haurrei zuzendurikoak dira, eta hauexek ditugu batzuk: **plastika, antzerkia, bertsolaritza, euskal dantza, pintura, judoa...** Gazte eta helduentzat antolatutako ikastaroak, berriaz, ondokook: **argazkilaritza, ipuin-kontalaria, egur-taila eta zeramikak.** Izena emateko edota informazio gehiagorako, jo Billabonako eta Zizurkilgo kultur batzordeetara.

JAIALDIAK

28 ● **Bilboko Kafe Antzokian,** «Eguenak» deitu ekimena-dela eta, gaur ere jai berezia izango dugu: **San-tutxuko Gazte Sortzaileen Kultur Jaia,** hain zuzen. 18:00etan, erakusketasolasaldia burutuko bada ere, 20:00etan egingo da jaiaren aurkezpena. Ondoren, bertso-antzerkia eta Gaztedi dantza taldearen saioa. Eta 22:00etatik aurrera, kontzertua **Enbigu ala...?** eta **Molestones** taldeen eskutik.

JARDUNALDIAK

22 ● Elgoibarko Udaleko Musika eta Dantza Fundazioak Ostirala ondoko egitaraua prestatu du egunotarako. Gaur 19:30ean, **Itxaropena abesbatza** udaletxeko arkupetan. Bihar, **Parroki abesbatza** parrokian 19:00etan; 19:30ean, **Udal Txistulari Taldea** uda-

Durangoko Gorakada taldeak eskainiko duen «Pinotxo 2000» ikuskizunarekin amaituko baitira aurtengo txotxongilo-saioak. Emanaldia Aiala Antzokian izango da, 10:30ean lehenik (euskaraz) eta 20:30ean gero (gazteleraz). Gorakadak gizarte kontsumozalea erakutsi nahi die haurrei, umorea gehituz. Emanaldi honekin ez da amaituko aurtengo edizioa. Hilaren 30era bitartean, «Javier Villafañeri omenaldia» erakusketa egongo da zabalik Barrainkua Kultur Etxean. Liburuek eta argazkiek erakutsiko dizkigute, poeta eta txerpolar handi honen bizitzaren zertzeladak, beti txotxongiloak lagun dituela.

letzeko arkupetan. Etzi, **herriko dul-tzaineroen kalejira** 10:00etan; **Udal Musika Bandaren kalejira** 10:30ean; eta 12:30ean, **banda beraren kontzertua** herriko antzokian.

LEHIAKETA

22 • Mutrikuko AEK-k XII. Bertso-Paper Lehiaketa antolatu du.

Hiru mailatan banatu dute sariketa: 14 urterainokoa, 15 urtetik 18 urte bitarterainokoa eta 19tik gorakoa. Bertsoen neurria eta gaia librea da. **Partehar-tzaileek nahi adina bertso-paper bidali ditzakete.** Lanak hona bidali: Frontoi kalea z/g, 20.830-Mutriku. Bertso-paperak aurkezteko **azken eguna abenduaren 8koa da.**

• Iruñeko Anaitasuna, C. D. Navarra eta Donibane elkarteek **Iruñeko XVI. Mendiko Argazki Lehiaketa** antolatu dute. **Diapositibak zein kolorezko argazkiak aurkez daitezke.** Lau argazki edo diapositiba aurkeztu ahal dira. Hona bidali lanak: Anaitasuna, Iratxeko Monastegia kalea 2-A, 31.080 Iruña. Lanak aurkezteko **epea abenduaren 10ean amaituko da.**

MUSIKA

22 • Donostiako Anoeta Belodromoan, Seattleko Pearl Jam rock taldeak kontzertua eskainiko du

Ostirala



Murruxiko Mendizale Elkarteak antolatuta, Mendi Astea 96 burutzen ari da Aretxabaletan abenduaren 1era bitarte. Azaroaren 22an, Manuel Sanchezek osatutako

Hernaniko X. Rock Astea amaitzean da. Hala ere, izango da zer entzun eta zer ikusia hilaren 22an, 23an eta 24an. 22an, ostiralez, antzerkia eta Bartzelonako Color Humano eta Hernaniko Germen eta Inzesto taldeek 22:30etik aurrera, Tilosetan, eskainiko duten kontzertua izango dira protagonista. Biharamunean, berriz, 16:00etan bideo-maratoia izango dugu tabernetan; gaueko 22:30ean Tilosetan, Bartzelonako Inadaptats eta Speereth, eta Andoaingo 30 % taldeen rock doinuak entzuteko parada. Azkenik, igandean, herri bazkaria egingo da Tilosetan 14:30ean hasita; ostera, Etzakit taldeak



tilosetan 19:30etik aurrera emango duen kontzertuarekin amaituko da aurtengo rock astea.

gaur gauean. *Grunge* deitu mugimenduaren aitzindarietakoak diren hauek eszenatokira igo aurretik, **Fastbacks** taldea entzun ahalko dugu. Sarrera: 2.800 pezeta (112 libera inguru).

• **Juan Carlos Perezek bi kontzertu emango ditu aste honetan.** Gaur, **Er-muako zinema-aretoan** izango dugu 22:30etik aurrera. Bihar, ostera, Getxoko Udalaren «Bizi erraz euskaraz» kanpainaren barnean, **Getxo Antzokian** izango da entzungai 22:30ean.

23 • Gaueko 23:00etatik aurrera, Eibarko Su Ta Gar taldeak eskainiko dituen kantu indartsuak entzuteko aukera paregabea izango duzue Gatikako probalekuan.

Larunbata

• Miarrizteko Gare du Midin, **Bordele-Akitaniako Orkestra Nazionalak**, Marc Piolleten zuzendaritzapean, kontzertua eskainiko du iluntzeko 21:00etatik aurrera.

24 • Hazia elkarteak eta Ikastolak antolatutako, Benito Lertxundiren kontzertua entzuteko modua izango dugu gaur Urruñako elizan arratsaldeko 16:30ean.

Igandea

27 • EHuren Leioako kanpuseko Areto Nagusian, Euskal Kamerataren musika entzun ahalko dugu 11:00etan eta 16:00etan. Aurrekeztuko duten obra «Concierto clásico» da.

Asteazkena

SOLASALDIK

22 • «Premiazko hitzak garai honetarako» hitzaldi-sortaren barruan, gaur «Literatura eta Hedabideak» gaiaz jardungo du Joxerra Gartzia

Ostirala


Urretxuko Kultur Etxean, arratsaldeko 19:30etik aurrera.

27 • Bilboko Kafe Antzokiko «Kultur hitzorduak» sailaren baitan, ilunabarreko 20:00etan hasita, «Nola hizkuntzak hobeto ikasi» gaia jorratuko du gaur Tamden Fundazioko ki-dea den Jurgen Wolffek.

Asteazkena

Denborapasa

Gurutzegrama




EZKER ESKUIN: 1.- Gutxienez bi hizkuntza dakiten pertsonak. 2.- Gaitzetsi. 3.- Danbor mota. Ez eme. 4.- Luzera neurria. Norabait. 5.- Uranioa. Sukaldeko tresnak paratzeko ohol gakoduna. Bi. 6.- Hegaztien mutur. Tona. Ikas eta Ari. 7.- Erbioa. Sanferminetako martxa ezaguna. Oxigenoa. 8.- Dirukoi. Toka, zuen. 9.- Nasa. Mendiko atea. 10.- ... egin, goitik ari. Gauza izan, ... izan. Bokala.

GOITIK BEHERA: 1.- Emakume. 2.- Teiltupeko zurezko ohola. Nahastura trinkoak. 3.- Mozkortuta. Modu atzizkia. 4.- Ergela. 5.- Garoa. Bokala. India. Lehenengoa. 6.- Leguminoso mota. Alderantziz eta haur hizkeran, musu. 7.- Izana. Fruitua. 8.- Nafarroako ibilgailuetan. Zero. Bat. 1995ean. 9.- Hitzaurreak. 10.- Adorea. Nauka.

Kate hitzak

Letra kopuru desberdineko hitzak ageri zaizkizu ondoan. Helburua zera da, eskuineko taula osatzea, puzzlea bailitzan. Pasa ezazu hitz bakoitza dagokion lekura, kontuan harturik hitzok ezker eskuin eta goitik behera joan daitezkeela.



8 letra

Amerikar
Iruzkina
Izokinak
Zamariak

7 letra

Arakatu
Eromena
Ganibet
Ordokia

4 letra

Aizu
Anai
Azal
Bero
Beta
Bide
Emea
Enea
Erak
Eria
Garo
Gazi

Gero
Iaio
Hare
Laia
Lera
Lezo
Nora
Orea
Oria
Zian
Ziri
Zuta

3 letra

Aia
Aro
Bor
Dik

2 letra

Ai
Ar
Be
Da
Ig
Ra
Ze
Zo

ERANTZUN zenbakidunak bete ondoan, pasa ezazu letra bakoitza dagokion goiko taulako laukira eta grabatuan ageri den herriaren izena, Bizkaikoko herri baten izena ageriko zaizu.



1 2 3 4 5 6 7

Pl., hizkuntz-egoera		Egizate		Egokiera				
Ganaztasun	5	Sodioa		Doi-doi				
								4
Gizon izena						Emakume izena		
Aluminioa						Bi bokal		
		Pl., itsas arraina						Potasioa
		Sufrea						Norat atzizkia
Ostankoa-koi bizi								
Osmioa								Kroaziako hiria
		Jupiterren satelitea				Bokala		
		50				9		Erritmo mota
49								Bizkaieraz. ile
Musika nota				Zimurrak egin				
				Ald., egile atzizkia				
		Txabola						
		Bokala						Kontsonantea
Arrantzagunea								Bokala
				Nekadura				
								1

Hieroglifikoa



I N-e I

Eta zure lagun zaharrak?

Aurreko asteko soluzioak

ELTZIEGO

Gurutzegrama

●	B	●	D	●	S	●					
M	A	G	A	L	A	K					
●	A	●	E	●	H	A	M	A	B	I	
E	M	A	N	K	I	Z	U	N	A	K	
●	A	●	E	●	U	K	I	●	A	I	A
Z	I	Z	A	R	E	A	K	●	A	R	
●	T	●	E	●	A	T	●	A	L	●	A
H	E	R	R	I	A	L	D	E	A	K	
●	Z	U	I	A	●	A	I	R	●		
P	I	K	O	●	M	I	R	A	T	U	
●	N	A	●	S	O	N	A	●	Z	U	



- EZKERESKUTIN: 1. Makaltasun. 2. Eraso. Zori.
- 3. Na. Tantara. 4. Duda. Et. Z. 5. Itaki. Riou. 6. Zekiten. Hh. 7. Agor. Lascii. 8. Li. Tur. ARN. 9. E. Hesi. Ra. 10. Arano. Meak.
- GOITIK BEHERA: 1. Mendizalea. 2. Arautegi.
- R. 3. Ka. Dako. Ha. 4. Astakirten. 5. Ixki. Al.
- Uso. 6. T. Ni. Elai. 7. Antarna. Am. 8. Sei. 1. Ni.
- E. 9. Urtzaharra. 10. Nou. Uhinak.

Kate hitzak

Hieroglifikoa:
HERRENKA

●	B	I	B	A	●	I	S	U	N	●
B	A	H	E	●	E	●	A	R	O	A
I	B	I	L	E	R	A	●	A	R	T
K	A	●	A	N	I	M	A	L	I	A
I	●	D	U	D	A	●	D	I	●	L
●	S	O	N	A	●	T	A	T	I	●
G	L	A	●	O	R	B	A	●	E	●
E	M	A	K	U	M	E	A	●	A	D
L	A	R	●	L	A	N	K	I	D	E
A	R	E	A	●	N	●	I	Z	A	R
●	I	A	I	O	●	J	A	U	N	●

ERROBIKO PIRANAKO — Komikia




20-Nren umeak eta frankismoaren heredentzia

FRANCOK eta frankismoak tatuaje ezabaezina itsatsi ziguten batzuo, sekula amaitzen ez ziren urte beltz haietako estutasun, izu eta esperantzaren tintaz egindako tatuajea. Papez egindako ikurrina ziztrin bat karteran eroatea aski zen komisaldegirako pasaporte eskuratzeko (frankismo garaiko komisaldegietara!); askatasun eske zirt edo zarteko manifestaldi batean harrapatuz gero, edo kalean panfletoak banatzen, Burgos edo Carabanchelgo gartzelarako txartela dohainik zenuen urte ilun haietan.

Beste askorentzat, aldiz, (eta gehiengo izateko bidean dira) Franco eta frankismoa historia dira justu-justu, aspaldi bateko erreferentzia urrunak, topikoz josiak denak ('diktadura', 'faxismoa', 'grisak'...). Testuinguru honetan, bada, Azaroaren 20a edo 20-N deritzaiona berriro ere opletazko diktadura baten topikoez hornitua datorkigu, derrigorrezkoak dituen anekdota eta gainerakoez jantzia.

TOPIKOEI ihes egin nahi nieke, hain justu, urteurren honetan. Franco orain 20 urte hil zen betirako, frankismoa ere joana da, baina utzi ziguten heredentzia beldurgarririk. Itzal eta laino artean apenas bereizten den marra batetik baitatozkigu, urteen poderioz, ez iraganak berpiztutako mamu eta espektoak, lokatz haietan hazi eta hezitako oinordekoak baizik. '20-N.kumeak' ditugu; horrela jarri dio izenburua Mariano Sanchez Solerrek idatzi berria duen liburuari. Bertan ageri zaizkigu azken



JAVIER SANCHEZ ERAUSKIN

EHUko irakaslea

bi hamarkadetakoa ultra eta nazien trama eta eraso kronikak.

Euskadik sobera ezagutzen ditu 20-N.kumeak. Besterik ez bada mediku pediatria baten despatxuan utzi zuten odol arrastoagatik: Xanti Brouard, azaroaren 20an hila; Donibaneko karrika batean utzi zutenagatik (Javier Galdeanorena); Madrilgo hotel bateko moketa ganean (Josu Muguruzarena). Edo Lasa eta Zaballaren hezur kiskalien irudiagatik, besterik ez bada, edo Zabaltzaren

gorpu itoagatik, Luzia Urigoitiak lepondoan jasotako tiroagatik.

MUNSTRO berbera ekarri dute hegalpean militarrek, goardia zibilek, enpresariak, abokatuek... ultren, Batallon Vasco Españolen, GALen, Sanchez Covisaren jarraikideen edo Fuerza Nuevako pistoleroen moztueroez jantzirik, Internacional Faxistak Argentina edo Italiatik bidalitako sikarioek lagundurik. '20-N.kumeak', hogeita bat urte beranduago Galindo jeneralaren bular-dominatsua mires ten dutenak; Intxaurrendoko automatak heroi bihurtuak dituztenak, CESIDeko korbata ilunetan eta fondo erreserbatuetan beren nortasun ezaugarriak sendotzen dituztenak. '20-N.kumeak', babespeko lekukoei justizia epaitegien atarian eraso egiteko gai direnak. Frankismoaren heredentzia zuzena.

FRANKISMOAREN itzalak kausarik zintzoenak ere pozointzen ditu. Helburuak bitartekoak justifikatzen dituenean pistolen dialektika nagusitzen baita, gehiengo edo gutxiengoa-renganako mesprezu erabatekoa; elite guztiz-jakintsu, ustez eskuzaballak eta buruz argiak egiten zaizkigu salbatzaile; gizagaixo ezjakinoi beren borondatea ezarriko digute, odola isurtzeko beldurrik gabe; herriaren nahari ttu egingo diote, 40 eta 50eko hamarkada negargarri haietan bezala... Izan ere, 20-Nren seme-alabak, etxeok zein sasikoak, ez dira desagertu. Franco eta frankismoaren heredentziak, faxismoak, luzeegia du oraindik itzala, altzifrearen antzera.



ARGIA

Harpidedunen
Elkartea

ESKAITZA BEREZIA HARPIDEDUNENTZAT



Akelarre
Gauero zuzenean.



Anje Duhalde
Bakezaleak.



Eltzegor
Herrilde Berdean.



Txirri Mirri eta Txiribiton
Pailazo.




Drindots
Made in plazan



Egan
Meta eginez



Txistek. Arpa Jotzen
Argia




Albert Einstein
Mundiari buruzko
nire pentsamoldea



Sorginak eta Euskal
Herria
Gaiak.




Gazteak eta
sexualitatea
Gaiak.




Euskal historiaren 15
gertaera nagusi
Gaiak.




Lamiak, sorginak eta
jainkosak
Julio Caro Baroja



Nafarroa erdi aroan
Béatrice Leroy



Itxaro Borda
Bizi nizano munduan




Imanol Murua eta
Humberto Unzueta
Suetena Belfasten




Juan Luis Zabala
Galdu arte



Mikel Ibaguren
Hemen gauak lau ertz ditu



Zenbaki bizidunak
Didaktiker.



Euskal Gramatika osoa
Didaktiker.



Benetan
Didaktiker.



Juanjo Olasagarre
Bizi puskak



Pablo Sastre
Itzalaren ertzean



Miren Aranburu
Etorbizunaren memoria

B E R R I A K

✓ Kalean baino askoz merkeago
✓ Bidalketa gasturik gabe

* Hauetaz gain, GAIK eta SUSA argitaletxeen, IZ disketearen eta DIDAKTIKER-en katalogoetako titulu ugari ditugu. Eskalguzu zerrenda eta berehala eskuratuko duzu.

ESKARI ORRIA

Izenburua	Prezioa	Aleak	Guztira

Kobratu beharreko kopurua

Transferentzia: Euskadiko Kutxa 3035 - 0036 - 19 - 0360030651 Ondorengo datuekin batera ingresoaren agiriaren kopia bidali behar da.

IZEN - DEITURAK

KALEA _____ ZBKIA. _____ SOLAIRUA _____ ESKUA _____

TFNOA _____ HERRIA _____ POSTA KODEA _____

HERRIALDEA _____ HARPIDETZA ZBKIA. _____

KONTUTIK

TITULARRAREN IZEN ABIZENAK _____ SINADURA _____

BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____

KONTU KORRONTEA/LIBRETA _____ SUKURTSAL HELBIDEA _____

Entitatea _____ Sukurtsala _____ K.D. _____ Kontu zenbakia _____ SINADURA _____

LIBURU DENEDE TAN SALCAI



Zure
sukalde,
bulego
edo
gelarako
egutegia